



ernai gazte antolakundea

I.KONGRESUA





KONGRESUA

Lizarran, 2013ko martxoaren 2an.





AURKIBIDEA

1. EGOERAREN AZTERKETA OROKORRA

1.1. Sistema kapitalista patriarkalaren logika

1.2. Testuinguruaren irakurketa

1.2.1. Sistema kapitalista patriarkalaren egungo forma: neoliberalismoa

1.2.2. Krisiak

1.2.3. Mundua

1.2.3.1 Neoliberalismoaren fasea: desorekan oinarrituriko nazio arteko abagunea

1.2.4. Europar Batasuna

1.2.5. Frantziako Estaturik

1.2.6. Espainiako Estaturik

1.2.7. Euskal Herria

1.2.7.1. Gazteria

1.3. Alternatiba

1.3.1. Euskal Herrian

1.3.1.1. Zergatik eta zertarako Estaturik?

2. ZIKLO POLITIKOAREN IRAKURKETA

2.1. Urteetan sorturiko baldintzak

2.1.1. Euskal Herriko egoera politikoa

2.1.2. Aukera eta arriskuak

2.2. Helburuak

2.2.1. Zikloaren helburuak

2.3. Bidea

2.3.1. Herri boterea eraiki

2.3.2. Iraultza soziala

2.3.3. Bidea: ofentsiba eraikitzailea

2.3.4. Esparruak

3. GAZTE ESTRATEGIA

3.1. Gazteria eta iraultza

3.2. Gazte Estrategiaren helburuak

3.2.1. Helburu estrategikoak

3.2.2. Ziklo politiko honetako helburu taktikoak

3.3. Gazte Estrategiaren filosofia orokorra

3.4. Tresnak: Gazte boterea

3.4.1. Gazte Mugimendua

3.4.1.1. Gazte Antolakundea

3.4.1.1.1. Funtzioak

3.4.1.1.2. Lan ildoak

3.4.1.1.3. Komunikazioa

3.4.1.1.4. Funtzionamendua

3.4.1.1.4.1. Militantzia

3.4.1.1.4.2. Barne antolaketak





EGOERAREN
AZTERKETA
OROKORRA

1. EGOERAREN AZTERKETA OROKORRA

Egoeraren azterketa deituriko lehenengo atal hau gure inguru hurbilari nahiz urruneko egoerari begirada kritiko bat botatzeko baliatuko dugu eta horretarako, sistema kapitalista patriarkalaren logika orokorra ulertzeaz hasiko gara. Ondoren, sistema horiek XXI. Mendean hartzen duten forma zehatza ezagutzera pasako gara eta hala, munduak bizi duen zibilizazio krisiaren testuinguruan kokatuko gara. Zentzu horretan, Europar Batasunak, Frantzia eta Espainiako estatuak eta Euskal Herriak bizi duten egoeraren gaineko irakurketa egingo dugu iraganetik egundainoko bidaia eginez. Baina dena ez da atzera begiratzea izango, dena ez da irakurketara mugatuko, eta aurrera begira jarraitu beharreko bide lerroa marrazten ere ahaleginduko gara ponentziaren azken zatian; bai mundu mailari dagokionez, baina baita zehatzago Euskal Herri mailan ere.

1.1. SISTEMA KAPITALISTA PATRIARKALAREN LOGIKA

Bizi dugun momentu hau sakonean ezagutzeko zailtasun handiak ditugu informazioak bonbardatuak gaituen sasoi hauetan. Sistemak ez dauka informazioaz saturatzea baino modu hoberik desinformatzeko. Hori dela eta, bizi dugun egoeraren gaineko ezagutza egoki bat izateko, munduaren (fisiko eta sozialaren) funtzionamendu orokorrari erreparatu behar diogu eta horretarako, materialismo dialektikoaren oinarriak dira iraultzaileontzako tresna nagusia.

Sarritan filosofia materialistak gauza materialekiko atxikimenduari eta dependentziari erreferentzia egiten diola pentsatzen dugu. Baina ulkerera hau ez da zuzena. Materialismoaren ardatza munduaren azterketa eta ezagutza materialian oinarritzea da eta ez aldiz, mundu idealean (zentzu filosofikoan: ongia, egia, jainkoa, beste mundua, ideien mundua, arima...). Errealitatea materialtik abiatzen da eta honen gainean eraikitzen dira bizitza eta ideiak; ez alderantziz.

“Logika dialektikoak mundua etengabeko mugimenduan dagoela dio, gauza guztiak harremanean daude eta kontraesana mugimenduan dauden gauza guzti horien oinarria dela planteatzen du. Etengabeko aldaketa unibertsalak aldaketa sakonak emateko aukera ematen digu.”

Elementu anitzez osatutako mundu materiala, izan naturala zein soziala, mugimendu etengabea aurkitzen da. Harri bat ez da beti harri berdina, haizeak jotzen du, edo urak higatzen du, edo barraskilo batek bere adurra uzten dio... hau da, gainontzeko elementuekin elkarrekintzan dago, etengabeko eraldaketa eraginez. Elementuen arteko lotura, talka, azken batean elkarrekintza, da mugimenduaren motorra.

Logika

Pertsona lurra lantzen hasten denean (ordura arte bildu eta ehizatu egiten du) soberakina agertzen da. Honek iraultza bat suposatzen du: giza-taldeek

bizirauteko beharrezkoa baino gehiago dute. Soberakinen agerpenak bere kudeaketa eta jabe izatea dakar. Honekin batera, lan produktiboa bultzatuz, botere harremanetan oinarritutako lan banaketa eta hierarkia soziala ezartzea ahalbidetzen du, sexuen arabera rolen banaketa ezarriz.

Logika honek jendarte antolaketa zuzentzen duenean, interes kontrajarriak dituzten aurkako taldeak sortzen ditu; zapaltzaileak eta zapalduak. Hauen arteko kontraesana (talka) eta elkarrekintza (lotura) etengabeko mugimenduaren funtsa dira. Kontraesanez eramaten dute zapaldua zapaltzaile izatera. Horrela, jendarte honetako (eta oro har, humanitateko) mugimendu nagusiak zapalkuntzek eragiten dituzte, hots, interes kontrajarrietatik sortzen diren pertsona talde batzuek besteekiko duten botere harremanek.

Antolaketa honek forma ezberdinak hartzen ditu historian zehar: feudalismoa, esklabotza,... eta egun bizi duguna, kapitalismoa. Hau, industri iraultzarekin datorrela esan genezake, hau da, soberakina nagusiki produkzio industrialean kokatuz, metatzen den kapital ekonomikoa produkzioaren gainbalioa izanik.

Beraz, gure jendartearen ordenatzen eta gidatzen duen sistemaren (alegia, kapitalismoaren) oinarria ez gara pertsonak, ez da bizitza; kapitalaren (lehengo soberakinen) metaketa (jabetza pribatuaz baliatu ahalik eta gehien eskuratzeko) baizik. Sistema honek pertsonon biziraupena bermatzen ez duela aintzat harturik, jendarte indarkeriaren bidez ezarri eta mantendu den logika batean oinarritzen dela ondorioztatzen dugu. Helburua kapitalaren metaketa izanda, sistema kapitalista patriarkala zapalkuntzan eta esplotazioan oinarritzen da, pertsona lanerako biziz, eta ez bizitzaren mesedetan bizitzeko.

Funtzionamendua

Esan bezala, elementuen arteko etengabeko elkarrekintza eta talka, hots, kontraesanak, dira mundu naturala eta soziala mugiarazten dutenak. Horregatik jendarte antolaketaren kontraesan nagusiak ulertzea eta aztertzea funtsezkoa izango da errealitatea errotik eraldatzeko, mugimenduan eragiteko.

Bizi garen sistema kapitalista eta patriarkal honetan oinarritzko kontraesana lanaren antolaketan eta honen baitan ematen diren botere harremanetan topatzen dugu. Izan ere, funtsean pertsonok bizi ahal izateko lan egin behar dugu. Horrela, kapitalismoaren ezaugarri nagusia merkatuan saldu daitezkeen (hau da, truke-balioa duen produktu, zerbitzu, pertsona...) merkantzien (erabilgarriak izan edo ez, erabilera-balioa) produkzio orokortua eta hauekin lortutako etekina da. Etekina gero eta handiagoa izango da merkantzia produzitzeko beharrezko lanaren balioa gutxituz eta aldiz, merkatuan produktuak duen balioa handituz, hots, gainbalioa. Prozesu honetan agertzen den kontraesana sortutako gainbalioa bereganatzean indartzen da. Nork kudeatzen du sortutako gainbalioa? Nor da horren jabe? Hor dago beste gakoa. Jabetza pribatuaren bitartez, gutxi batzuk produkzio bitartekoen jabe dira, sorturiko gainbalioa eskuratuz.

Oinarria: soberakina. Sistema produktibo batean = plusbalioa.
Kapitalismoaren ezaugarri nagusia plusbalioa esku pribatuetan dagoela da.

Baina merkantzien produkziara zuzendutako lana, jendartearen biziraupenerako beharrezkoa den lan guztiaren parte bat baino ez da. Halere, truke-baliorik ez duen lanak, hau da merkaturan saltzen ez denak, ez dauka balio ekonomikorik, nahiz eta erabilera-balio eta eragin ekonomiko handia izan lan horrek. Kontzeptu honek argitzen digu sexuen arteko lan banaketaren zergatia. Patriarkatuak ahalbidetzen du pertsonon lan indarra sortzeko eta birsortzeko beharrezkoa den lana emakumeei egozte. Horrela, lan hau ez-lana bilakatu dute (etxekoa, ezkutukoa, balio sozialik gabekoa), kapitalak ahalik eta etekin gehien ateratzearen logikari jarraituz: emakumeok ez bagenu egingo, sistemaren eginkizuna izango litzateke eta honek koste ekonomiko handiak ekarriko lituzke.

Bestalde, kapitalaren metaketaren logikari erantzunez, sistema kapitalista patriarkala herrien zapalkuntzan eta esplotazioan oinarritzen da: inperialismoan. Sistemak herri zapalduak behar ditu kapitalaren mesederako. Botere hegemonikoa duen gutxiengo bat are eta gehiago aberastu dadin, beharrezkoa du gainontzeko herriak esplotatzea kontuan izan gabe hauen jatorri kulturala, herrien burujabetza ukatuz, merkaturaren mesedera ezarritz. Batzuk esplotatu eta hustu eta besteak merkatuaren logikaren arabera jardutera behartu. Globalizazioak logika horri erantzuten dio. Hirugarren mundua deiturikoa lehengai eta eskulan merkearekin produzitu, lehen mundua deiturikoa kontsumo basatiaz saldu, eta sortutako zaborra berriz ere hirugarren mundua deiturikora eraman.

Eta azkenik, bada beste zapalkuntza handi bat kapitalaren metatzearen logikan: Amalurraren esplotazioa. Sistema kapitalista patriarkalak etengabeko hazkundea du helburutzat, eta aldiz gure planetaren lehengaiak eta biogaitasuna mugatuak dira. Produktio eredu linealak sortzen duen esplotazioak eta hondakinek duten kostu ekologikoa ez da kontuan hartzen, ekonomikoki irabaziak handituz.

Gazteriaz...

Mugimendu nagusienak zapalkuntza izenarekin identifikatu ditugun botere harremanek eragiten dituztela esan dugunean, ez dugu aipatu kontraesan horietan aurkitzen den botere askatzailea.

Kontraesana bi interes kontrajarrietatik sortzen den heinean, bi aurkakoen arteko talka dela esan dezakegu, zaharra eta berriaren arteko talka bezala (aurkako horiek ez dute zertan muturrekoak izan). Zaharra indarrean dagoen egoera da, bere baitan kontraesanak biltzen dituena. Kontraesan hauek, aurkako interesen talkaren bidez mugimendua eragiten dutenez, zaharrak egoera berriak sortzeko gaitasuna dauka. Hau da, aurkakoen talkak indartuz egoera zaharrean dauden kontraesanak gailentzen dira egoera berri bati bide emanez.

Hari horretatik ulertzen da gazte boterearen garrantzia. Nahiz eta modu

absolutuan ezin dugun ulertu pertsonen garapenaz ari garelako; zahartze prozesuak buru eskemen zurruntzea dakar. Esperientziak, gauza bertsuak behin eta berriz eta angelu ezberdinetatik ikusteak ezagutza handia ekartzen digu, baina baita gauzak beste era batera ikusi eta ulertzeko ateak itxi ere. Heltzen da momentu bat ezin dugula oineko behatz potoloa ahoan sartu. Beraz, heldu egitearekin mundu ikuskera zehatz baten arabera ezagutza pilatzen dugu, mundu ikuskera hori bera indartuz; jarrera kontserbadorearen hazia.

Garapena eman dadin, sormena esentziala da, guztiz derrigorrezkoa. Sormena, munduarekiko dugun ikuskera da. Gaztea izateagatik ez dugu zertan sormenerako gaitasuna izan. Baina argi dago, gaztetan mundu ikuskera konkretu bat garatu gabe dugula eta horrek gazteoi sormenerako aukerak irekitzen dizkigula. Esperientziaren ondorioz, mundu ikuskera konkretu bat garatzen dugu eta horrek dakar sormena mugatzea, hala ere, landuz gero ez da zertan malgutasuna eta sormena galdu behar. Hala, jendartearen garapenaren bermea unean uneko gazteak gara; gu ezinbestekoak garelako une hori mugiaraziko duten kontraesan berriak ekartzeko.

Gauzak horrela, jendartearen garapenerako bezain derrigorra da gazte boterea, Euskal Estatu Sozialista, euskalduna eta feminista eraikitzeko.

“Irudimena da zuen boterea, hori da zuen jardunaren elementu interesgarriena. Zuek, mundu guztiak bezala, irudimen mugatua duzue, baina zuen nagusiek baino ideia gehiago dituzue. Guk, gure formazioaren ondorioz ideia zehatzak ditugu posible denaren eta ez denaren artean. Irakasle batek esanen du: ‘Azterketak kendu? Inoiz ez. Hobetu litezke, baina kendu ez. Zer dela eta-hau? Bere bizitza erdia azterketetatik pasa duelako. Langile klaseak sarri imajinatu izan ditu borroka molde berriak, baina beti bizitzen ari zen une zehatzaren arabera. 1936an fabriken okupazioa asmatu zuen, hauteskundeetako garaipen bat egonkortzeko eta horri etekina ateratzeko zuen arma bakarra baitzen. Zuek irudimen askoz ere aberatsagoa duzue, Sorbonako hormetan dauden pintadekin frogatu liteke hori. Zuek sortu duzuenak badu zerbait harridura sortzen duena, aztoratzen duena, gure jendarteak sortu duen oro eta dena ukatzen duena. Nik horri, posible denaren espazioaren zabalpena deitzen diot. Ez uko egin horri.”
Jean Paul Sartre.

“Gazte izatea eta iraultzaile ez izatea kontraesana da”
Salvador Allende

1.2. TESTUINGURUAREN IRAKURKETA

Materialismo dialektikoak ongi azaltzen duen legez, mundu honetako gertakariak ez dira inoiz isolatuak eta gertatzen den oro da beste gertakari baten ondorio. Sarri, sistema kapitalista patriarkalak gertakariak ateko behatxulotik erakusten dizkigu gazteoi, gauzen ikuspegi hertsia eta lausoa emanaz.

Antzeko zerbait gertatzen da krisiarekin ere. Azken urteetan horrenbeste entzun eta erabili dugun hitza afera ekonomiko soila balitz lez erakutsi digute politikariak, ekonomiako adituek eta hedabideek. Baina ez gaude krisi ekonomiko soilean, kapitalismoa krisiaren sistema baita. Hortik harago, egun zibilizazio krisian edo bizitzaren krisian gaudela baieztatu genezake, krisia estrukturala baita.

Azken finean, bizitza ulertzeko, bizitzeko eta bizitza mantentzeko azken bi mendeetan egon den eredu bera dago krisian. Baieztapen honen gakoa krisiak hamaika aurpegi dituela ulertzearekin ikusiko dugu. Bi aldetako ispiluren antzekoa da: krisi ekonomikoaren atzean krisi energetikoa, bioaniztasunaren krisia, krisi hegemonikoa, zaintzaren krisia, elikadura krisia, krisi demografikoa, demokraziaren krisia eta abar luzea daude. Eta era berean, krisi horien guztien atzean interes ekonomikoak. Mundua egituratu duen azken 200 urteetako ordenaren zutabe nagusiak kolokan daude: metaketa, garapen lineala, hazkundea (ekonomizista), kontsumismoa...

Azkenean, industria iraultzatik ezagutu dugun produkzio eta bizi ereduaren kontraesanak ageriago daude une honetan, eta gatazka lana-kapitala dikotomiatik harago, bizitza-kapitala binomioan kokatu da, kapitalaren akumulazioaren eta hazkunde etengabearen ereduak heriotzara baitaramate pertsonarekin batera, izadia osoa. Kapitalismo patriarkalak hartu duen azken formak, neoliberalismoak, kontraesanak bere puntu gorenera eraman ditu.

Zorreen oinarritutako sistema izan da neoliberalismoa. Zorra orain ordaindu ezin dena etorkizunean ordaintzeko atzeratzea da. Lau zor nagusi sailkatu daitezke: finantza zorra, zor ekologikoa, emakumearekiko zorra eta langilearekiko zorra. Hala ere, zor hauetaz gain, aipatzekoak dira gazteriarekiko zorra, edota zor kulturala, besteak beste. Norbanakook zor hauekiko dugun erantzukizuna ahaztu gabe, zorraren gatibu bilakatu da jendartea, zor hori handiagotuz.

Lana-kapitala gatazkaren baitan, teoria marxistaren arabera, jabea, saltzen dituen produktuei etekina ateratzeko plusbalioaz baliatzen da. Plusbalio edo gainbalioa enpresariak langileari bere lan-indarragatik ordaintzen ez dion zatia da, berak irabaziak izan ditzan. Zentzu horretan nagusiak langileari, teorian, dirua zor dio. Baina kapitalismo finantzarioan plusbalio hori beste era batera ere bereganatzen du oligarkiak: orain lan-indarraren "aurrezkiekin" jokutzen dute, kredituarekin.

Finantza zorrarekin, sistema neoliberalak langileriaren egoeraren okertzearen aurrean kontsumoa pizteko baliatu duen trikimailua izan da kreditua.

Norbanakoak zein Estatuak, denok bilakatu gara finantza entitateen menpeko. Zordun denaren lehentasuna zor hori kitatzea bilakatzen da eta horrek lan gehiago eskatzen du interesak ere ordaindu behar direlako, lana galtzeko beldurrez bizi da eta azken batean injustizien aurreko desmobilizazioa edo Stockholmeko Sindromearen antzeko zerbitu sortzen du hartzekodunarekiko.

Zor ekologikoa txanponaren beste aldea da. Ekonomia produkzioan oinarritzen da, baliabide naturalen ustiatzean oinarritzen den produkzioan. Sistema kapitalista patriarkalaren logikaren arabera hazkundea etengabea eta mugagabea da. Horrek talka egiten du ordea, Lurra dituen lehengai kopuru mugatuarekin. Egungo Mendebaldeko zibilizazioen produkzio eta kontsumo maila mundu osora hedatuko balitz, Lurra bezalako hiru edo bost planeta beharko genituzke bizirauteko. Aspaldi pasa genuen Planetaren biogaitasunaren langa. Ditugunak baino baliabide gehiago ustiatzen eta zabor gehiegi sortzen ari gara, eta ondorioz, etorkizuneko belaunaldienak izan beharko liratekeen baliabideak xahutzen eta eurentzat izugarrizko aztarna ekologikoa dena, zorretan uzten ari gara.

Garapen jasangarriaren kontzeptua 1987an sortu zenean, “ondorengo belaunaldien garapena eragotzi gabe, jendarte baten ongizatea bermatzen duen eredu ekonomiko-soziala” dela definitu zuen Nazio Batuen Erakundeak (NBE). Gerora argi geratu da orduko hartan zehaztutakoak haizeak eraman dituela, hazkunde etengabearen ametsa gailendu dela. Are gehiago, enpresa multinazional kutsakorrenak ere bere egin duten leloa izan da garapen jasangarria, euren aurpegia zuritze aldera. Gaur esan genezake, “hazkunde iraunkorra” bezalako hitz totemikoak, mundua polikiago deusezte dakarren eredu direla, gutxiago kutsatzea, epe luzean kutsatzen jarraitzeko. Egun ez da nahikoa abiadura moteltzea, norabidea aldatu behar da, pertsonen eta herrialdeen garapen soziala lehenetsiko duen norabidea hartuz.

Multinazionalen negozio aukera berria “ekonomia berdea” da. Rio+20 goi bileraren ondorioetan zokoratuta geratu den ideia bada ere (AEB eta Txinak norabide honetan jarraitzeko asmoa dute hala ere), izen ponpoxoaren atzean multinazionalen baliabideak euren kontrolpean izateko asmo arriskutsua ezkutatzen du kapitalismo berdeak. NBEk berak onartzen du 2011ko Munduko Txosten Ekonomiko eta Sozialean orain arteko negozio errutinarekin ez dagoela segitzerik, baina horren aurrean ingurumenean sortzen ari garen kaltea teknologiaren bidez (biomasarekin erregaiak sortuz; georingeniaritzaren bidez atmosferatik CO₂a erauziz, eguzki erradiazioak kontrolatuz, euri kopurua handituz; nekazaritza industrialak sustatuz...) kontrolatu daitekeela diote. Erroan dago arazoa, beraz: kapitalismo berdeak ez du onartzen planeta finitu batean bizi garela eta beraz hazkunde ekonomikoa ezin daitekeela etengabea izan.

Laugarren zorra, patriarkatuaren ondorio dena, emakumearen esplotazioa da. Sistema patriarkalak emakumeari esleitu dion zaintzaile rola ondorioz, emakumearen zaintza lana ikusezin bilakatu du. Era berean, nahiz eta ustez lan munduan eta mundu akademikoan emakume gero eta gehiago dauden, datuek

garbi erakusten dute “boterearen maskulinizazioa” gertatzen dela eta beraz emakumea beti bigarren mailako pertsonatzat hartzen dela. Hau da, nahiz eta emakumea gero eta formatuago egon, ezberdintasunak gero eta handiagoak dira; aukera eta baldintza prekarioagoak ezartzen zaizkiolako.

Emakumearen esplotazioa produkzio eredu kapitalistarentzat zein beharrezkoa den azaltzen duen datu argigarria da Thérèse Clerc-ek ematen duena: “[Frantziako estatuan] emakumeek inon kontabilizatzen ez diren 41 mila milioi etxeko lan ordu egiten dituzte, BPGren inongo kalkulutan sartzen ez direnak. Nekatzen gaituzten 41 mila milioi ordu, gure pentsioa txikiarazten dutenak. Emakumeen erdiak soilik du pentsio osoa, bi heren pobrezia mugaren azpitik daude.”

Honek argi erakusten du, honek guztiak lana-kapitala zapalkuntzatik haragoko eremua hartzen duela eta esplotazio afektibo-emozionala eragiten duela. Egoera hau are larriagoa da emakume etorkinen artean. Oso esanguratsua da mendebaldeko jendartean zaintza lanak emakume etorkinen esku geratzen ari direla, esplotazio egoeran, soldata miserableen truke, kontraturik gabe eta euren etxeetatik urrun. Pobrezia kateetatik ihesi etorri eta kateetan are gehiago katramilatu. Baina zaintza lanaren katea mundu mailako sare osoa da. Bertoko emakumeak lan munduan sartzen dira eta zaintza lanak emakume etorkinen esku geratzen dira, baina horren ondorioz herrialde zapalduetan beste emakume batzuk are egoera larriagoan geratzen dira zaintza lanak egiten.

Patriarkatuaren indarra eta emakumearen bigarren mailako egoera, sexismoa konfirmatzen duten datuetan azaltzen da. Europan esaterako, ikerketa ofizialen arabera %19ak indarkeria matxista justifikatzen du kasu batzuetan. Emakumea zein bere gorputza esplotaziorako objektu bilakatzen ditu sistema kapitalista patriarkalak.

Guztiek ere, denbora ebasten digute. Bizitzeko denbora. Batean, zorra ordaintzea lehentasun bilakatzen dugulako, bestean izadiaren etorkizuna hipotekatzen ari garelako edota zaintza lanaren bitartez emakumeari bere garapen pertsonalerako denbora ebasten zaiolako.

1.2.1. SISTEMA KAPITALISTAREN EGUNGO FORMA: NEOLIBERALISMOA

1955ean Victor Lebow salmenten analistak gerora sistema kapitalista patriarkalaren oinarritzko zutarri izango zen ideia bota zuen gerra osteko ongizate estatuaren aro loriatsuan: “Hain izugarri produktiboa den gure ekonomiak eskatzen du kontsumoa bihurtzea gure bizieraren muina, erritua bihurtzea bai erosketa nola ondasunen erabilera, kontsumoan bilatzea gure asebetetze espiritual eta gure egoeraren betetasuna... Guk gero eta erritmo biziagoa behar dugu gauzak kontsumituak, erreak, ordezkatuak eta baztertuak izan daitezen.”

Produkzioko kostu ekonomikoak apaltzeko sortutako eredu fordistak, behar baino ondasun material gehiago sortzen zituen, eta guzti horri aterabidea eman eta

aberasten jarraitzeko kontsumoa gizakiaren muina bilakatu beharra zegoen.

70eko hamarkadako krisia aitzakia hartuta, programa neoliberalak abian jartzea ebatzi zuten munduko agintariek. Hiru oinarri nagusi ditu: desregularizazioa, espekulazioa eta zorpetze masiboa.

Desregularizazioak bi ondorio nagusi izan ditu: zerbitzu publikoak pixkanaka pribatizatzea herritarren eskubideak multinazional eta enpresen eskuetan utziz, eta bestetik merkatuen liberalizazioa, kapitalaren joan etorriak inolako mugarik izan ez dezan. Honek, besteak beste, deslokalizazioak eragin ditu lan esku merkeagoaren bila joan baitira enpresak inperialismoaren ondorioz zapalduta dauden herrialdeetara.

Espekulazioa da neoliberalismoaren bigarren gakoa. "Produkzioak dirua sortzen du" eredutik "diruak dirua sortzen du" eredura egindako jauzia da. Honen ondorioz dirua sortzen den eremua (ekonomia erreala) eta finantza ekonomia (fikziozko ekonomia) bereiziz doaz, burbuilak sortuz. Diru erreala eta fikziozkoa ez dira neurri berean hazten. Ondorioz, zorrak ordaindu ezin diren unea iristen da, ez baitago interesen ondorioz metatzen joan den zorra ordaintzeko beste diru errealik.

Zorpetze masiboa da hirugarren elementua. Azken 30 urteetan Kontsumo Prezioaren Indizea (KPI) -produktuen prezioa- eta langileriaren soldatak -bizi maila- ez dira maila berean hazi. Burbuila espekulatiboaren bidez eskubideak luxu bihurtu dituzte zorpetzea bultzatuz, etxebizitza eskubidea izanik horren adierazgarri. Kontsumoari eusteko estrategiaren erdigunea bankuak bilakatu dira, kredituak eta maileguak eskainiz herritarroei zein Estatuei. Honek, zorra ordaintzea lehentasun izanda, merkatuen menpeko bilakatu gaitu.

Kontsumoaren jendarte honek era berean, hiru zutarri nagusi izan ditu: Publizitatea: asebetetze pertsonala eta espiritualak bilatzera bidean, zoriontsu izateko beste produktu baten beharra saltzen digu. Jendarteak kontsumo taldeetan banatu eta sistema kapitalista patriarkalaren baloreak erreproduzitzen ditu, gazteak eta emakumeak kontsumo gaitu bilakatu.

Kreditua: kontsumitzeko beharra asetzeko eta nahi dugun guztia erosi ahal izateko, dirua ematen du, era berean zorpetzea espekulaziorako eta pagotzerako baliatuz.

Zaharkitzapen programatua: produktuak behin eta berriro erosiak izan daitezten, epe jakin batean izorratzeko programatuta daude. Honek, diruaren etengabeko xahutzea sustatzeaz gain, behar baino produkzio handiagoa izatea justifikatzen du, Lurraren baliabide naturalak mugatuak direla kontuan izan gabe eta era berean, Lurra bereganatzeko gai ez den zabor kopuru ikaragarriak sortuz.

Iraungitze programatuarekin batera bada antzeko beste kontzeptu bat ere. Hautemandako zaharkitzapenak, oraindik erabilgarri dauden gauzak botatzeko

konbentzitzen gaitu. Sistemak produktuak etengabe berritu eta itxura aldatzen ditu kontsumoa bermatze aldera eta publizitatearen bidez sortzen dituen moden ondorioz, sinetsarazten digu produktu hori erosten ez badugu modaz kanpo egongo garela eta jendartetik kanpo geratuko garela.

1.2.2. KRISIAK

Kapitalismoaren esentzia zapalkuntza da eta horren ondorio dira krisiak. Kapitalismoaren logika esplotatzaileak, berariaz krisiak dakartza. Krisi ekonomikoa, finantza krisia, krisi ekologikoa eta abar. Beraz, esan daiteke kapitalismo patriarkala krisiaren sistema dela. Are gehiago, ondorio diren krisi horiek baliatu egiten dituzte sistema bera kapitalaren defentsan behin eta berriz birfundatzeko. Kapitalismoaren esplotazioak krisiak dakartza eta krisiak kapitalismoaren birfundazioa dakar geroz eta gehiago esplotatzen jarraitzeko, hortik krisiak ziklikoak izatea.

Lehenago aipatu bezala Zibilizazio Krisia da egun bizi duguna, krisi anizkoitza. Krisien zerrenda luzea bada ere, honako hauek nabarmenduko ditugu:

Baloreen krisia: sistema kapitalista patriarkala gutxi batzuen interesen mesedetan eraikitako makinaria osoa da. Gutxi batzuek irabazi dezaten besteak galtzaile izango dira. Denak den bezala jarrai dezan, sistema kapitalista patriarkalak pertsonak subjektu sozial gisa tratatu beharrean, pertsonak indibiduo gisa tratatzen ditu. Horren adierazgarri da esaterako, eskubide kolektiboen gainetik, modu interesatuan eskubide indibidualak gailen araztea. Pertsona indibiduo gisa tratatuta "norberak bonbon eta gainerakoak hor konpon" bizi filosofia indibidualista sustatzen du, hala, kontrabotere soziala ezabatuz. Zentzu horretan, rol maskulinoari egozten zaizkion baloreak gailentzen dira: indibidualismoa, lehia, indarra, norberekeria, zikoizkeria... Sistemak sustatzen duen pertsona eredu "independentek", bizitzeko beharrezko dituen lotura afektibo guztiak hautsi eta Indibiduo bakoitza bere zilborrari begira egotera bultzatzen du, Amalurrarekiko errespetua galduz, beste pertsonetikiko errespetua galduz eta norbere interesak lehenetsiz, ondoren aipatzen diren krisietan are gehiago sakonduz.

Krisi ekologikoa: krisi hau bera ere anizkoitza da. Beronen baitan sartzen dira krisi energetikoa, bioaniztasun krisia eta krisi klimatikoa, besteak beste. Lurraren baliabideak mugatuak dira eta horrek, ezinezko egiten du hazkunde etengabea. Energiaren krisiak epe laburrean are krisi larriagoa ekarriko du. Horren adibide da erregai fosilekin (gasa, petrolio...) gertatzen ari dena, egungo ustiaketa ereduarekin jarraituz gero urte gutxiren buruan, ustiatzen negozioa egiten dutenentzat errentagarri izateari utziko baitiote. Egun produzitzen diren produktuen %95ak dauka petrolio eta honekiko dependentzia ikaragarria da, produktu horien garraioan esaterako petrolio erabiltzen baita. Nahiz eta estimazio bat izan, 2005-2006an "Peak Oil" delakoa gainditu genuen, hau da, ezagutzen den munduko petrolioaren erdia gehi bat ustiatuta dago.

Baina bada kezkatzeko arrazoi gehiago. Aldaketa klimatikoa esaterako. Mundu guztiko biztanle guztioi zuzenean eragiten digun krisia da. Pertsonok produkzio katean sortzen dugun kutsadura eta zaborraren ondorioz lur planetan uste baino azkarrago ari da aldatzen klima. Berotegi efektua ondorio ekonomiko, politiko eta sozial larriak eragiten ari da dagoeneko. Eta ez dago zantzurik norabidea aldatuko denik. Gainera herrialde emergenteak ere ez daude hazkunde eredu honi uko egiteko. Egoera larria bada ere herrialde kapitalistek aldaketa klimatikoaren ondorioekin negoziatzen egiten dute. Lur planetaren osasunagatik kezka faltsua agertu eta energia "berdeekin" aurpegiak zuritzen dituzte; hala, etekin ekonomikoak lortzen jarraitzeko kutsadurari amaierarik eman gabe.

Azkenik bioaniztasunaren krisia ere badago. Baliabide naturalen ustiatzearen ondorioz, Lurraren birika diren baso eta oihanak desagerrarazten ari gara, animalia espezieak akabatzen, ozeanoak husten... Lurra bizitzeko moduko eremu egiten duten elementu orekatzaileak suntsitzen ari gara abiadura ikaragarrian. Azken 200 urtetan 65 milioi urteko bizitzaren iraungitze handiena eragin dugu.

Egungo hazkunde eta produkzio eremuan ustiatzen ari garen lehengai kopurua eta sortzen dugun kutsadura eta zabor kopurua kontuan izanda, hiru-bost planeta artean xahutzen ari gara urtero. Euskal Herriko biztanle batek duen bizi eredia mantentzeko planeta eta erdi behar dira. 1980an gainditu genuen produkzioaren eta biogaitasunaren arteko oreka. Lur Planetaren biogaitasuna urtebeteko plangintzara mugatuko bagenu, Euskal Herrian apirilera xahutu dugu erabili genezakeen guztia eta hortik abendura artekoa etorkizuneko belaunaldiei ebasten ari gara. Mundu mailan faktura hori azarorako xahutzen dugu. Hori da guk uzten dugun aztarna ekologikoa.

Finantza krisia: neoliberalismoan diruaren eskaintza etengabe haziz doa espekulazioaren ondorioz. Bankuen aktiboak bikoiztu egiten dira 10-15 urtero. Espekulazioaren ondorioz, burbuilak sortu eta aktibo edo diru kopurua ekonomia erreala baino askoz azkarrago hazten da. Ekonomia erreala ezin dio jarraitu finantza ekonomiaren hazkunde erritmoari. Horren ondorioz, ekonomia erreala sortzen duen dirua beharrezkoa da kredituak eta maileguak ordaindu ahal izateko. Honela zor publikoak eta defizitak gora egiten du sistema osoak huts egiteraino.

Zaintzaren krisia edo zero sektorearen krisia: sistemaren metabolismoak pertsona bera ere makina produktibo bilakatu du enpleguaren bidez. Gure bizitzako denbora lanerako bizi dugu. Lan produktiboa, lan erreproduktiboaren gainetik kokatzen da gaur egungo mendebaldeko kulturean. Diru truk egiten ez diren oinarritzko zaintza lan horiek emakumeen gain ezartzen dira jendartearen gain ezarri beharrean, eta aitortzarik ez izan arren sistema sozioekonomikoaren funtzionamendurako oinarritzko zutarri dira. Horregatik lan produktiboari loturiko hiru sektoreen oinarrian, lan erreproduktiboari dagokion zero sektorea ezinbestekoa da pertsonaren ongizaterako, pertsonen arteko harremanak garatzeko eta birsortzeko. Mendebaldeko emakumea lan munduan masiboki sartu denean, zero sektorea ere merkantilizatu egin da (sarritan emakume

etorkinen esku geratzen delarik eta baldintza prekarioetan beti). Krisia nabariagoa den honetan, krisitik ateratzeko kostuen pisu handiena emakumeen gainean ari da erortzen, lan ordu ordaindu bikoitza edo hirukoitzaz gain zaintza lanak ere bere gain daudelako.

Krisi hegemonikoa: Berlingo harresia erori zenetik AEBen inperioa izan da nagusi munduan bere eredu neoliberalarekin. Baina azken 20 urteetan bestelako herrialdeak ere pixkana indarra hartuz joan dira, Amerikako Estatu Batuen botere hegemonikoari krisia eraginez. BRICS (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hego Afrika) direlako herrialdeak potentzia ekonomiko eta politiko kapitalista bilakatu dira, Txina bereziki modu nabarmen batean. Hau, Amerikako Estatu Batuen hegemonia zalantzan jartzera heldu da.

Txina eta Estatu Batuen arteko borrokaren artean, bigarren Gerra Hotz antzeko baten aurrean aurkitu gintezke. Lehia bizia dago besteak beste geratzen diren erregai fosilen nagusi zein egiten den ikusteko. Bitartean, Europa zaharrak lehen mailako potentzia izaten jarraitzen du, baina ezin daiteke ukatu krisi larriari murgilduta dagoenik. Gainbehera horretan lehen mailako beste potentziek Europa sostengatzen dute, azken horren hondoratzek eragin zuzena izango lukeelako potentzia horien nagusitasunean.

Legitimitate krisia: Demokrazia ordezkatzailerak krisian dago. Krisi ekonomikoak agerian utzi du merkatuen diktadurapean bizi garela eta klase politikoak herritarren interesen mesedera egon ordez, merkatuen txotxongilo telegidatuak direla. Honek zilegitasun krisi latza eragin du herritarren artean. Hauteskundeetan abstentzioa goraka doa orokorrean, jendartearen parte hartze politikoa murrizta da oso eta klase politikoaren sinesgarritasuna lokatzen dago.

Krisi nagusietako batzuk baino ez dira hauek. Baina badira krisi gehiago ere. Hezkuntza akademikoaren krisia -merkatuen nahietara bideratutako hezkuntza sistema denez gaur egungoa, pertsonen garapena bigarren mailan dago-, osasun krisia -osasunarekiko dagoen kontzientzia fisiko, psikologiko eta sozial falta-, krisi psikologikoa -depresioak, estresa, suizidioak...-, krisi demografikoa -200 urtetan zazpikoitz egin da pertsona kopurua. Arazoa ez da soilik kopurua. Mendebaldeko bizi eredu eta kontsumo ohituren gorakada da arazoa, bizi itxaropena ere gora doa...-, elikadura krisia -pertsona guztiak asetzeko beste elikagai dago, banaketan dago arazoa. Bestalde, gero eta gehiago kontsumitzen dira atzerrian ekoiztutako produktuak, eta elikadura desorekatuaren ondorioz sortzen diren gaixotasunak, elikagaien kutsadura,...-, krisi kulturala -bioaniztasuna lur planetaren iraupenerako garrantzitsua den bezala, kultura eta hizkuntza aniztasuna ere bada. Inperialismoaren ondorioz abiadura ikaragarria ari gara desagerrarazten eta uniformatzen munduko hizkuntzak eta kulturak-, belaunaldien arteko krisia -belaunaldien arteko haustura nabarmena da eta ez dira kontutan hartzen hurrengo belaunaldien beharrak ...-.

Desorekaren munduan bizi gara beraz. Krisi ekonomikotik irteteak ez du berez krisi guzti hauen konponbidea ekarriko, baizik eta hauetan gehiago sakontzea.

Krisitik ateratzeko modu bakarra, kapitalismo eta patriarkatuarekin apurtzea da. Aitzitik, elite ekonomikoaren apustua garbia da: epe motzeko etekin ekonomikoen mesedetan izadiaren etorkizuna hipotekatzeko prest daude. Krisia baliatuz kapitalismoaren birfundazioa dute helburu Sarkozy 2008an garbi esan zuen bezala.

1.2.3. MUNDUA

Egungo testuingurua ulertzeko, atzera so egin eta orain gutxi arte estatuak agente orekatzaile gisa jokatuak paperaren desegiteaz mintzatu behar gara. Ongizateaz alegia, Estatuak ekonomian parte hartzeko zuen eskumen erregulatzailiaz. Zehazki mendebaldea kapitalismo patriarkalak sorturiko hainbat desoreka baretzeko asmoz sortutakoa eta egun desegiten ari dena. Ongizate estatua baina, ez da betidanik izan, une historiko zehatz batean kapitala eta lanaren arteko indar harremanen ondorio izan zen desoreka ezkutatzeko.

Ongizate estatuaren loraldia II. Mundu Gudaren ostean kokatzen da. Bi indar militar eta produkzio eredu suertatzen dira garaile: Ameriketako Estatu Batuak, kapitalista, eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna, ekonomi planifikatu sozialista.

Ongizate estatuan, estatuak paper aktiboa jokatzen du desberdintasunak gutxitzeko. Politika fiskal progresiboaren bitartez, errenta altuenei gehiago kobratuz, aberastasuna birbanatzen da gutxiago dutenen artean. Hezkuntza eta osasun eskubideak unibertsalak dira, errentaz gaindi daudenak. Lan aseguruia eratzen da, istripu, langabezi edo eta erretiroa izaterakoan kobratu ahal izateko. Finean, estatuak ekonomian parte hartzen du desberdintasunak gutxitu eta aberastasuna birbanatzeko asmoz. Ongizate estatua kapitalismoaren iruzur bat da, herritarrak lasaitu eta beste eredu baten alde iraultza ez egiteko.

Eredu sozioekonomiko honek, komunismoa ideologikoki higitzeaz gain langile borrokak kapitalismoaren barruan egindako lorpenak zanpatu zituen, horrela, kapitalismoaren biziraupena ziurtatuz. Kapitalak, etekin ekonomiko txikiagoa aterako zuen arren, bere biziraupena bermatzeko asmoz sortu zen. Keynes izan zen korrante honen bultzatzailea.

Eredu honen eskutik handitu zen eskaintza zein eskaria, masa kontsumo jendartea garatuz. Hainbat hamarkada iraun zuen ereduak, SESB-en erreferentzia komunistaren indarra bere baitan mantendu zen bitartean.

80ko hamarkadan aldiz, Chicagoko eskolako pentsalari kapitalistak, Friedman tartean zegoelarik, ongizate estatuaren oinarrien aurka ekiten hasi ziren, honela neoliberalismoa deituriko kapitalismoaren fasean sartu ginelarik.

90eko hamarkadan eman zen eraispen prozesua munduan, hala ere 70eko hamarkadatik Latinoamerikako diktaduretan (Txile, Argentina, Uruguai) aplikatzen hasiak ziren. Hauek laborategien papera izan zutelarik botere hegemonikoaren

gidaritzapean eta ondoren 80ko hamarkadan Reagan eta Thatcherren eskutik hedatu zen AEBn eta Erresuma batuan. Estatuak ekonomiarekiko oro har izan beharreko harremanaren birdefinizioak, aipaturiko kapital eta lanaren arteko indar harremanen aldaketari erantzuten dio. Murrizketak, lan erreformak eta oro har neurri ekonomiko neoliberalak deritzotenak, testuinguru horretan kokatu behar dira.

Ofentsibaren helburua, eremu ezberdinetan Estatuaren esku-hartzea gutxitzea da; kapitalari etekinak ematen dizkion sektoreak enpresen eskura pasaz -eskubideen pribatizazioa-, aberastasun handia dutenek hainbeste ez ordaintzeko neurri fiskalak hartuz, gastu soziala murriztuz, langilearen prekarizazioan sakonduz eta hezkuntza zein lan erreformak "malgutasunaren" eufemismoan aurrera eramanez.

Egungo testuingurua ofentsiba horren baitan kokatzen da, ezkerre eredu ezberdinak izan arren erreferente alternatibo argirik gabe ageri den honetan mundu mailan. Hau dela eta, aipaturiko tendentzia areagotzeko arriskua dago datozen urteei begira.

1.2.3.1 Neoliberalismoaren fasea: desorekan oinarrituriko nazioarteko abagunea

90eko hamarkadaren hasieran, SESBen desagerpenaren ondorioz, kapitalismoak fase berri bati ekin zion ofentsiba klabean. Aldi berean, kapitalen mugimenduak liberalizatu zituzten, modu honetan, finantza kapitalismoaren fase berri batean sartu zelarik mundua. Jada, inolako kontrolik gabe, kapitalak nahi zuen munduko lekuan, zein kapital hutsen finantza merkatuetan inbertitu zezakeen.

Horrela, globalizazioan urratsak emanez deslokalizazio prozesua zabaldu zen. Kapitalak inbertsio produktiboak lurralde industrializatuetatik -AEB, Europa- kendu eta kostu urriagoko lurraldeetara -esku lan merkea- eramaten zituen. Lehen eta hirugarren mundua deiturikoen artean dependentzia areagotuz. Era horretan produktuaren kostua merkeagotu eta langileen arteko kompetentzia areagotzen zuten. Eta AEBn batez ere, kontsumoa indartu egin zen kredituaren hazkundearen bitartez. Aldi berean finantza kapitalaren bolumena izugarri handituz.

Taktika ekonomiko honek denboran zehar ondorio desberdinak ekarri ditu. Batetik, lana-kapitala harreman dialektikoaren baitan, kapitala nagusitu da beti. Zentzu horretan, langabezia eta prekarizazioa areagotu dira. Bestetik, kapitalak kontzentrazio prozesua handitu du, etekinak pilatuz. Modu honetan, lanaz harago, bizitza eta kapitalaren arteko binomioan murgildu garelarik.

Baina hauez gain, bestelako eraginak ere izan ditu taktika ekonomiko honek. Produktzio merke gune horiek, kapitala pilatzen hasi diren lurralde industrializatu bilakatu dira urte hauetan -BRICS: Brasil, Errusia, India, Txina, Hegoafrika-, balantza komertziala positiboa izanik. Adibide gisa, Txinak, egun munduko aktibo monetarioen 2/3 duela kalkulatu da.

AEB eta Europan izandako taktika ekonomikoaren ondorioz, efektu desberdinak izan dira, batez ere AEBetan: desindustrializazio izugarria, langabezi estrukturalaren areagotzea -lana deslokalizatu delako, langabetuen tasa aurrerantzean %10 ingurukoa izango dela kalkulatu da-, estatuaren defizit publikoaren hazkundera eta finantza sektorearen deskapitalizazioa besteen artean. Finean, langile klasearen bizi baldintzen kaltetzea ekarriko duten ondorioak.

Ondorioz, potentzia berrien agerpenak (BRICS), orain arteko hegemonia zalantzan jartzen du. Potentzia berriak ordena berria eskatzen hasi dira, eta ordena berri hori lortu arte gudari ekin diote. Hala ere, aipatu beharra dago, azken hamarkadan hazkunde eremu izan badira ere dezelerazioan sartu direla. Europako atzeraldia eta Estatu Batuetako geldialdia mundu mailako krisi bilakatu delarik. Potentzia berrien presentziak, AEB eta Errusia-Txinaren aurkako ofentsiba militarra handitu du, gerra hotzaren mamua berpiztuz.

Armamentu militarren, eta bereziki armamentu nuklearraren harira sortzen ari diren potentziak eta beraien arteko lehiak ere ezin ditzakegu aipatu gabe utzi. Bada bereziki aipatu beharreko bat eta azken urteotan AEBen atzean indarrez sartu dena; sionismoa. Palestinarren odolarekin eraikitako Israeleko estatuak mundu mailako indar militar nagusietako bat izaten jarraitzen du baliabide militarrei zein segurtasun kontuei dagokionean. Makinaria guzti honek, jendartean izua hedatu eta herritarrak kontrolpean izateko shockaz baliatzeaz gain, herritarrak zein herrien arteko gudak bultzatzen ditu, kapitalaren mesedera noski.

Honen adibide dira azken urteetan ekialde hurbilean ematen ari diren guda guztiak; Iran, Siria, Irak, Afganistan, Libia... Estatu dominatzaileen arteko lehiaren eszenatokian bezala baliatzen dituzte lurralde hauek. Petrolioa lapurtzeko helburuarekin, nahi duten herria ustiatu eta gerra finantzatzuz.

Potentzia kapitalista hauen arteko konfrontazioak finkatuko du datozen urteetako abagune ekonomikoa eta Eurogunearen eta AEBen krisiaren iturburu izango dira. Bertako biztanleok larrutik ordainduko ditugu konfrontazio horren ondorioak.

Ondorio hauek jasaten ditugun herritar zein herriok ez gara bilakaera honetan etxean gelditu ezta geldituko ere. Izan ere, mundu mailan badira kontrabotere baten aldeko adibide ezberdinak itxaropen arrazoi eta eredu izaten jarraitzen dutenak. Hala ere Estatu gehienek gehiengoaren nahiei muzin eginez, kapitalaren mesedeetarako neurriak aplikatzen jarraitzen dute.

Batetik, Latinoamerikako hainbat estatuetan garatzen ari den XXI. mendeko sozialismoa dugu, diktadura neoliberalak deuseztatzeko herri altxamenduen espresio ezberdinak erabili izan dira, ondoren, hauteskunderaz baliatuz gobernuak eskuratu eta sozialismorantz jotzeko helburuarekin. Ameriketako hainbat estatutan hegemonikoa izatean lortu du, Venezuela aitzindari izanik. Herrialde hauek 70eko hamarkadan AEBtik zuzendutako diktadura neoliberalarekin

deuseztaturiko sozialismoaren berreskuratze prozesuan daude.

Horrez gain, badira kontraesanak eta hainbat kritika: batetik, zenbait estatuk herritarrei begirako politikak ere egiten ari dira, nahiz eta batzuetan beharrian kapitalistei erantzutea baino ez duten lortu. Bestetik, planteamendu honek, aldaketa, estatu aparailuaren oniritziaren esku uzten du. Horrek, planteamendu honen bideragarritasuna ezbaian uzten duelarik.

Norabide horretan Latinoamerikan badira bigarren independentzia prozesua ematera bidean ALBA edo UNASUR bezalako lankidetzak proiektuak Bolibariar pentsamenduaren baitan kokatzen direnak.

Itsasoaz bestaldeko mugimenduez gain, geroz eta ezagunagoak dira munduan zehar burutzen ari diren borrokak. Bai jatorrizko herrietan zein Estatu ezberdinetako herritarren burujabetzaren borroka geroz eta indartsuagoa izaten ari da. Aipatzekoa da bereziki Palestina, 1945ean Al Naqba (hondamendia) gertatu zenetik borroka dinamika eta erresistentzia iraultzailea. Kurdistanek (Iran, Irak, Siria, Armenia eta Turkia artean) ere urte asko daramatza independentziaren aldarrikapenarekin beraien luraren askatasunaren aldeko borrokan. Eta aipatu beharrekoak dira baita, Afrikako deskolonizazio prozesuaz geroztik oraindik orain frantses-espainiar zein beste estatu batzuen botereari aurre egiteko asmoz sortutako burujabetza prozesu iraultzaileak. Besteak beste hor ditugu Sahara edo Azawad (Mali, Tuaregak) bezalako herrialdeak. Hauetz gain, Afrikan ematen ari den esku-hartze inperialista geroz eta ageriagoan geratzen ari da, argi geratu da nortzuk diren piratak, lapurrak... Izan ere, neokolonialismo prozesuaren aurrean, bertako herritarrak euren baliabide naturalen defentsan altxatzen ari dira, autodefentsan bitartekoak jarriz.

Europa inguruan berriz, greba orokorrak eta herri protesta masiboen lehen leherketak gertatu dira. Besteak beste aipagarriak dira murrizketa zein erreformen aurreko borrokak. Bide honetan, herri mugimenduek betetzen duten papera ezinbestekoa da kapitalismo patriarkalaren ofentsiba honen aurrean. Aitzitik, oraindik orain politika elektoralak eklipsatzen du herri mugimendua, hau da, ekintza zuzena. Nahiz eta herri mugimenduko espresio gehiago azaleratzen ari diren, oraindik ere politika elektoralak indar gehiago erakusten du.

1.2.4. EUROPAR BATASUNA

Europa, aurreko atalean aipaturiko zurrumbiloaren erdian kokatzen da eta modu berezi batean Europar Batasuna; azken hau, nazioarteko potentzien arteko konfrontazioan galtzaile irtengo den potentzia bezala.

Europar Batasuna proiektu moduan, oinarri sendorik gabeko egitasmo gisa sortu eta garatu da. Sortze arrazoia ez zen izan europarren arteko ahaidetasuna eta komertzio askea, Iparraldeko Europaren interesei erantzutea eta munduko hegemoniaren lehian AEBen aurrean indartzea baizik, besteak beste. Denborarekin geroz eta argiago geratu dira interesak eta egun Alemaniaren

mesedetara egokitutako proiektu gisa koka genezake 27en Europa.

Moneta eta batasun ekonomikoa, Europa iparraldeko estatuak haien produktuak hegoaldeko herrialdeetara esportatzeko helburuarekin diseinatu ziren. Izan ere, dibisa bakarrak ahalbidetu zion iparraldeari berez garesti liratekeen esportazioak modu merkeago batean egitea hegoaldean. Hegoaldeko herrialdeak balantza komertzial negatiboa izaten hasi zirenean ordea, etengabeko zorpetzeari ekin zioten. Sistema oparoa zen denentzat: iparraldekoek esportatu eta hegoaldekoek kontsumitu (hori bai, leporaino zorpetuz). Eta gutxika, Europa bateratzeko jaiotzen zen proiektuak berak Europa bitan banatu zuen: iparraldea eta hegoaldearen arteko zuloa handituz.

Errealitatearen argazki honi, ezinbestean gehitu behar diogu azken urteetan Europako zenbait herrialdeetan (eta Europatik kanpokoetan ere bai) bizi izan dugun higiezinen burbuila. Zabor hipotekei esker (kaudimen txikiko unitateei emandako kredituak) porlanean oinarritutako diktadura garatu besterik ez da egin. Azken urteetan, espekulazioaren eta Amalurraren txikizioak ez du mugariki izan eta horren adibide argiena dugu Espainian gertatutakoa.

AEBn Subprime kredituen krisiak eztanda egin zuenean ordea, berehala hedatu zen gainontzeko lurraldetara eta Europa ere bete betean jo zuen. Harrezkero, modu gordin batean bizi da krisia PIIGS deituriko herrialdetan: Portugal, Irlanda, Italia, Grezia eta Espainia.

Sinestarazi nahi izan digute finantza eta ekonomia krisia dela egungo hau baina argi dagoena da honen izaera alor horietatik haraindikoa dela: zibilizazioa da krisian dagoena. Krisi honen izaera estrukturala da eta bere jatorria 2008a baino zaharragokoa. Poltsikotik harago, bizitza bera dago jokoan eredu neoliberal eta patriarkalarekin.

Sistemaren funtzionamendua onura pribatuetan, kontsumoan, lehiakortasunean eta emakumeen, Lurraren nahiz langileriaren esplotazioan oinarritzearen ondorio da krisi hau. Hutsunez beteriko alor publikoaren biziraupena dago jomugan, oinarritzko eskubideak pribatizatzen ari direlarik. Pribatizazio prozesu horren iturburu garrantzitsuetako bat Schengen Tratatua (1985) da zeinaren bitartez Europar Batasuneko herrialde guztiek jarraitu beharreko bide-orria markatzen zen, hezkuntza eta osasuna bezalako oinarritzko zerbitzuen pribatizazioari atek irekiz.

2010-2011 ikasturtean sartu zen indarrean Bologna prozesua Euskal Herriko unibertsitateetan eta jada nabariak dira honen ondorioak. Bologna prozesua onuraz beteriko prozesu moduan aurkeztu ziguten baina horren atzean ezkututzen dena hezkuntza sistemaren homogeneizazioa eta pribatizazioa besterik ez da. Lizentziaturak gradu bilakatu dira, Full-time ereduaren bitartez ezinezkoa da lana eta ikasketen arteko uztarketa, alor sozialeko ikasgaiak desagertzeaz daude, euskara hirugarren edo laugarren mailan gelditu da... Goi mailako ikasketa sistema merkatuaren logikaren arabera egituratu da

Bolognaren bidez, edukiak eta ebaluazioa enpresen mesedetara jarriz. Haatik diogu, gaur egun luxu bilakatu da unibertsitatean ikastea, gurasoekiko menpekotasuna areagotzen duelarik, eta ia ezinezkoa euskaraz egitea.

Guzti horren aurrean ikasleria ez da lo gelditu eta irudimena tresnatzat harturik mila formen bitartez esan dio BOLOGNARI EZETZ! Hala ere, borroka horiek ez zuten Bolognaren aplikazioa galarazi. Euskal Herrian nahiz gainontzeko herrialdeetan argi gelditu da gazteria ez dagoela bere etorkizuna saltzeko prest eta ardura horren ondorioz pribatizazio politikai gogor ari zaio erantzuten.

Osasunaren kasuan, sistema pribatuak indarra hartu izan du osasun publikoaren kaltetan, eta era berean multinazionalen onuran. Sendagaien koordainketa, zerbitzu nahiz enplegatuen murrizketak edota paperik gabekoen ez artatzea jendarte eredu hau gaixoa denaren adibiderik ikusgarrienak direlarik.

Egoera honen aurrean estatu agintariak eta EBk emandako soluzio bakarra bankuak erreskatatzeko dirutza galantak zuzentzea da eta herritarrontzako ordea, murrizketak besterik ez. Adibide argia dugu Grezian gertatutakoa, zeinaren bidetik doan Espainiako estatua. Jokabide hauek argi erakusten digute gobernariak ez dutela inongo begirunerik jendartearekiko; ez gara euren ardura eta helburua, gastu publikoa txikituz aberatsak diru gehiago metatzen jarraitzeko politikak finkatzea da. Horretarako, krisiaren aitzakiaz baliatzen dira. EBri dagokionez, geroz eta nabarmenagoa da bere erabakien atzean talde interesak ezkutatzen direla.

Etorkizunari begira, ezin esan dezakegu panorama beltza ez denik. Gazteon etorkizuna pobrezian eta miserian oinarrituko dela argi dago. Hala eta guztiz, ondoratzen ari den txalupa hau urgaineratzeko eta bere norabidea eredu kapitalista eta patriarkaletik aldatzeko esperantza bakarra dugu: borroka. Borrokarik ezean ez dago aldaketarik eta horren adibide argia dugu, Islandia. Estatu hori, Europako bakarra izan da biztanleriak aukera izan duena hartu beharreko neurri ekonomikoez iritzia emateko. Hala, zorra ordaintzeari uko egin eta neurri gogorrak hartu dituzte krisiaren arduradunen aurka: banku zuzendariak eta lehen ministro ohia zigortuz.

Islandiaz gain, geroz eta gehiago gara neoliberalismo eta patriarkatuaren aurrean altxatzen garen herritarrak eta EBren deuseztatzearen beharraz mintzo garenak ekonomia lokala sustatuz. Zentzu horretan, Grezian gertatutakoa aipagarria da. Bertan, egoera soziopolitiko eta ekonomiko larriaren erdian ezkerrik indarra hartu eta herritarren murrizketa ezberdinei emandako erantzuna zinez eredugarria baita.

Ez da ordea ezkerria indartzen ari den sektore bakarra, azken urteetan Faxismoak European izan duen gorakada ere nabarmena baita, horrek esan nahi duen guztiarekin. Krisi egoeran jendartean zabaltzen den beldurraz baliatzen da, segurtasuna eskaini eta horrela politika arrazistak, matxistak, liberalak edota antidemokratikoak ezartzeko.

Azkenik, aipatzekoa da mundu mailan eragina izango duten aldaketak ematen ari direla Europan. Eskoziaren eta Groenlandiaren autodeterminazio prozesuez mintzo gara. Biak ala biak, herritarren parte hartzearekin independentziarako bidea egiten dihardute.

1.2.5. FRANTZIAKO ESTATUA

Frantziako estatua, II. Mundu Gerraz geroztik, globalizazio ekonomiko eta kulturalaren alternatibatzat hartu izan da. 80ko hamarkadatik baina, eraldatze prozesu baten murgilduta dago, beste estatuetan bezala, eskubide sozialen eraispen bidean.

Frantziako iraultzan jakobinoek Liberté, Egalité eta Fraternité aldarrikapenak zabaltzen bazituzten ere, horien ezarpenerako garatutako eredu zentralista Frantziako estatuan existitzen diren nazioen zapalketarako oinarria izan da. Hortaz, Errepublikaren ardatz diren hiru ezaugarri horiek, ez dute, ez askatasun, ez berdintasun, ez anaitasunik ahalbidetzen Euskal Herria, Britainia, Okzitania, Korsika eta Herrialde Katalanetan.

Zentralismoak tokian tokiko burujabetza baztertzeaz batera, krisi asko ekarri ditu: horietako bat: nortasunarena da. Identitate krisi sakona ekarri du Frantziar nortasunaren inguruan azken hamarkadan sortutako diskurtso xenofoboak. Frantziar bizi diren migratzaileen matxinadak Frantziaren estatu nazio identitatea kolokan jartzea lortu dute. Bestetik, Frantziako estatuak, mugen barneko migrazioa erabili izan du euskal nortasuna galarazi eta desagerrarazteko Euskal Herriko hiru herrialdeetan. Izan ere, Lapurdi turistifikatu du eta Behe Nafarroa eta Zuberoako biztanleak migratzera behartu ditu.

Aipatzekoa da, Frantziak gaur egun ere Afrikan duen politika neokolonizatzailea. Deskolonizazio prozesua eman bazen ere, ezin esan genezake egun Afrikako herrialdeak burujabeak direnik, interes ekonomiak tarteko, bertako gobernu ustelen atzean edo sortzen diren guden atzean (beste estatu inperialista batzuekin batera) Frantziako Estatuaren esku-hartzea baitago. Honen adibide argia dugu Libian frantsesek Gadafiren gobernuaren aurka sortu eta finantzatutako altxamendua, geroago lurralde horren ustiakekin gelditu asmoz. Horra XXI. mendeko kolonizazio ereduak; neokolonialismoa. Afrikan egiten ari dena bueltan datorkio inperioaren bihotzera migratzaileen matxinaden eskutik.

Hala ere, Michèle Alliot-Marieren garaia bukatu da. 2012ko hauteskunde Presidentzialistako eta Legebiltzarrerako hauteskundeetan ikusienez, eskuin muturraren gorakada nabaria izan da. Zentrismoaren espazioa txikitu egin da eta eskuinaren grabitate zentroa are eskuinerago joan da. UMP Fronte Nazionalaren ultra eskuineko diskurtsoa hartzera behartua egon da. Hala ere, esan genezake, krisi garaietan, eskuinaren diskurtsoak orokorrean gorantza egiten duela.

Ekonomikoki, Frantziako estatuaren egoera ez da xamurra EB-aren baitan.

Hegoaldeko estatuen baitan egoera makroekonomiko onena azaltzen badu ere, zorduna da Europar Batasunean, eta hegoaldeko estatuekiko lotura estuak ditu, inurukoen krisialdiek jo eta berarekin eramango dute.

Hegoaldeko estatuek bereganako duten zor publiko zein pribatuen ordainketa etendurak -gertatzea aurreikusten dena- Frantziako finantza sistema ondora dezake. Frantziako estatuaren zoritxarrerako, hegoaldea nola ondoratuko den, eta honek Frantzia hondoratuko duen ikusi besterik ezin du egin, ezer egin ezinda. Finantza sistema pikutara joateko arriskuarekin, atzeraldi ekonomikoa datorkionez, Europako Moneta Sistematik irteteko hautagaia da.

Hegoaldeko ekonomietatik oparoena izaki, iparraldekoarekiko zordun amaituko du, bertako biztanleek prekarizazio prozesua biziko dutelarik. Sektore publikoaren desegitea eta horrek ekarriko dituen ondorio sozialak arrisku erreala dira etorkizunari begira.

Eta nazioartean krisiaren aurrean lidergoa zuela erakutsi nahi izan duen arren, barne krisiak gainez egin dio. Izan ere, egindako erreforma edo aldaketa ororen aurrean (CPE, erretreten erreforma, Balladur,...) egondako borroka ezberdinek panorama baldintzatu izan dute. Hala ere, Frantziako ezkerak oraindik Estatu batasunaren aldarria ez du zalantzan jartzen eta alternatiba gabe dago. François Hollande sozialdemokraziaren esperantza berria bada ere, Angela Merkelen murrizketa politiken aurrean hazkundearen beharra aldarrikatu du. Planteatzen duen hazkunde eredu hori, eredu Keynesiarrean oinarritzen da, Amalurraren esplotazioa eta porlanaren diktadura sustatuz, eta krisira ekologikoa areagotzen duten politiketan sakonduz. Horren adibide da Ipar Euskal Herrian AHTa egiteko erakutsi duen asmoa nahiz eta herritarren gehiengoa aurka egon.

1.2.6. ESPAINIAKO ESTATUA

Espainiako estatua inperialista izan da bere aurrekarietatik. Izatez indarrez sortu eta osaturiko estatu artifiziala den heinean, biziraupena bera ere indarrez bermatzera behartua dagoen estatua da. Zentzu honetan, estatu izaerak berak beste hainbat nazio zapaltzen ditu. Herrien zapalkuntza eta klase zapalkuntzan oinarriturik menpekota den estatu "independentea".

Alta, frankismoa izan zen zapalkuntza horren orbainik beltzena, faxismorik gogaikarrienaren erakusle. Klase zapalkuntza historikoa gailurrera bidean jarri eta ukazioa lehen lerroan agertu ziren, hortik klase zapalkuntzarekin batera nazio zapalkuntzak eta emakumearen zapalkuntzaren gogortzea. Gerra, errepresio, zapalkuntza eta oro har klase baten aberastasun pilaketak, nazio, herri zein herritarren pobrezia gordina azaleratu zuen. Honek, atzerakada handia ekarri zuen ezberdinetan, hala nola, politikoa, zientifikoa...

XX. mende hasieratik ukazina izan da bi bandoen arteko talka, ezkerreko mugimenduaren hedapena nabaria izanik, mugimendu anarkista esaterako, altxamendu militarren ondorioz sortutako 36ko guda izanik talka horren

eszenifikazio nagusia. Eliza izan zen frankismoaren ideologia zabaldu eta kontraboterearen aurka borroka ideologikoa aurrera eraman zuena. Eliza katolikoak zapalketa ideologikoaren truke hainbat onura politiko nahiz ekonomiko jaso zituen. Honen guztiaren aurrean ukaezinak dira ezkerretik borrokatzeko egindako ahaleginak, gehienak Espainiako estatuak bortizkeriaz isilaraziak, hortik ezkerren ahulezia. Hala ere izan dira borrokaren eta erresistentziaren eredugarri askapen nazional eta sozialaren bidean sorturiko eta erroturiko borrokak. Asimilazioa ekidin izanaren arrazoi nagusia.

Migrazioa ere fenomeno garrantzitsua izan zen frankismoaren garaian. Garai hartan frankismoaren mugen barnean eman zen. Batez ere hegoaldetik iparraldera, fabriken kokalekuak medio, jendea nekazal eremuetatik industria guneeetara mugituz. Herritarren aldetik janari eta baliabide beharrak bultzatutako migrazioa izan bazen ere, Frankismoaren aldetik migrazio interesatua izan zen. Hori horrela, asimilaziorako estrategiaren baitan espainiar identitatea hedatzeko baliatu baitzuen frankismoak.

Baina estatuari dagokionean herritarrak zapaltzeak klase baten aberastasuna suposatzen duen bitartean, pobrezia hedapena ekidin ezina egiten du. Honela, kapitalismo patriarkalak irudikatzen duen hazkundera presazko lehentasuna izanik, formula magikoaren bila eraikuntzan aurkitu zuten irtenbidea. Batez ere etxebizitzak, aireportuak, errepideak, portuak, urtegiak eta abar luze bat eraikiz.

Eraikuntzan oinarritu zuen bere ekonomia eta hazkundera, puztu eta puztu, puzten ari zirena globo bat zela ohartu gabe edota ohartu nahi izan gabe. Arazoa gerora etorri zen, eraikuntzaren dinamika gelditzen jakin ez zelako. Kapital pribatu zein publikoa eraikuntzara bideratuta zegoen, honek guztiak zirkulu amaiezin bat sortuz: enpresak eta bankuak puztuz, zorra ere areagotuz.

Jendartean nabaria zen frankismoa ondorenean emandako leherketa. Bai kultura zein aldarrikapenen aldetik ahotsak geroz eta gehiago entzuten ziren. Baina alde batetik ezkerren ahulezia, frankismo suntsitzailearen eta izandako saldukeriaren ondorioz, eta bestetik errepresioaren jarraipenak eztanda eta aldarrikapena bere horretan geratzea egin zuen.

Diktadura eta demokraziaren artean amildegia sortu ordez diktadurari jarraipena emango zion zubia izan zen trantsizioa, Konstituzioa izanik hori lortzeko tresna nagusia eta honen bermatzailea estatu burua, Francok ezarritako erregea. Historikoki Espainiako estatua erresuma izan bazen, gaur egun oraindik mantentzen den monarkia izaera duen estatuari jarraipena eman zion. Bestalde, ez zen inongo epaiketarik edota kargutzerik egon frankismoaren erantzuleei zegokienez eta "café para todos" esaldi adierazgarriarekin autonomien estatua sortu zuten. Hau da, Espainiako estatua osatzen zuten lurralde guztiei autonomia izaera aitortu zieten. Honekin, askatasun egarria zuten nazioak apaldu, eta gainontzeko lurraldeak maila berean jarriz, hauek ere isilarazi zituzten. Modu honetan, erroko arazoak ezkutatu eta aurrera jarraitzeko hautua eginez eta zapalkuntzak bere horretan mantenduz.

Lehen hazkundearen gabezia eta ezintasuna merkatuetan nabaria zen. Neoliberalismoaren logikan merkatuetan lehiatzean, Espainiako estatuaren hazkundearen ahulezia nabarmen geratzen zen. Lehen sektorea errotu gabe izateak eta teknologikoki estatu atzeratua izateak aukera bakar bezala prezio baxuekin lehiatzera bultzatzen du (horrek berariaz dakartzan soldata eta baldintza prekarioekin) baina prezio baxuetan ere ezinezkoa da Txina bezalako potentziekin lehiatzea.

Beraz hazkundearen sakontzeko behararen aurrean eraikuntzan sakontzen jarraituz eta neoliberalismoaren ate berriak baliatuz 90eko hamarkadaren amaieran lurzoruaren legea hazkunde artifizialaren garapenerako gako izan zen. Hazkundeak gazteriaren eragin zuzena izan zuen, askok ikasketak utzi, lan egiten hasi eta etxebizitza bat erosi zuten (bankuarekin zorpetuz). Honela hazkundeak XXI. mendera bidean jarraitu zuen higiezin burbuila lehertu arte 2007. urtean, ordura arte bankuek hazkundearen kreditu bitartez finantzatu zuten-eta. Honen porrota etorri zenean, eraikuntza alorreko enpresa askok itxi, krediturik ordaindu ezin, eta bankuek haien aktiboak irentsi behar izan zituzten. Eta aspaldi puze hasitako globoa azkenean lehertu zen.

Hazkundearen sortutako zorra, beste zor batekin estali nahian zor ordainezina eta betirako zama geroz eta handiago bilakatu den unean krisiaren aitzakian estatuen jarrera neoliberalismoan sakontzea izan da.

Krisia baliatuz klaseen eta generoen zapalkuntza areagotu da. Friedmanen ereduari jarraiki, estatuak bere gobernu ezberdinen bidez hezkuntza, osasuna eta zerbitzu sozialetan erreforma edota murrizketak ezarri onizate estatu deituriko horren azken zantzuak deuseztatzeko aukera probestu dute. Europaren izenean kapitalaren mesedetara eskubideak murriztuz herritarrak geroz eta gehiago estutzen dihardute, estatuen burujabetza ahazteraino. Eta nola ez autonomien estatu zalantzan jarriz krisiaren aitzakian zentralismoa bultzatzen dute, ezkutuan boterearen hegemonia zentralizatuz gutxienez mesedetan ezartzeko eta nazio zapalduak asimilatze bidean urratsak emanez.

Azken hamarkadatan migrazioaren izaera bera ere erabat aldatu da. Europa ekialde, Asia, Afrika eta Latinoamerikatik ematen da migrazioa, hauek aniztasunaren ikur izan beharrean prekarizazioaren ikur bihurtuz. Lan baldintzarik okerrenetan aurrez aipaturiko zapalkuntzak, maiz, biderkatu egiten dira migratzaileen kasuan, are gehiago emakumeetan eta oro har gazteetan, Espainiako estatu gazteen erdiak langabezia daukela kontutan hartuz. Espainiako estatuak honen aurrean bestaldera begiratu txanponaren alde batean errepresioa eta bestaldean negozioa baliatzen du.

Baina ezkerria ikusezina izan arren jendartean amorrua nabaria da eta horren adierazpide dira ikasleek abiatutako borroka, langileen borroka, hauen adierazpide izanik meatzariak edota SAT sindikatu andaluziarrak aurrera eramandako ekintza zuzenak eta lurren okupazioak eta baita M15 bezalako mugimenduak ere. Zapalkuntzak eta prekarizazioa pairatzean sortutako amorrua

kaleratzen hasia da, nahiz eta ezkerren ahuleziak hor dirauen pixkanaka amorrutik sortzen ari den aktibismo eta borrokarako grinak gatazka azalean uzten du.

Alta, estatuak bere makinaria osoa martxan jarriko du sistemaren jarraipena bermatzeko. Errepresioaren erabilera ukaezina da eta aurrerantzean ere herri aktibazioa mozten saiatuko da, horretarako zilegitasuna galdu arren aparatu guztien kontrola kapitalismoaren garapenerako mesedetan ezarriko dute. Horren adibide dira kaleak museo bilakatzeko sortu dituzten ordenantza ezberdinak edota zigor kodean egin asmo dituzten erreformak. Helburu argia dute: herri mugimendua eta gazte borroka geldiaraztea.

Ukazioan eta zapalkuntzan oinarrituriko estatua izanagatik, argi geratzen da Euskal Herriko lurraldearen zatiketean eta menpekotasunean oinarritzen den marko juridiko-politikoaren agortzea. Euskal Herria ez da salbuespena, autonomismoaren sorreraz geroztik eredu hori inoiz baino agortuago dagoela erakusten baitigute hainbat gertakarik; Kataluniako estatutuaren afera, independentismoaren gorakadak, erreferendumak...

1.2.7. EUSKAL HERRIA

Euskal herria osatzen duten zazpi lurraldeak sistema kapitalista patriarkalaren logikan funtzionatzen duten bi estatu zapaltzailearen menpe dauden unetik, Euskal Herria bera zuzenean zapaldua dago. Nafarroa Garaia, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia, bi administrazioetan banaturik Espainiako estatuaren menpe daude eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberora, gaur gaurkoz egitura administratibo propiorik gabe Frantziako estatuaren menpe.

Europatik Afrikara bitartean Pirinioen magalean kokatzen da leku zinez estrategikoan. Kantauri itsasoak, zein erliebearen dibertsifikazioak, baliabide natural anitzak izatea bermatzen du. Dibertsifikazio eta baliabide horien ondorioz ustiapenerako aukera ere anitza da, lurralde aberatsa izanik. Baina aberatsa izanagatik aberastasuna mugatua dela ukaezina da.

Aberastasun hau, eremu geografiakoaz eta berezko baliabideez harago, materiala ez den ondareaz ere osatzen da. Besteak beste, auzolana, euskara eta euskararen inguruan sorturiko kultura.

Alta, aberastasun kolektiboan aberastasun pertsonala/pribatua ikusteak gehiegikeria dakar atzetik eta gehiegikeria horrek desoreka. Gehiegikeria hori neurrigabe areagotzen delarik arrotzen eskuetan.

Honela uler daiteke Euskal Herriak jasandako zapalkuntza: zapalduak izan gara herri honek duen aberastasunagatik eta zapalkuntza hau ez asimilatzearen ondorioz honen aurka altxatzeagatik, gure izana ere ukatuz. Bestalde zapalkuntza erantsi bat gehitu behar zaio; ondasun kolektiboa ondasun pertsonal eta negozio bezala ikusten dutenek kudeatzen dituztelako etsaiaren

administrazioak, UPN, UMP eta PNV izanik antzerki horretako protagonistak gainontzeko titiriteroekin batera.

Guzti hauen eskuetatik jasan behar izan ditugun politika neoliberal eta chauvinisten ondorioa da egun Euskal Herrian bizi dugun egoera ekonomiko politiko eta soziala. Euskararen egoera, langabezia, lurralde zatiketa, eskubide sozial eta politikoen gabezia eta abar, ez dira kasualitatez suertatu, politika neoliberal eta kolonialen ondorio nagusi dira. Eta zer esanik ez genero zapalkuntzaz, patriarkatua neoliberalismoaren garaian birformulatu den honetan, emakumeak sistemaren logikari dagokion rola barneratzera kondenatuz.

Lurralde antolaketan politika neoliberalen baitan azpiegituren behar izan antzua hedatu nahi izan dute garapenaren ikur, Europa eta batez ere Espainiaren zementuaren politika bezalakoak jarraituz. Zementuaren diktadurarekin batean hirugarren sektorea eta batez ere turistikazio masiboa ere logika horren adierazgarri dira, ikus besterik ez nola bilakatu den Ipar Euskal Herria frantses zein ingeles kolonizatzaileen atsedean gune. Horrela Euskal Herria sortzen urratsak emanez, alegia, kontsumora eta eredu globalera bideratutako jendarte eredu eta sistema eraiki nahian.

Horren adierazgarri da esaterako Abiadura Handiko Trena. Proiektu honen sustatzaileek herritarrei mesede egiteko eraikiko dela badiote ere, gure beharretatik oso urrun dago. Landa eremu zein baserriak suntsitu eta herritarrok ordainduko dugun 10.000 milioi eurotako kostu ekonomikoa eragingo du. Beraz, funtzio sozialik beteko ez duen trena, gure poltsikotik ordaintzen ari garena.

Superportua edo SuperSurra ere super-euskal hiriarekin erabat lotuak daude. Herritarren beharrak ahaztu eta enpresa alderdien ikuskeraz politika eginez super-inbertsioekin herritarroi eta Euskal Herriari zama astunak jarriz. Eta nola ez erraustegiak, Olaztin, Zabalgarbin edota Zubietan eraiki nahi dutena politika neoliberalen erakusgarri dira eta ez soilik negozioaren ikuspuntutik baita horren atzean ezkututzen duten bizi ereduaren ikuspuntutik ere. Guk sorturiko hondakinek gure herrian duten eraginaren ardura ezkututzen digute horiekin negozioa eginez eta kontsumo zurrunbiloa hauspotuz. Zenbat eta gehiago kontsumitu zabor gehiago beraz erraustegiak jateko gehiago. Hauetaz gain, eredu oso baten adierazgarri dira erraustegiak, parke eolikoak, fraking-a eta makro espetxeak.

Bestalde porlanaren politikez harago alderdi-enpresa hauek etengabe gutxi batzuen onura pertsonal eta pribatuaren aldeko jarrera izan dute produkzio bideekiko izandako politikan, enpresariak izanik zuzenean politikan aktibo egon direnak alderdi-enpresetan. Interes pertsonal eta pribatu horiek egiten dute inbertsioak eta sasi-garapena euren mesedetara izatea. Egiten den guztia enpresen mesedetara egitea. Herria eta herritarren beharrak instituzioekiko geroz eta gehiago urrunduz.

Garapena edota sasi-garapenaz hitz egitean ahoa garapen jasangarriarekin

bete badute ere nabarmena da euren eredia ez dela batere jasangarria. Lehen sektorea, bigarrena eta hirugarrena. Euskal herrian hiruak ezagutu ditugu eta batez ere lehena eta bigarrenak izan dute pisu gehien historikoki. Baina gaur da eguna euren garapen jasangarriak jasanezin egin duela egoera, orekarik mantendu ez dutelako hirugarren sektorearekiko dependentsia handituz. Hala ere, ikuspegi kamutsa da hau, ekoizpen produktiboaren garapenerako, lan erreproduktiboa ere ezinbestekoa delako. Zaintzari lotutako lan guztiaz ari gara: Zero Sektorea hain zuzen ere. Eredu honetan egiten den lana, espazio pribatua eta gehienetan ez ordaindua eta ez baloratua izaten da. Horrela, lan eremu ikusezin bihurtuz.

Lehen sektoreari dagokionean, nabarmen baztertuta utzi dute. Ez dira baliabideak sortu lehen sektorea bultzatzeko, lehen sektorea eta herritarren artean zubiak eraiki beharrean atzerriko bitartekariari erraztasunak eman zaizkie, batez ere baserriar eta arrantzaleak kondenatuz. Lurra ez dago zuzenean landuko dutenen esku, kanpoko ekoizle batzuen esku baizik. Horrela elikadura kontsumorako produktu bilakatu da eta ez eskubide. Fenomeno honek Araban, Lapurdin, Behe Nafarroan, Zuberoan eta Nafarroan izan du eragin nagusia, lurralde hauetan errotuagoa egon izan baita lehen sektorea. Lehen sektorearen beherakada honek, herrialde hauetako eremu ezberdinetako demografian eragin handia izan du, despopulazio masiboak sorraraziz.

Bigarren sektorearen kasuan aldiz bazterketa selektiboa dela esan daiteke. Hau da, enpresa jakin batzuen eta produkzio jakin batzuen mesedetara jarri dira politikak. Lehiakortasunaren izenean oligopolioen mesedetako politikak bultzatuz, lana, osasuna, Amalurra, eta oro har biziaren prekarizazioa eraginez.

Eta hirugarren sektorearen kasuan honen garapena nabarmena izan da gainontzeko biekiko, turistifikazioa eta kontsumoa etengabe bultzatu direlako. Fenomeno honen adierazgarri nagusienetakoa Behe Nafarroa eta Zuberoan gertatzen ari den hustuketa izugarria da. Hauetan lehen sektorearen garrantzia handia izanik etorkizuna kolokan geratzen ari da.

Bada, ikus daitezkeen bezala, hiru sektoreen eta zero sektorearen arteko oreka ezinbestekoa da. Orain arteko desorekak dependentsian murgiltzen gaitu behar artifizialak sortu eta lurraren esplotazioa areagotuz, guztia gutxiengo jakin baten mesedetara. Baliabide eta beharren arabera politikak sortu behar dira herritarren mesedetara.

Guzti honetaz gain ezinbestean aipatu behar da bi estaturen menpe egoteak dakarren zama eta horrek suposatzen duena. Administrazioak nahi bezala ezin erabiltzea herritarren mesedetara marko juridiko politikoak agertzen dituen mugen ondorioz, edota estatu zapaltzailei ordaindu beharra eta abar. Euren baldintzak jasan behar izateak Euskal Herria hipotekatzen du menpeko izango den bitartean.

Hala ere ikuspegi ekonomikotik harago, jendarte eredu oso bat baldintzatzen

du estatuekiko dependentzia inposatuak. Mendeetan jasandako errepresioak izaera eta identitate bat deuseztatu nahi du, Europa zaharreko jatorrizko herri baten asimilazioa. Asimilazio kulturala, hizkuntzaren desagertzea eta oro har izan garena eta garenaren gaineko garbiketa. Honen aurrean gutxi batzuen mesedeetara begirako eta genero zapalkuntzan oinarrituriko “demokrazia” saldu nahi digutelarik.

Estatu zapaltzaileek euren existentzia bermatu behar dute eta horretarako Euskal Herria oztopoa izan da. Oztopoa bi aldetatik, Euskal Herriaren aitortzak euren existentzia eta zilegitasuna zalantzan jar dezakeelako baina baita bertan hamarkada luzez ematen ari den nazio askapen borroka deskolonizazioarekin batera Europaren bihotzean iraultza suposatzen duen bestelako eredu bat aldarrikatzen duelako.

1.2.7.1. Gazteria

Mundu mailatik hasi eta gure herrira arte heldu gara egoeraren azterketan. Hurrengo tartean, are gehiago hurbilduko gara. Egungo testuinguruaren baitan gazteriaren definizio bat egiteaz harago guzti honek nola eragiten digun landuko dugu.

Izan ere, Euskal Herria, mendebaldeko kultura kapitalista patriarkalaren baitan kokatzen da eta bertako gazteok sistemak bere nahi eta beharretara hezitakoak gara.

Gazteria definitzerakoan, bizitzako epealdi zehatz bati egiten zaio erreferentzia. Jendarteak ume bezala ikusten uzten gaituenetik, helduen estatusa eta funtzioak atxikitu bitarte. Ezinezkoa da adin tarte bat izendatzea, izan ere, jendarte bakoitzaren egituraketaren arabera eta norbanakoaren bizitzaren arabera, prozesua ezberdina baita. Horra hor lehen baieztapena; ez du adinak definitzen.

Hala ere, adina ez izan arren adierazle bakarra, bada gazteria sektore bezala ezaugarritzen duen elementu bat: bizi baldintzak, sistemak gazteriari ezarri dion funtzioaren ondorio. Egungo jendarte ereduak baditu mekanismo ezberdinak helduen boterearen bitartez gazteriari burujabetza ukatzeko. Tokian toki, tarteko epealdi horretan dauden bizi baldintzak dira hain zuzen gazteriaren errealitatea definitzen duten elementuak. Egungo bizi baldintzek gazteoi burujabe izatea eragozten digute.

Sistema Kapitalista patriarkalak helduen boterearen bitartez, historikoki egin izan ohi duen bezala, gazteriaren lan indarrak baliatzen da ekoizpen sistema kapitalistaren beharrak ase ahal izateko; sistema bera etengabe birproduzitzeko; sistemaren kudeatzaile berriak sortzeko.

Bizi baldintza hauek ez dira estatikoak, izan ere, jendartea dinamikoa da eta zapalkuntzak milaka kolore hartzen ditu, logikak berdina izaten jarraitzen duen arren. Jendartean eman diren aldaketek gazteongan eta gure bizi ereduan

izugarritzko eragina izan dute. Besteak beste gazteon emantzipazioarako baldintzak urritu eta ondorioz, independizatzeko adina luzatu da.

Sistema Kapitalista patriarkalak fase honetan gazteriaren bizi prekarizazioaren luzapenaren ofentsibari ekin dio: gazteria merkaturako produktu bihurtuz gazteriaren idealizazioaren bitartez. Bizitzako une idilikoen gisara, gazte izatea, poztasunarekin, konpromiso ezarekin, erantzukizun ezarekin eta alaitasuna bezalako baloreekin osatutako merkaturako produktua sortuz. Horrela, gazte izateko epealdia luzatu eta jende gehiago, kapitalaren onurarako prekarietatean izateko. Emantzipazio adinaren atzerapena gazte izatearen idealizazioaren eraginez zein gazteriaren prekarietate sozialaren ondorioz sortzen den egoera da.

Gazteria menpeko mantentzeko, behar beharrezkoa zaio gazteok era zehatz batean hezte, ez dezagun inondik inora gure gaitasun iraultzailearen zein zapalkuntza egoeraren kontzientzia izan. Gazteriaren menperatzea helburu duen sozializazio prozesu hau, jaiotzen garen unetik bertatik ematen hasten da sozializazio eragile ezberdinen bitartez (familia, hezkuntza, komunikabideak,...) eta bide batez beste hamaika balore transmitituz (norberekeria, matxismoa, lehia, kontsumismoa ...). Are gehiago: gazteriak bizi dugun zapalkuntza egoera zerbait naturala balitz bezala barneratzen dituzte zapalkuntza egoera honetan gustura sentituz.

Azken buruan, prozesu oso honen bidez, gazteok sistema kapitalista patriarkal oso honen baitan kokatuz, sektore eraldatzailea behar lukeena menpean hartzea lortzen du. Helduen boterearen menpe hain zuzen ere.

Lana-hezkuntza formala:

Eguno jendartearen egituraketan hezkuntza lan merkatuaren zerbitzura egonik, bi elementu hauek batera aztertuko ditugu. Hezkuntza, baloreen, moralaren eta ondorioz errealitatea interpretatzeko ideien (laburbilduz, ideologiaren) transmisioarako tresna nagusietakoa da, eta hau ez da soilik eskolara edo esparru akademikora mugatzen, jendarteko beste eremu batzuk ere hezkuntza eremuak dira. Hezkuntza formal edo akademikotik kanpo berebiziko garrantzia dauka hezkuntza ez-formalak pertsonen heziketan. Horrez gain, kontuan izan behar da egungo sistema patriarkala gainditu ahal izateko hezkidetzak, balore feministetan oinarritutako hezkuntzak duen garrantzia.

Lanari dagokionez, populazio orokorrarekin konparatuz, gazteon langabezi tasa handiagoa da, joera hau hazten doalarik. Kontratu mugatuaren nagusitasuna, ordutegi malguak, praktiketako kontratuen erabilpena besteak beste nagusi dira. Izan ere, 1989an PSOEk, gazteriaren lan prekarizazioari bide emango zion lan politika jarri zuen martxan: aldi baterako lanaldiak. Lehenengoz ezarri zen aldi baterako lanpostuen aukera; ordura arte lanpostuak finkoak ziren orokorrean. Lan kontratu hauekin, lanpostuen eta langileriaren arteko bitartekari espekulatuzaileak sortu ziren: ETTak. Krisiaren aitzakian burutzen ari diren ongizate

estatuaren desartikulazioaren baitan, langile eta batez ere langile gazteen lan baldintza jada prekarioak are gehiago okertu dituzte Zapatero eta Raxoiren gobernuak ezarritako lan erreformek: praktika kontratuen gehieneko adina luzatuz, enpresariari kaleratzea merkeagotuz, negoziazio kolektiboan langileen eskubideak ahulduz, gazteontzako kontratu prekario berriak asmatuz...

Kostaldean eta hiriburuetan pilatzen gara gazterik gehienak, lanpostu gehienak bertan baitaude. Honek, gure herrietan bizi proiektua garatzea zailtzen digu, bertatik kanpo bizitzera behartuz (deslokalizazioa).

Aipatzekoa da, emakumeok, orokorrean, formazio akademiko gehiago badugu ere, lan baldintza okerragoak pairatzen ditugula, gizonetako baino kontratu mugatu gehiago, soldata baxuagoak, finean, egoera prekarioagoa. Kontutan izan behar dugu, krisi garai hauetan, ezkutuko lana asko nagusitu dela eta honek emakumeon egoera larriagotzen duela.

Lan urritasunaren aurrean, Hego Euskal Herriko gazte askok, ikasketak luzatzeko hautua egin dugula aipagarria da, goi mailako hezkuntzara gehienbat. Era berean, geroz eta gehiago ageri zaigu "Ni-Ni" deituriko fenomenoak, komunikabideek asmatu eta sustatua, langabezian, ikasi gabe eta itxaropen gutxirekin dagoen gazteria, kapitalismoaren prisma berritu eta jendarteari alferkeria eta arduragabekeriarekin lotuta erakusteko. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan aldiz, ikasleentzako atzerriko unibertsitateen fakultateak baino ez daude eta ondorioz ikasteko kanpora joatera derrigortuta gaude.

Unibertsitatean aspaldian ematen ari diren aldaketak dira hezkuntzaren merkantilizazioaren isla. Ongizate estatuaren eraispenarekin batera, hezkuntzaren pribatizazioari bide eman dion prozesuarekin: Bologna. Honek, merkatuen legeen arabera mugituko den onura bat bilakatu du hezkuntza eta aldi berean, bertatik ateratzen diren etorkizuneko langileen kualifikazioa jaitsi eta lan esku merke eta malgua edukitzea bideratzen ari da.

Unibertsitateaz gain dauden ikastetxeak ere, bete betean eragiten dute helduen boterean, ikasleen meneko jarrera, akritiko eta infantilistak bultzatu ez ezik, euskara azken planoan uzten duten hiru-eredun programak dira sistemaren erasoen adibide. Aipatzekoa da, eredu inposatuaren aurrean garatu diren alternatibak, tartean Euskal Curriculuma.

Etxebizitza:

Gure burujabetza garatu ahal izateko beste faktore garrantzitsu bat etxebizitza da. Izan ere, oinarrizko beharrezko den hau, espekulatuzaileen diru iturri bilakatu da. Bereziki aipatzekoa da eskubide ukazio honek bi ondorio larri ekartzen dizkigula gazteoi. Batetik, bizitzaren prekarizazioaren ondorioz emantzipazioaren atzerapena, gurasoen etxean bizitzera behartuz. Bestetik, azken 20 urteetan espekulatuzaileek hipotekak baliatu izan badituzte ere gazteok sistema produktiboan kate motzean lotuta izateko -etxea jabetza pribatuan beharrezkoa

dugula sinestaraziz- egun bizi prekarietateagatik hipoteka bat eskuratzea ere ezinezkoa bihurtu da. Gainera, beste eredu bat eraikitzen saiatu diren mugimenduak (etxe hutsen okupazioak, landa askeak, gune autogestionatuak...) kriminalizatuak izan dira.

Era berean, alokairua ere, sistema espekulatzailearen menpe dagoenez esan dezakegu ezinezkoa zaigula gazteoi emantzipatzea, kate horren parte izan gabe.

Demografia:

Euskal Herriko populazio orokorra hazten badoa ere, ezin esan genezake berdina gazteriagatik. Zahartze progresiboa ematen ari da eta hau bizi itxaropenaren handitzea eta jaiotze-tasaren gutxitzearen ondorioa da. Zahartze progresiboak, hezkuntza prozesuaren luzatzea eta bizitzaren prekarizazioa dakar. Aurrerantzean populazioaren garapenerako, migrazioak dira gakoa eta ez jaiotza edo heriotza tasak. Hemen eragiten duen faktore nagusia hurrengoa da: haur gutxiago jaiotzen dira eta beranduago. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan, ugalkortasun maila altua badago ere, arazoa, herritarrak atzerrira joatera behartuta daudela da.

Gaur egun Euskal Herriko zahartze progresiboaren ondorioz, demografia piramidean eremurik zabalena helduek hartzen dute eta beraz gazteok eta gure oinarritzko beharrianak ikusezin bilakatzen dira.

Euskara:

Jakin badakigu gazteon artean euskararen ezagutza eta erabilera ez daudela maila berean eta tokian toki ezberdinak direla hauen datuak, tokian tokiko instituzioek garatzen dituzten hizkuntza politiken garapen historikoaren nahiz testuinguruaren ondorioz. Leku batzuetan D eredua ez dago eskuragarri, eta etxe askotan gurasoek euskaraz ez dakitenez, etxean erdaraz egiten da soilik.

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan galzorian dago euskara. Faktoreetako bat, belaunaldi zaharrek belaunaldi berriei euskara ez transmititu izana da. Bestetik, ofizialtasun ezak dakarren prestigio gabeziak zuzenean eragin du. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian eman ditu ezagutzak eta erabilerak aurrerapauso handienak, baina gazteon artean orokorrean gaztelerara jotzeko ohitura nabarmena da. Eta Nafarroan dagoen zonaldeen bereizketa zentzugabearen ondorioz, eremu erdalduneko, mistoko nahiz "euskalduneko" biztanleek zailtasunak baino ez dituzte euskaraz ikasi eta bizi ahal izateko.

Instituzioek elebitasunaren aldarria egiten dute bizikidetzaren izenean, baina kolonizatutako herria garen heinean, erdara hizkuntza hegemonikoa izango da eta horrek asko zailtzen du euskara ikasteko eta erabiltzeko beharra sentitzea.

Gazteon artean erdarara jotzeko egon ohi den arrazoietako bat gazte hizkera euskaldunaren ezagutza falta izan ohi da. Sarri, euskaraz mintzo bagara ere, erdarazko esaldi eginak tartekatzen ditugu. Gazteok, euskarak duen garrantziaz

konturatu behar gara eta euskaraz hitz egitea Espainiako eta Frantziako estatuek inposaturiko ereduari aurre egitea dela.

Kontuan izan behar dugu, Euskal Herriak bizi duen kolonialismoaren ondorioz, gazteok aisialdian kontsumitzen dugun eduki gehiena frantsesa edo espainola dela, eta ondorioz, erdaldundu egiten garela.

Migrazioa:

Egun ematen ari diren migrazio fluxuek jendarte egituraketako eremu guztietan eragiten dute. Gure herrira etortzen diren edota herritik irteten direnengan oinarri bera dago: kapitalismoaren desoreka, subjektu bakoitzak baldintza desberdinak pairatu arren. Nahiz eta orain arte gure herritik kanpora zihoazenak, gehienetan hizkuntzak ikastera edo lanean formatzera izan ohi ziren, aipatzekoa da azkenaldian ikasketengatik atzerrira doan gazte multzoa gorantz doala, Europa iparraldera lan bila doazenen kopurua bezalaxe. Gurera datozenen artean, berriz, euren jatorrizko herrietan egungo sistema kapitalista patriarkalak sortutako desoreka ekonomikoa izaten da, "europar ametsaren" baitan saltzen duten ongizate irudiak bultzatuta, bizi eredu berri baten bila. Inperialismoaren ondorioz zapalkuntza mota ezberdinak bizi dituzte etorkinek; euren etxean zapalduak eta hemen baztertuak.

Egungo estatuak migratzaileen ezkutuko lanarekin aberasten dira. Honek klase bereizketa zein xenofobia areagotzen du herritarren arteko mailaketa zein bereizketak indartuz: hemengo langileek etsai gisa ez dute burges edo botere hegemonikoa hartzen, baizik eta euren klase berdineko atzerriko langileak.

Alta, Espainiako estatuak bizi duten krisiaren ondorioz, etorkinen kopurua gutxitu egin da. Batetik, bertan zeudenak joaten hasi dira lanik ez dagoelako, eta bestetik gutxiago etortzen dira euren herrialdeetatik.

Aisialdia:

Egungo kontsumo jendarte honetan, aisialdia sistema kapitalista patriarkalaren mantenurako beste zutabe garrantzitsu bat bilakatu da. Gazteok gara aisialdi eredu honen hartzaile nagusiak. Gazteok lan edo ikasketa orduetatik at dugun denboran librean, kontsumitu beharreko aisialdira gaude bultzatuak. Horrela, bizi poza kontsumoarekin lotzen dugu.

Aipatzekoa da azken hamarkadan gazteon artean bajearen eta lokalen fenomenoak. Izan ere, espazio propio baten beharrianak, eskaintza publikorik ezean, zerbait pribatua bilakatu izan du. Honek gazteon arteko segmentazioa eta komunikazio falta ekarri duelarik.

Jai ereduaren inguruan hausnartzea ere ezinbestekoa da. Jaiak da gazteon aisiaren zati handia. Baina ez da isolatua. Izan ere, jai ereduaren islatzen da sistema kapitalista patriarkal heteronormatiboaren bizi ereduak. Bertan erreproduzitzen

direlarik sistemaren eredia eta zapalkuntzak.

Aisialdian eta oro har sistemak bultzatzen duen bizi ereduaren baitan, aipatzekoa da desfasearen kultura. Batetik, produkzio eredu kapitalistak astean zehar lanerako bizitzera behartzen gaitu eta asteburuetan desfasatzeko baimena ematen digu. Desfasearen kultura hori kontsumismoan oinarritua da. Arazoei aurre ez egiteko desfasatzen gara, sarri ez dakigulako modu osasuntsuan harremantzen, ez gure nahiz besteen sentimenduak identifikatu edota adierazten, ez eta modu egokian erantzuten ere. Desfasearen kultura honetan, esanguratsua da droga guztien kontsumo masibo, kontrol gabe eta ardura gabea, gazteriaren desaktibazioa eraginez. Nolanahi ere, herri mugimenduetatik bultzatutako jai ereduak askotan desfasearen kultura sustatu izan du, alkoholaren nahiz beste drogen kontsumoa beste eredu batzuen aurrean gailenduz. Era berean, nabaria da indarkeriazko jarrerak eta jarrera matxistak azaleratu eta nabarmen gora egiten dutela desfasearen ondorioz.

Moda:

Gazteria sistema kapitalista patriarkalaren kontsumo produktua da. Modaren industriak eta industria kulturalak gazteriarentzat moden araberako sozializazio prozesuak sortzen ditu, hautemandako zaharkitzeaz baliatuz. Hau da, gero eta azkarrago eguneratzen diren produktuak sortzen ditu eta produktu horien jabe egin behar garelara sinestarazten digu, marjinazioaren mamuaz baliatuz.

Modak sortutako estereotipoen inguruan izugarrizko presio soziala sortzen da hedabideen eta publizitatearen bidez, gu geu bihurtuz besteen polizia. Presio horrek osasun arazoak eta arazo sozialak eragin ditzake, estereotipo hori betetzearen obsesioa muturrera eramanez gero (anorexia, bulimia, depresioak...).

Modek azken batean identitateak eraikitzen dituzte eta talde baten parte sentiarazten gaituzte. Moda hegemonikoaren aurrean, sarri, beste jendarte eredu baten aldeko gazteok gure moda eta talde identitate propioak sortzen ditugu hauek homogeneizatuz, helburua ahalik eta gazte identitate heterogeneoenak biltzea izan behar lukeenean. Gure taldearen baitan ere, ardi beltzak markatzen ditugu gure modaren araberakoak ez diren itxura, jarrera edo ohitura kulturalak baditu.

Modaren inperioa eremu kultural guztietara hedatzen da. Hasiera batean alternatiboak diren tendentziak modak bereganatu eta kapitalizatzen ditu, izan ditzakeen eduki iraultzaileak hustuz (musika munduan punkarekin, grungearekin edo raparekin gertatu dena), zapi palestinarrak, Che Guevararen irudia, zulodun prakak, makrobiotika...

Komunikabideak:

Komunikabideak, *Mass mediak*, botere hegemonikoak kontrolerako dituen tresna nagusienetakoa dira. Hauek, euren programazioaren bitartez balore zehatz

batzuk transmititu eta moden araberako gazte eredu hegemoniko bat osatzen dute.

Aipatzekoak dira egungo irrati-telebista kate komertzialek bai pribatu zein publikoek sustatzen duten gazte eredu: eredu sexista, hutsala, komertziala... zein publiko gaztea erakarri nahi duten bestelako saiok transmititzen dituzten baloreak: maitasun eredu erromantikoa, kontsumoan oinarritutako aisialdia... Azken batean sistema kapitalista patriarkalak behar duen gazte eredu modako bilakatzen dute.

Era berean, gazteriaren estereotipo zehatza sustatzen dute, gazteriari bere subjektu izaera erauziz, zilegitasuna kendu nahian: drogazalea, alperra, pasota...

Azkenik, mugitzen den gazte ororen kriminalizaziorako mekanismo guztiak dituzte martxan: indarkeria erabiltzen dugula, ez dugula bururik erabiltzen, arduragabeak garela, erabakiak hartzeko heldutasunik ez dugula, bitzta zer den ez dakigula...

Harremanak:

Genero harremanak:

Bi sexu biologiko, eta ez gehiago, soilik daudela oinarri hartuta, sistema patriarkalak horietako bakoitzaren gainean ezarri dituen ezaugarri guztien eraikuntza soziala da generoa, eta honen arabera bereizten gaitu gizon eta emakume. Kapitalismoak bere biziraupenerako ezinbesteko du generoen arteko botere harremana, hau da, bata zapaldua eta bestea zapaltzaile izatea. Sexu bat baino gehiago eta beraz milaka identitate eraiki daitezkeela ulertuta, sistema patriarkalak horiek denak zapaltzen ditu. Eredu berriak eraikitzen ahalegintzen ari garen arren, bereziki zaila da inposatutako rol horiek ez erreproduzitzea, txikitatik barneratzen baititugu. Horrela, sarritan gu geu ere jendartearen barnean generoak mantentzeko presio-tresna bihurtzen gara gure buruekiko nahiz besteekiko.

Patriarkatuak bere horretan dirau eta nahiz eta sistema "demokratikoetan" ustezko aurrerapausoak eman direla irudikatu nahi izan, gazteriaren artean genero-rol balore sistema bera erreproduzitzen da.

Sistema kapitalista patriarkalak, industria kulturalaren bidez sortu duen emakume "independenteak", feminismoa edukiz hustu eta hutsal bilakatzen du. Ustez, harreman eredu askeak eta sexu harreman askeak dituen emakume gaztearen irudia, irudi fisiko eta janzkera zehatz batzuk dituen Barbie bilakatu ditu. Madonna efektua deritzona da. Sexua, zikina eta debekatua izatetik, hipersexura igaro gara. Sexua alde guztietan eta modu guztietan, mitifikazioa eta emakumearen gorputzaren idolatria. Hala eta guztiz ere, emakumeon sexualitateak zapaldua izaten jarraitzen du, bai gure gorputzaren jabetzari, bai sexu praktikei (monogamoak, heterosexualak eta koitora bideratuak), bai eta

harremani dagokionean ere.

Justu kontrakoa gertatzen da Gay kolektiboarekin: sistemak bere egin eta kontsumorako moda produktu bilakatu ditu, telebistako aurkezle izar bilakatu besteak beste, gay komunitatearen irudi hutsal eta distorsionatua eskainiz. Era berean, mutil gazteen artean oso hedatua dagoen fenomeno da homofobia eta "marikoi" hitzaren adiera peioratiboa (balore maskulinoak ez dituen gizona: indarra, ausardia, boterea...). Ezin ahantzi ditzakegu zapalduta dauden beste identitateak ere: hermafroditak, trans-generoak... hain publikoak ez direnez, jendarteak ez ditu aintzakotzat hartzen.

Harreman erduei dagokienean, maitasun erromantikoak gazteen artean duen indarra nabarmentzekoa da. Maitasun erromantikoak betiko bikote eredu fidela sustatzen du, gorputzen eta sentimenduen posesioa sustatuz eta harreman eredu askeak gaitzetsiz, hauek dituztenengan presio soziala eraginez.

Sexualitatea:

Sexualitatea eta pertsonen arteko harremanak gure bizitzetan atal ezinbestekoak diren arren, luzaz izan dira sozialki gutxietsiak. Genero rolen banaketa ere sexualitatea zapaltzeko tresna da; rol batak edo besteak sexualitatea bizitzeko moduan jasaten duen zapalkuntza guztiz desorekatua da. Gaur egun ere, balore atzerakoi horiek presente ditugu. Kristautasunaren baitan auzi pertsonal eta zikintzat hartuta izan da desira eta sexua, beti ere bekatutik hurbil zegoena. Sexualitatea harremantzeko eta komunikatzeko tresna ere bada. Erreproduktzioarako modu soil gisara azaldu badigute ere, honetaz gain, norberak bere burua ezagutu, maitatu eta gozatzeko modu bat da.

Egun, joera nabarmena dago sexualitatearekiko dugun harremana asketat adierazteko, baina honetan ere, nolabait sistemak definitzen duen "askatasunaz" ari gara. Agerian gelditzen da azken hamarkadetan gazteoi emandako heziketa sexual prekarioak (guztiz mugatua, genitala haurdunaldia-antisorgailuak-eredu heterosexuala) ez gaituela inolaz ere sexualki burujabe egiten.

Sare sozialak:

Teknologia berriek isolatzen gaituzte vs batzen gaituzte, mehatxua dira vs aukera dira, sistemak sortutako tresnak dira vs gune askeak dira...

Ukaezina da gaur egun gazteriaren artean ohikoak direla harremanetarako bide berriak: internet bidezko sare sozialak, smartphone-ak, whatsapp-a... Tresna hauek pertsonen arteko harremanak artifizialki garatzera garamatzate.

Azken batean hauek ere modak dira. Telefono mugikorrik gabe bizi ginen aroa ahaztuta dugu, nahiz eta ez ginen orain baino okerrago bizi. Ondoren sareko txatak eta sare sozial ezberdinak iritsi dira eta moden arabera batera edo bestera jotzen dugu (messengerretik fotologera, fotoletatik facebook eta twitterrera...).

Gainera, sare sozialak erabili ezean jendartetik baztertuak gaudela sentitzen dugu.

Ultra-informazioaren garaiotan, informazio jario etengabea behar dugu, gero eta azkarrago, gero eta gehiago, desinformazioa nagusitzeraino. Hala ere, berehalako informazioa ahalbidetzen dutela ukaezina da.

Tresna hauek talde identitateak sortzeko edo jardun ezberdinetara atxikitzeko eredu berri bat ekarri dute. Konpromisorik apenas eskatzen duen klik bat egitea.

Aipatzekoa da hala ere, azken aldian sortu diren mugimenduetan, gazteria aktibatzeke sare sozial hauek izan duten eragina, eta baita mugimendu horiei eman dien oihartzuna, herritarrak baikaude azken batean eremu horietan.

Parte hartzea:

Euskal Herrian gazteriak orokorrean parte hartzeko edo konprometitzeko joera dauka. Parte hartze eta konpromiso hori auto-errealizazioari lotua izaten da: kirol elkarteetan, kultur taldeetan...

Kezka edo ezinegon kolektiboek bultzatutako parte hartzea edo konpromisoa ordea, ez da maila berean ematen. Aztikerren ikerketen arabera...

-Gazteriaren gehiengo handi batek dauka kezka egungo jendarte ereduaren inguruan. Gutxi gara ordea antolatu eta aktibo garenak.

-Gehiengoak, kezka horri bide emateko ez du aurkitzen esparru eroririk:
- ez dute konfiantzarik alderdi politikoetan ezta instituzioetan
- diskurtso ideologizatuek ez dituzte erakartzen
- kezka zehatz batekiko lanketa nahiago dute
- eremu ezberdinetatik eratorritako errepresioa pairatzen dute

Egoera politiko, ekonomiko eta soziala dela eta, antolatzeko eta borrokatzeko espazio berriak sortu dira, eta horrek lehen tokirik aurkitzen ez zuten gazte batzuk lanean eroso sentitzea ekarri du.

Kezka pertsonala eta kolektiboa gerturatu ahala hasten da gaztea parte hartzen. Era berea, gazteon bizitza prekarietatea luzatuz doan heinean, parte hartzen duten gazteen adina ere luzatuz doa.

1.3. ALTERNATIBA

Sistema kapitalista patriarkalak eskaintzen duen bizi ereduak bizitzaren prekarizazioa dakar. Aurrez aztertu den bezala klase zapalkuntza eta genero zapalkuntza oinarri, gutxiengoaren hegemonia xede duen sistema da sistema kapitalista patriarkala, Amalurraren esplotazioa eta oro har eredu lineala erabiltzen dituen berme gisa.

Egoeraren azterketan azaldu diren krisi guzti horiek argi erakusten duten bezala, azken 200 urteotan bizitza ulertzeko izan dugun modua eta bizi eredua bera mugara iritsi dira. Zibilizazio krisian murgilduta gaude bete betean eta honek bi aterabide besterik ez ditu: orain arteko produkzio eta bizi eredian sakondu, izadi osoa pikutara bidaltzeraino edo bizitza ulertzeko beste modu bat eraiki, bizitza orekatua: Amalurrarekin, pertsonen arteko harremanetan, lan banaketan, aberastasunaren banaketan...

Orain arte mendebaldeko jendartean ulertu izan den “ongi bizitzea” baztertu eta, “bizitza ona” izatea zer den ulertu beharko dugu. Ongi bizitzea, dirua izatearekin, nahi beste kontsumo produktu izatearekin lotu izan da. Bizitza onak, bestelako paradigma dakar: bizitza osasuntsua izatea, kolektiboan sustraitua, arduratsua, baliabide gutxiagorekin hobeto bizitzen ikasiz. Azken batean, bizitza kapitalaren mesedera egon beharrean bizitza bizitzeko beharren arabera eraikitzea.

Beraz, bada sistema kapitalista patriarkalaren aurrean alternatiba. Mundu zabalean hamaika badira ere alternatiba horren aurpegi eta koloreak, finean guztiak osatzen dute sistemaren aurrean agertzen den alternatiba. Teorizazio ugari daude sistemari hortzak erakusten dizkietenak eta teorizazio horiekin batera praxia ere anitza izan da mendeetan zehar, munduan barna. Hori da iraultza.

Baina iraultza anitza eta ezberdina izanagatik ipar, hego, eki zein mendebaldean, ezin daiteke egon inolako “totem”-ik. Alternatiba bat ezin daiteke idatzi bere osotasunean mundu osorako, iraultza eta alternatiba bidean egiten baitira. Kontraesana unibertsala den arren, bizitza/kapitala, toki bakoitzean bere ezaugarri propioak hartzen ditu. Eta beraz lekuan leku, bidea egiten dutenek emango diote gorputza alternatiba horri, iraultzaren bideak egingo du alternatiba.

Alternatiba bidean eraikitzen bada ere eta alternatiba hori sistema irauliko duen iraultza izango bada ere ezinbestean borroka izan beharko da iraultzarako tresna eta bermea. Borrokarik gabe ez dago bidea egiterik, ez dago iraultza egiterik.

a) Antolatu.

Esan bezala, borroka da bidea. Borrokatu gabe ez dago ezer irabazterik, aldatzerik. Finean, munduko biztanle orok bi aukera ditu: korrontean ito gabe, norbere zilborrari begira eta kexaka burua uretatik ateratzen saiatzea da lehenengo aukera eta errazena.

Bigarren aukera antolatzea da. Kolektiboak indartzen gaitu. Sistema kapitalista patriarkala ez da bere kabuz eroriko. Zitadaz zitadaz zulatzen joan beharreko horma erraldoia da eta horrek estrategia eraginkorrak eta praktikoak eskatzen ditu, ausardiaz eta arriskatuz.

Antolatu eta kontraboterea eraikitzerako garaian hala ere, ezin da inor baztertu.

Sistema kapitalista patriarkala osoa baita, baina zibilizazio krisia bera ere osoa da, integrala. Zentzu horretan, garbi izan behar dugu erreformismopean egindako petatxuek edo konponketa erdiek ez dutela balio. Iraultza soziala da aterabidea. Estrategiaren oinarrian, ongi planifikatutako trantsizioaldiak diseinatu behar dira.

Izan ere, uste zaharren kontrara, lehenago aipatu bezala, sistema ez da egun batetik bestera eroriko. Iraultza iritsiko den egunaren zain ezin gara egon, ez baita iritsiko. Iraultza egunez egun borrokatzen den bidea da, gure egunerokotasunetik hasita. Zibilizazio krisian gauden honetan, jendarte eraldaketa gertatuko da eta abagune hau baliatu behar dugu sozialismoa garatzeko, jendearen haserre eta ezinegona antolatuz. Munduan dauden esperientzia ezkertiar asko kritikatu izan dira sarri, aldaketa sakonik egin ez dutela eta, baina kontuan izan behar da sozialismorako bidea kontraesan bezala betea izango dela beti.

Zibilizazio krisiak, egungo bizimoduaren milaka puntutan eragiten du eta horrek borrokarako espazio berriak zabaltzea dakar. Zentzu horretan, pertsona bakoitza, dagoen posizioan bertan, iraultzarako subjektua da, herri langilea da iraultzarako subjektua. Euskal Herrian, badugu kontzeptu propioa: Euskal Herri Langilea. Marxek, proletalga jo bazuen ere iraultzarako subjektu gisa, gaur egun kontzeptu horrek beste hainbat subjektu barnebiltzen ditu; euren eskulana soldatarik jaso gabe saltzen duten pertsonak (emakumeak batez ere) besteak beste...

Borrokarako espazio berriak identifikatzea da beraz gakoa, jendeak bere eremuan borrokatu dezan. Horrek jendartearen azterketa zehatzak egitea eta arazoak identifikatzea eskatzen du. Era berean, iraultza soziala helburu duen kolektibo antolatu orok, jendartean konfiantza larriak eraiki behar ditu.

Bidea, beraz, antolatzea eta borrokatzea da, herri mugimendu sendo, kritiko eta iraultzaile bat sortzea beharrezkoa izanik, sistema kapitalista patriarkalaren aurrean kontrabotere indartsua eraikiz.

b) Globaletik lokalera.

Globalizazioa sistema kapitalista patriarkalaren neurria eraikitako mundu desorekatua da. Hazkunde etengabea eta interes ekonomikoak gailentzen diren mundu honetan, merkatu librea jainko hartuta, hirugarren mundua deiturikoaren espoliazioa ezkututzen da. Mendebaldeko jendartean bizi garen gutxiengoak ondo bizitzen jarrai dezan, gainerako guztiak esplotatu behar dira. Ez hori bakarrik; mendebaldeko jendartean bizi garen beheko klasea ere esplotatu beharra dauka kapitalak, aberasten jarraitu dezan.

Kontraesankorra badirudi ere, globalizazio aroak ekarri duen ustezko mugitzeko askatasunaren atzean, gero eta harresi gehiago eraikitzen ari gara. Ez baita komeri hirugarren mundua deiturikoan esplotatzen ditugunak lehen mundua deiturikora etortzerik bertakoak hobeto bizi daitezela. Baina ez

hori bakarrik: pertsonen arteko harremanetan ere gero eta harresi gehiago eraikitzen ari gara. Pertsona izaki soziala izanik, gero eta indibidualistagoak gara, norberekiagoak. Gure lotura afektiboak deuseztatzen gabiltza pertsona moderno "independentearen" izenean. Eta ikusi dugu zein ondorio larri dakartzan baloreen galera horrek.

Globalizazioak espoliazioa eta deslokalizazioa eragin ditu. Hirugarren mundua deituriko herrialdeetako baliabide naturalak lapurtu, merkaturako produktuak sortu eta jendarte kontsumistan saltzeko. Kostuen murrizketa dela eta, esku lan merkearen bila hirugarren mundua deiturikora jo da eta dena modu industrialean ekoiztu da ekonomia lokalak suntsituz (dena pertsonen eta Lur Planetaren bizi iraupenaren bizkar): elikagaiak modu industrialean, basoen soiltzea modu industrialean, xaboiaren ekoizpena modu industrialean, kotxeak modu industrialean, etxebizitzak modu industrialean... Ekoiztu ekoiztu ekoiztu. Kontsumitu kontsumitu kontsumitu. Bota bota bota.

Monokultura kontsumistak norbanakoak bere ingurunetik deslotu ditu, bere lotura afektiboak eta kulturalak suntsituz: Mundu osoan berdin jantzen gara, musika bera entzuten dugu, diskoteka berdinetara joaten gara, Coca-Cola edaten dugu, McDonalds edo Wok jatetxeetan jan... Pertsonen alderdi psikikoa ere suntsitzen du beraz monokultura honek, bizi modu azkarraren katean lotuta, gero eta ondorio larri gehiago eragiten du: depresioak, estresa, paranoia, isolamendua, suizidioa...

Hortaz, alternatiba lokalean dago ezinbestean, beti ere perspektiba globalean jardunez. Merkatuen diktaduraren aurrean, burujabetza da alternatiba. Norbanako zein kolektibo burujabeak, herri burujabeak. Burujabetzak azken batean, subjektua aitortzen baitu, pertsona bakoitzak, herri bakoitzak du erabakitzeo ahalmena. Burujabetza erabakitzea da, baina inguratzen gaituena kontuan izanda: beste pertsonak, Amalurra... Beste pertsonetikiko dependentzia eta eko-dependentsia ergo arduraz jokatzeko. Eta burujabetzaz hitz egitean elikadura burujabetzaz ere ari gara, burujabetza energetikoaz, burujabetza ekonomikoaz...

Handitik txikira itzultzeko logika honetan, sistema orekatua eraikitzeko nahia eta beharra nabarmentzen dira. Eta horretan, ezinbestekoak dira komunitate geografiko ongi sustraituak. Komunitate horiek kapital sozial indartsua izan behar dute, hau da: balore partekatuak, konfiantza sareak, sistema sozioafektiboak, helburu konpartituak eta instituzio baloratuak. Komunitate sentimendu indartsua azken batean.

Guzti honen helburua, lehenago aipatu bezala, bizitza ona izatea izan behar da. Hau da, bizitza kapitalaren mesedetara egotetik, bizitzaren mesedera eraikitzea. Zentzu horretan, jarrera eta diskurtso antisistema eta suntsitzaileetatik harago, beharrezkoa da jarrera eraikitzailea eta inklusiboa izatea, antolakuntza eredu horizontal eta parte hartzailekoa. Auzolanaren filosofia sustatuko duena azken finean, bizitzako eremu guztiak eraldatzeko borondatearekin.

Lokalean jardute horrek ez du esan nahi autarkia batean bizi behar garenik. Baizik eta bestelako harreman ereduak garatu behar ditugula munduko gainontzeko herrialdeekin. Elkartasunean oinarritzen den harremana, herri bakoitzari bere burujabetza aitortuz. Internazionalismoan oinarritutako harreman ereduak. "Think global, act local."

c) Ekonomia: merkatuen diktaduratik, jendartearen agintera.

Kapitalaren metaketa da sistema kapitalista patriarkalaren bihotza. Logika sinplea da: helburua ahalik eta etekin ekonomiko handienak ateratzea da, lan eta esfortzu handiarekin aberats izatera iritsi gaitetzkeela sinestaraziz. "Amets Amerikarra" deituriko fikzio horren atzean gutxi batzuk gainontzekoen kontura aberasteko duten asmoa baino ez dago ordea.

Hazkunde ekonomiko etengabearen pelikula zulatu da ordea. Bere kontraesanik handiena agerian geratu da: Lur Planeta finitu batean bizi gara eta beraz ezinezkoa da hazkunde etengabea. Horrez gain, etekin horiek ateratzeko pertsonen eta kolektibo osoen (langileak, emakumeak, gazteak, herriak...) esplotazioa ere ezinbestekoa da bizitza osoak suntsituz.

Beraz, ezinbestekoa da eraikiko dugun alternatibaren baitan ekonomiaren ulerkera aldatzea: bizitza eta bizitzaren zaintza helburu izanik, sostengu materialerako beharren produkzioa, antolakuntza... norbanakoon garapena bermatzera bideratuta egonik. Ditugun baliabideak Amalurrarekiko eta pertsonetikiko modu jasangarrian kudeatuz, gutxiagorekin hobeto bizitzen ikasi beharko dugu. Ezin dugu ekonomiaren izenean Lurra halako dimentsioetan esplotatzen eta kutsatzen jarraitu. Ezin dugu ekonomia pertsona eta kolektiboen gainetik jarri, bizitzaren gainetik. Ekonomia herritarren beharren mesederako tresna izan behar da, ez kapitalaren mesederakoa.

1.3.1. EUSKAL HERRIAN

Euskal Herria ere mundu honetako herria den heinean eta gainera mendebaldeko jendarte eredu kapitalista eta patriarkalean bizi garen heinean, egoeraren azterketan aipatutako zibilizazio krisiak bete betean eragiten digu.

Zentzu berean, alternatibez hitz egitean atal honen hasieran aipatu ditugun elementu guzti horiek Euskal Herrian ere kontuan hartzekoak dira. Frantziako eta Espainiako estatu inperialistetan etorkizun eskasa dugu Euskal Herritarrok. Zapalkuntza, sumisioa eta miseria dira bi Estatu horien menpe jarraitzekotan izango duguna.

Aldiz, alternatiba planteatzerako orduan aipatu ditugun elementuak betetzen dituen lurraldea da gurea. Komunitate izaera nahiko indartsua dugu. Kapital sozial handiko herria da gurea. Auzolana betidanik proiektuak garatzeko izan dugun lan filosofia izan da. Jendarte klasista gainditzera bidean, kooperatibismoan

aitzindariak garela ezin ahaztu (nahiz eta egungo kooperatibak kapitalistak bilakatu diren). Alta, euskal tradizioetan bada lanarekiko balore handia. Lana eta lanerako grina asko baloratzen den balorea da hemen eta horrek badu halako “desarrollismo” puntu bat. Garapena, bizitza ona bermatzearekin baino dirua izatearekin, hormigoiarekin... lotzen duen sustrai sakona dugu Euskal Herrian.

Bestalde, antolatzeko eta borrokatzeko tradizio luzea duen herria ere bada gurea. Mendeetako zapalkuntzaren ondoren bizirik irautea ez da seinale txarra. Azken hamarkadetan herri mugimendua izan da Euskal Herriaren taupada. Bizirik iraun eta kontra egotetik harago proiektu zehatzak aldarrikatu eta eraiki dituen herri mugimendua. Hor dago lehentxeago aipatutako kapital soziala.

Eta herri mugimendu horren baitan dago alternatiba integrala eraiki asmo duen mugimendua ere bere proiektu propioarekin: ezker abertzalea.

Esan bezala, tokian toki egokitutako proiektu politikoak behar ditugu mundua iraultzeko. Bestelako bizi eredia eraikitzeko eta euskal herritarrok ere gure aletxoak jartzen dugu iraultza horretan gure iraultza propioa eginez. Tximeletaren efektua da. Hegoak hemen astindu eta munduko lau bazterretara iristen den haize bortitza eragiten du. Guretzat erreferentzia diren hamaika borroka daude munduaren luze zabalean eta gu ere beste batzuentzat erreferentzia gara. Zer esanik ez ezker abertzalearen eta herri mugimenduaren borroka hartzen duen garrantziaz Europako pasabide estrategikoan egonda. Kapitalismoaren bihotzean bada iraultzarako hazia.

Ezker abertzalea egunero borrokatuz eraikitzen ari den proiektu politikoa independentzia eta sozialismoa da. Euskal Estatu Sozialista nahi eta behar dugu, euskaldunok burujabe izan gaitzen, gure beharrak guk nahi erara kudeatu ditzagun, mundu orekatu batera bidean lan egin dezagun.

Lotsarik gabe esan behar dugu gure proiektu sozialista osatu gabea dela, baina esan behar dugu sozialismoa gure ustez bidean eraikitzen dela, prozesu bat dela. Horrek gainera proiektua inklusiboa izatea ahalbidetzen digu, eta ez baztertzaila. Uneko testuingurura egokitzeko ahalmena ematen du, besteengandik ikasteko aukera eta jende gehiago proiektura biltzeko aukera bere alea ipiniz.

1.3.1.1. Zergatik eta zertarako estatua?

Marxen teoriari jarraiki, Estatua botere hegemonikoak zapalkuntzarako duen tresna nagusi gisa ulertzen da gaur egun. Legedia, polizia, armada, erlijioa, komunikabideak... status quoaren berme nagusiak dira. Are gehiago, ustezko demokrazia faltsu honen bilakaeran, azken hamarkadetan argi geratu da estatua eta beronen gobernatzaileak, herritarren mesederako lanean aritu ordez, merkatuen eta sistema kapitalista patriarkalaren gidaritzapean dabiltzan txotxongilo telegidatuak baino ez direla. Baina era berean argi esan beharra dago hautu politikoa dela hori.

Estatuak duen izaera negatibo horrek, ordea, ez gaitu zertan bere aurkakotasunean itsutu behar. Hau da, estatuz osatua dagoen mundu honetan, tresna baliagarria izan liteke gure herri eredia eraikitzen bidean. Slavoj Zizek filosofoaren esanak gogora ekarri; "honetaz jabetu behar gara: inoiz baino gehiago, estatua edo nahi duzun bezala deitu, baina eskala handiko koordinazio mekanismoak behar ditugu, eta ez dugu horren kontra borrokatu behar; haien agintea hartu behar dugu. Ados egon gaitzke oraindik Marxen irakurketarekin, estatua dela dominazio sozialerako tresna... baina hori da ezkerren betiko kontraesana: printzipio sendoak ditu, baina jarrera pragmatikorik ez. (...) [beraz] galde diezaiogun geure buruari zer gertatzen den ezer gertatzen ez denean". Joxe Azurmendi filosofo zegamarrak ere hala adierazi zuen Estatuaren beharrak azaltzen duen kontraesana zer duen bere alde eta zer kontra galdetu ziotenean: "Estatuaren alde daukat haren beharra daukagula. Eta horixe bera daukat haren aurka".

Noski, guk eraiki asmo dugun Estatua ez da egun ezagutzen dugunaren erreproduktzioa izan behar. Galdera bati erantzun behar diogu: zertarako Estatua? Hasteko nazio gisa egituratzeko eta bestetik, euskaldunok ditugun nahiak eta beharrak guk nahi ditugun gisara antolatzeke. Zentzu horretan Estatuak gure adierazpide onenetan antolatzeke aukera emango digu: egitura subsidiarioa (hau da, erabaki eta botere guneak ahalik eta lokalenak izatea, herri asanblada, auzolana... sustatuz) izango duena, komunitate izaera indartuz, burujabe izanez eta jendarte eredu berria eraikitzeke beharrezko baloreetan oinarritua: parte hartzailea, euskalduna, feminista, desmilitarizatua, autoeratu, autoantolatua...

Beraz, Estatua behar dugu, egungo estatu ereduarekin amaitzeko, Estatu sozialista eraikitzeke. Merkatua, politika eta jendarte zibilaren artean egun dagoen logika zapaltzailearekin amaitu eta hiru elementu horien arteko bestelako harremana eraikitzea ahalbidetuko digu sozialismoak.

Egun, agintean daudenen hautu politikoa dela medio, merkatuek agintzen dute eta politikoez hauen nahiak betetzeko herritarren aurkako neurriak hartu eta aplikatzen dituzte. Estatu sozialistak, ordea, herritar politikoa hazi eta hezi behar ditu, polisaren berregituraketa subsidiarioa lehenetsiz, klaseak desagerraraziz balore feministak oinarri, herritarro gure burujabetza aitortuz eta ekonomia gure beharren arabera tresna bilakatuz, Amalurraren errespetua oinarri hartuta. Zentzu horretan norbanakoaren apeten gaintik kolektiboaren beharrak lehenetsiko ditu, jabetza pribatua deuseztatuz eta baliabideak kolektibizatuz.

Jada sistema patriarkatu eta neoliberalaren logika ankerra ulertu dugu eta baita bakoitzaren elementu ezberdinak aztertu ere. Panorama beltza bada ere, argi geratu da iraultza dela eraldaketarako aukera bakarra bai mundu mailan baina baita tokian toki ere. Egungo egoeraren azterketa eginda eta alternatiba orokorra plazaratuta, hurrengo pausua Euskal Herriko panorama soziopolitikoan gehiago sakontzea izango da eta ireki berri den ziklo politikoan oinarrituko gara horretarako.



ZIKLO POLITIKOAREN IRAKURKETA

2. ZIKLO POLITIKOAREN IRAKURKETA

Jada, egoeraren azterketa orokorra landu ostean, sistema kapitalista patriarkalak nola funtzionatzen duen ikusi dugu, mundu zabaletik hasi eta Euskal Herriraino. Sistemak bereziki gazteongan duen eragina ere argi utzi dugu, eta azkenik, horren aurrean gazteok egin beharreko lana Independentzia, Sozialismoa eta Feminismoaren bidean.

Ziklo politikoa deitzen den bigarren atal honetan berriz, Ezker Abertzaleak urteetan izandako estrategia ezberdinekin egindako bidea aztertuko dugu. Ziklo honen arrisku eta aukeren aurrean gazteon erantzukizunak geure egingo ditugu. Euskal Herrian ireki den ziklo berri honen helburuak zeintzuk diren argitu eta horiek lortu bidean gazteon ekarpena zein izango den osatu beharko dugu.

2.o. ATZERA BEGIRA

Mugimendu orok, bere helburuak lortzeko, estrategia orokor eta integral bat behar du helburu estrategiko eta taktikoekin. Estrategiak aurreikusitako egiten dira eta aldakorrak izan daitezke inguruko edo sortutako baldintzen arabera. Helburu txikien, taktikoen, lortzea ematen denean edota faktore ezberdinengatik lortu ezin direnean baldintzak aldatu egiten dira, ezinbestekoa izanik baldintza berrietara berregokitzea.

Azken 50 urteetan helburu politikoak lortzeko hainbat estrategia aldaketa garatu ditu Euskal Nazio Askapen Mugimenduak. Aurrera egin ahal izateko Euskal Nazio Askapen Mugimenduak analisi, eztabaida eta aldaketa ugari egin ditu bere historian. Egin dezagun errepaso txiki bat:

Hastapen fasea:

EAJren sorreraz geroztik, hainbat eztabaidaren ondoren, sektore eta sentzibilitate berriak sortzen dira euskal nazionalismoaren barnean. Batetik Euskal Herriaren izaera nazionala arrazan, erlijioan eta foruzaletasunean zegoela ziotenak (EAJ), eta burujabetzaren bidean herritarren borondateak definitzen zuena bestetik (autodeterminazioa aldarrikatuz). Azken hauek, 1930ean EAE-ANV alderdi ezkertiar, independentista eta errepublikanoa sortzen dute. 36ko altxamendu militarrean Eusko Gudarostean parte hartu ostean klandestinitatera pasa ziren.

Diktadura eta insurrekzio fasea:

Diktadura garaian gatazka politikoa azaleratzeko eta ukazioari eta errepresioari aurre egiteko asmoz, herria altxatzeko borroka zabaldu

zen. Munduan zeuden askapen borroka ezberdinek (Kuba, Algeria...) eta Europako zenbait estatuetakoko borroka armatu iraultzaileek (RAF, Italiako Brigada Gorriak, IRA...) eragina izan zuten. Herria antolatzearen aldeko apustua egin zen, estatu frankistaren eraso bortitz eta basatiaren aurrean, borroka armatuaren hautua egin zelarik defendatu, estatuari desgastea eragin eta askatasuna lortzeko. Honela, 1958an ETA sortu zen. Aurrez, 1952. urtean jada, frankismoaren aurrean EAJren pasibotasuna salatuz, ikasle talde batek EKIN erakundea sortu zuen, gazte askoren artean zabaldua. Euskadi Ta Askatasunaren helburua, garaian zeuden faktore politikoak zirela medio independentzia eta sozialismoa izan arren, Espainiako Estatuaren menpeko lurraldeak askatzea zen lehentasuna eta horren ostean Frantziako Estatuaren menpekoak.

1973an Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan Iparretarrak (IK) talde armatua sortu zen. Ideologia sozialista, iraultzaile eta abertzaleen talde honek Frantziar Estatuaren interes turistikoaren eta administrazioaren aurkako ekintzak burutu izan zituen. Nahiz eta ETA eta IKren azken helburuak antzekoak izan, hauen arteko erlazioa gora beheratsua izan zen, ETAK Frantziako Estatuan ekintza armatuak egitea saihesten baitzuen. Honek, beste zenbait elementuren artean, Ezker Abertzalearen zatiketa historikoa elikatu izan du hiru lurraldeetan.

Erreforma frankista (Trantsizio Espainiarra): Frankismoaren jarraipen politikoa kolokan zegoen bai maila internazionalen zein estatu mailan. Honen aurrean frankismoaren oinordekoek estatu frankistaren birfundazioaren aldeko hautua egin zuten. Hemen kokatzen ditugu Espainiako Konstituzioaren inposizioa (1978), euskal herritarren ezezko borobila jaso ostean eta honen atzean etorri ziren Nafarroako Foru Amejoramentua (1982) eta Gernikako Estatutua (1979), autonomismo burgesaren garaia. Estatu frankistaren birfundazioa sektore politiko ezberdinen laguntzak ahalbidetu zuen (PNV, PSOE, PCE, UCD...). Garai honetan Frankismoaren bukaeran eginiko erreforma politikoak askatasunerako ate bat itxi zuen. Ondorioz, askapen mugimenduak bere estrategia egokitzea behartua ikusi zuen bere burua, horrela insurgentzia fasea itxiztat eman eta fase berri batean murgilduz.

Negoziarioaren estrategia:

KAS alternatiba oinarri hartuta (amnistia osoa, askatasun demokratiko osoak, autonomia Estatutu nazionala, desmilitarizazioa eta langileriaren eta herri klaseen bizi egoeren hobetzea) estatua negoziatzera eserarazi nahi zen, honetarako jasan ezina egingo zitzaion ekintza armatuen eta herri presioaren bidez. 1979an Jarrai-KAS gazte antolakundea sortu zen estrategia honen baitan. Ziklo honen helburua estatua negoziatzera behartu, erreforma frankistak (Gernikako Autonomi Estatutua, Nafarroako Amejoramentua) gainditu eta KAS alternatibako puntuak lortzea zen. Aljeriako prozesu negoziatzailea mugarri izan zen 1989an.

KAS alternatibak Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Arabarako konponbidea eskaintzen zuen, hau da, ez zuen kontenplatu Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoarako konponbide negoziaturik. Bestalde, Frantziako Estatuak ere ez du sekula aitortu Euskal Herrian gatazka politikorik dagoenik baina estuki kolaboratu izan du Espainiako Estatuaren estrategia errepresiboarekin. 1970eko hamarkadan euskal errefuxiatuak espainiaratzeari argi berdea eman zion. 1980ko hamarkadan GAL eta gerra zikinaren konplizea izan zen.

Garai berean, François Mitterrand presidenteak, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoarako euskal departamendua agindu zuen. Baina horren ordez, Pays deitoriko egitura hutsala aplikatu zuen (giza edo diru baliabiderik, aurrekonturik, ordezkaritza politikorik eta nortasun juridiko propioa ez duen eredu) egitura juridiko propioa izateko eskubidea ukatuz herritarrei.

Aljerian, ETA (Euskal Herriaren ordezkaria negoziazioetan) eta PSOEren (garai hartan Espainiar Estatuaren gobernuan zegoen alderdia) arteko negoziazioak apurtzerakoan, askapen mugimenduak hausnarketa sakona burutu zuen. Batetik Euskal Herriaren zutabe estrategikoen aldeko apustu sendoa egin behar zela (euskara, feminismoa, lan eskubideak...) ondorioztatu zen, azkenengo hamarkadetan negoziazioen aldeko apustuak herri izaera guztiz ahulduta utzi baitzuen. Bestetik, euskal herritarren eskubideak estatuaren ordezkarien eta ETArekin eskuetan edo negoziazioetan soilik ezin zirela utzi, beraiek ez direlako gatazkaren korapiloa, gatazkaren ondorioen bozgorailu baizik. Hemendik aurrera nazio askapen mugimenduaren estrategia politikoaren ulermena aldatuko da.

Nazio estrategia, *Euskal Herria vs Estatuak*

Estrategia Politiko-militarra garatzen jarraitu arren, egoera goitik behera aldatuko zukeen ETA eta Espainiako Estatuaren arteko negoziazio ondorengo egun amestuaren zain egon ordez, egunero Euskal Herria eraikitzeke estrategia erdietsi zen, nazio eraikuntzan urratsak emanez. Bestalde estrategia nazional bakarraren aldeko apustua egin zen, bi estatu zapaltzaileen menpeko lurraldeen artean zubiak eraikiz.

1995ean Alternatiba Demokratikoa aurkeztu zen, bertan lurraldetasunaren eta Euskal Herriaren burujabetzaren onarpenera eta autodeterminazio eskubidea barnebiltzen ziren. Alternatiba Demokratikoarekin batera negoziazio ereduaren ere urratsak eman ziren. Bitartean Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan mugimendu ezkeriar eta abertzaleen arteko zatiketa gainditu eta Abertzaleen Batasuna (AB) koalizioa sortu zen. Gazte mugimenduan berriz Gazteriak antolakunde abertzale eta ezkeriarra jaio zen.

1998-1999, Lizarra-Garazi akordioaren garaia. Irlandako esperientzia nolabait oinarri harturik Alternatiba Demokratikoak marraztutako bidea jarraitu zen, herri mugimendu, mugimendu politiko zein langile mugimenduko eragileen arteko akordioarekin bloke soberanista sortzeko lehen saiakera izan zen. Autonomiaren balio gabetasuna agerian geratu zen jendarte osoan. Prozesu honek porrot egin zuen EAJ-EAK izandako interes alderdikoi, ekonomiko eta kolaboratzaileengatik. 2000. urtean Nazio Eraikuntzaren estrategiaren baitan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Jarrai Gazte Erakundea eta Zuberoa, Behe Nafarroa eta Lapurdiko Gazteriak-en batasunetik Haika Gazte Antolakundea sortzen da. Hau ilegalizatua izan ostean, 2001ean, SEGI Gazte Antolakundea sortzen da.

Garai berean, Ezker Abertzaleak nazio erakundetzearen aldeko apustu sendoa egin zuen Nazio Eraikuntzaren estrategiaren baitan. Testuinguru horretan sortu zen Udalbiltza, besteak beste. Era berean, Jarrai eta Gazteriak-en batasunetik Haika gazte antolakunde nazionala sortu zen. Euskal Herritarrok (EH) eta Abertzaleen Batasunak ere bat egiteko saiakera egin zuten Batasuna prozesuan, baina Lizarra-Garaziko prozesuaren porrotaren ondorioz, Ezker Abertzalea zatitu egin zen berriz ere hiru lurraldeetan.

2004an Anoetako proposamena aurkeztu zuen Ezker Abertzaleak. Bertan, gatazka gainditzeko negoziaketa metodologia berria barnebiltzen zen: bi akordiotan oinarritutako konponbide prozesua, bata akordio politikoa eta bestea gatazkaren ondorioen inguruko akordioa. Euskal Herriko eragileen arteko akordioa, eta ETA-Espainiako zein Frantziako estatuen arteko akordioa.

2006-2007, negoziazio prozesua ematen da Loiolan. Bertan, akordio politikoa negoziatzen da trantsiziozko marko demokratikoen proposamenarekin mahai gainean (Anaitasuna-Uztaritze). Bestalde, ETA-Estatuen arteko negoziaketa ere eman zen, gatazkaren ondorioen gainean. Alta, negoziaketek porrot egin zuten Anoetako proposamenean zehaztutako bi negoziazio errailak garatzeko izandako oztopoengatik.

2010, Zutik Euskal Herria, Ezker Abertzalearen strategiaren baitan fase politiko-militarretik, fase politikora igarotzeko hautua egin zen. Anoetako eskemari jarraiki bi eremutan garatu beharreko akordioetan berretsiz: Euskal Herriko eragileen arteko akordioa eta ETA-Estatuen artekoa. Honela aldebakarreko pausuek zikloaren erdigunean kokatzen du Ezker Abertzalea, herria izanik berme nagusia.

Egun, aldebakartasunaren ondorioz irekiriko zikloa ere strategiaren berregokitze batetik dator. Jada Lizarra-Garazitik askapen borrokan urrats kualitatiboak emateko aukera handiak zeuden. Nazio eraikuntzan oinarrituriko estrategia,

estatuari ofentsiban ekiteko gaitasuna eta masak artikulatzeko urratsek Espainiako Estatuak ataka estuan ezarri zuten. Estatuak ordea, arriskuaren jabe izanik, errepresioa mugaraino eramateko hautua egin zuen, burgesiaren pasibitatearekin.. Urteetan ilegalizazio eta jazarpena muturreraino eraman du askapen mugimendua itotzeko xedearekin. SEGI erakunde terrorista izendatzea eta bere militanteen atxilotetak honen adibide dira. Baina ilegalizazio, debeku eta jazarpenaren errepresioari garai ilunenetan ere eusteko eta erantzuteko gaitasuna erakutsi dugu. Alta, estrategiaren berregokitzeak irauli egin du egoera, lubakietatik irten eta eztabaidaren lehen lerroan kokatu gara, hala ere, egoera berri honek distentsioa eragiteko arriskua ekarri du.

2.1. URTEETAN SORTURIKO BALDINTZAK

Independentzia eta sozialismoaren bidean geltoki ezberdinak izan ditugu eta izango ditugu. Geltoki guztiek sortzen dituzte baldintza berriak, ondo eginak errepikatuz eta akatsetatik ikasiz. Edozein iraultzatan etengabeko hausnarketa ezinbestekoa da urratsak ematen jarraitzeko. Ezker Abertzaleak, saiatu arren, ez du beti estrategia baldintzetara egokitzen jakin. Dena dela, bere strategiaren inguruko hausnarketa eta kritikak egin izan ditu baldintza berriak sortuz.

Indar korrelazioei dagokionez, ukalezina da eman den aldaketa. Aldebakarrean emandako urratsen ondorioz gainontzeko eragileek euren posizioa berregokitu behar izan dute, diskurtsoetan garbi ikus daiteke eragile ezberdinen eboluzioa.

Euskal Herriko jendartearen gehiengoak Euskal Herriaren aitortza egiten du eta baita bizi duen gatazkaren izaera politikoa ere. Honek konponbiderako aukerak ematen ditu herria protagonista eginez.

Herri lanari eta borrokari esker, baldintza berriak ireki ditugu Euskal Herrian. Euskal Herriak herri mugimendu indartsua izatea lortu du. Antolatzeko ohitura eta gaitasuna dago gure herrian, eta honek askapen prozesuan pausu kualitatiboak emateko aukerak eskaintzen ditu, nahiz eta egun ez dauden horretarako beharrezko elementu guztiak. Konfrontazio erabatekoa izateko herri mugimenduan kohesioa eta harreman estuak behar dira batera jo ahal izateko.

Neoliberalismoaren krisiak klase desberdintasuna areagotu du iraultzaren bidean urratsak egiteko aukerak emanez. Eraldaketa ekonomiko eta sozialak gauzatu ahal izateko indarrak biltzeko aukera emanaz. Bizi baldintza eta egoera krudelen artetik, iraultza, txikitik handira egin ahal izateko.

Trantsizio faltsuan sorturiko Estatutua Ezker Abertzaleak hasieratik errefusatu zuen arren Lizarra-Garazi akordioaren garaian hainbat eragile politiko eta sozialek honen agorpenarekin bat egin zuten. Egun Estatutuaren agorpenaz gain, Amejoramentua eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako lurralde egituraketa agortuta daudela esaten dute gero eta eragile gehiagok.

Estatuek, estatu ereduaren krisia bizi dute. Espainian autonomien estatuak porrot

egin du (gero eta eragile gehiago izanda autonomien eredia zalantzan jartzen dutenak) eta eredu zentralistak ez du aurrera egiten. Frantziako Estatuan berriz eredu zentralista agortzen ari da. Europar Batasunaren eredia kolokan jarri da, ez baita muga geografikoen arabera batasuna, baizik eta kondizio politikoen eta ekonomikoen arabera.

Askapen mugimenduak izan duen garapena eta sortu dituen baldintzen aurrean Estatu zapaltzaileek ere euren garapena izan dute. Estatu terrorismoaren aurpegi ezberdinak ezagutzen ditugu, gerra zikinetik ilegalizazio, debeku, tortura eta atxiloketa masiboetara. Askapen borroka itozteko estrategia errepresibo honek guztiak, neurri batean jardun politikoa mugatu duen arren jardura errepresiboaren zilegitasun eza jendartearen sektore batera hedatzea lortu dugu.

Aldagai ugari dira ziklo baten amaiera eta berri baten hasieran geundela definitzeko mahai gainean jarritakoak. Eta egun, ziklo aldaketa emateko definitzen genituen baldintzak indarrean daude oraindik.

2.1.1. Euskal Herriko egoera politikoa

Ezker abertzalearen aldaketa estrategikoak Euskal Herriko eragile politiko oro fitxak mugitzera behartu du. Azken bi urteotan Ezker Abertzaleak alde bakoitzeko urratsak emateari ekin dio, borroka armatuaren etetea erabaki ausarta izanik eta horrek gainontzeko eragile politikoak iraganeko lokatzetan harrapatuta utzi ditu. Batzuk hanka atera nahian dabiltzala nabari da, baina beste batzuk bertan jarraitu nahi dute. Haatik, indar metaketaren estrategia dela medio, Ezker Abertzaleak indar soberanisten botere korrelazioa aldatzea lortu du.

Prozesu Demokratikoaren aldeko sostengu handia bildu da Euskal Herrian. Esanguratsua da Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako bilakaera azken bi urteetan, Euroaginduen aurka piztu tako mugimenduan besteak beste.

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan aldaketa 2007an hasi zen Uztaritzeko Proposamenarekin. Autonomiaren aldeko aldarria egitea, hiru lurraldeetan abertzaletasunak izan duen zatiketa historikoa gainditzea bidean urrats garrantzitsua izan zen. Mugimendu abertzale osoa norabide berean lanean jarri zuen. Ezker Abertzaleak Xutik Euskal Herria ebazpena azaldu ostean eta ETAK borroka armatua behin betiko amaitutzat eman ostean, hiru lurraldeetako ezkeriar eta abertzale guztiak batuko dituen herritar batasun berria osatzeko lanean hasiak dira bertako kideak.

Autonomiaren aldeko Batera plataformak Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako jendarte sektore zabalak biltzea lortu du, abertzaleak biltzeaz gain, PSko kideak, berdeak eta abar biltzen baititu. Nabaria da era berean, hamarkadetan abertzaleek egindako lanari esker, euskararen aldeko aldarria, Euskal Herriko Laborantza Ganbararena (EHLG) eta abar abertzaletasunetik haragoko aldarriak direla. Alta, bozka abertzalean ez da irudikatzen indar guzti hori eta oso motel ari da igotzen bozka joera abertzalea. Hala ere, azken emaitzek adierazi dute

aldaketa bide onean doala, EH Bai-k hirugarren indarra izatea lortu baitu. Ezker Abertzalearen zatiketa gairatzea gako garrantzitsua izango da eragiteko gaitasuna handitzera bidean.

Bestalde, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa historikoki eskuineko lurraldeak izan badira ere, azken urteetan aldaketarako joera nabarmena hartu du, azken hauteskundeek erakutsi dutenez. Horren erakusgarri da UMP alderdiko Michelle Alliot Mariek bi hamarkadaren ostean Frantziako Legebiltzarreko aulkia galdu izana eta Partidu Sozialistak (PS) izan duen gorakada. Alta, UMPren beherakada horrek eskuin muturraren gorakada ere eragin du.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako eragile ezberdinek ere Prozesu Demokratikoaren alde urratsak eman dituzte. Prozesuan herria protagonista den unetik eragile ezberdinetatik dinamika ugari sortu dira (Hitzarmena, Gernikako Akordia, Adierazi EH, Eleak, Herrira...).

Alderdi politikoei dagokionez guztiek konpartitzen duten noraezaren baitan joera ezberdinak ikus daitezke.

PSOE-PSE-PSN, lur jota dago. Alderdi demokratiko moduan agertzen bada ere eskuinarekin dituen sokak ez ditu apurtu. Prozesu Demokratikoaren baitan, erabateko lidergo falta erakutsi du, lehenik Rubalcabaren menpeko zelako eta gerora beranduegi izan delako.

PP-UPNk berriz ez du onartu Euskal Herriko aro politikoa berria. Diskurtso zaharrekin errezeta zaharrak aplikatzen jarraitzen du gatazka luzatzea interesatzen zaielarik. Horren adibide dira errepresioaren jarraipena, balizko galdeketa baten aurrean "erbesteratuen" boto eskubidea ahalbidetzeko saiakera, edota PPren espainolismo hutsala alde batera utziz, UPN-ren ahotik navarrismoa sustatzen jarraitzea. Era berean, ezin aipatu gabe utzi prozesua oztopatzea helburu duten eskuin muturreko eragileen jarduna. Gobernuari presio eginez lobby funtzioa betetzen dutenak, biktimen paperetik mendeku bila.

EAJ ez da inoiz autonomia eta independentziaren artean posizionatu eta egungo egoeran ere interes alderdikoen mesedetan hegemonia mantentze aldera berdin jarraitzen du. Honela, Prozesu Demokratikotik etekin politikoa ateratzen saiatuko da, presoen aferan sasi irtenbideak eskainiz eta elkarrizketaren aldeko jarrera azalduz, besteak beste. Nafarroan erregionalismo esparru berri bat sortu dute: Geroa Bai. Geroz eta argiago geratzen ari da NaBai-tik Aralar atera eta gero, baita Geroa Bai osatzen duen Zabaltzen plataformako kideen ibilbidea gertutik aztertuz gero.

2.1.2. Aukera eta arriskuak

Urteetako borrokek ekarri gaitu egungo egoerara, egungo baldintzak ez dira kasualitatez suertatu garapen baten ondorio dira. Baina baldintza horiek probestu eta aurrera egiteko erabiltzen asmatu behar da, parez pare aukera berriak

baditugu ere arriskuak hor baitaude. Arriskuen aurrean ausardiaz jokatu behar dugu, baina beti ere tentuz eta arduraz okerreko urratsak saihestuz.

Aukerak:

Politika eta politikoeziko sinesgarritasun faltak herria protagonista egitea ahalbidetu behar du. Politika herritartu eta parte-hartzea bultzatu behar da herri mugimendua indartuz herri boterearen bidean.

Krisi estruktural honek nazio eraikuntzarako aukerak ematen ditu, apurtu-eraikei filosofiarekin ofentsiban ekiteko. Lanketa ideologikoa egiteko aukera paregabea ireki da, jendeak iritzi kritikoak ditu sistemarekiko eta hori probestu behar da.

Aldebakarreko pausuek inziatiba berreskuratzea eragin du eta ondorioz eragiteko gaitasuna areagotu da, aukera berriak probestuz. Ezker Abertzalea erdigunean kokatu da eta horrek gainontzeko eragileak Ezker Abertzalearen arabera birkokatzeak aukera ematen du.

Instituzioak herri boterearen mesedetan jarri eta iraultzeko atea ireki daiteke. Urteetan ilegalizazioak jasan ondoren, instituzioak herriaren esku uzteko abagunea da. Egungo instituzioak sistemaren engranajeak badira ere, barrutik eragitean hauek iraultzeko aukera dago.

Ipar Euskal Herrian Zuberoa, Lapurdi eta Behe Nafarroa elkartuko dituen lurralde elkargoaren aldeko borrokak egoera berri baten atarira eramán gaitu. Ipar Euskal Herriko lurraldeak batuko dituen marko propioa lortzeak, independentziaren bidean urratsak emateko aukera ematen du.

Krisiaren ondorioz sortu den Autonomien Estatuaren eztabaidarekin, autonomia probintzialekin zer gertatuko den da galdera nagusia eta arrisku baino aukera bezala ikusi behar dugu. Independentziaren bidean urratsak emateko aukera ematen baitu.

Munduan zehar diren Estaturik gabeko Nazioak askatzeko prozesuak ematen ari dira. Horrek, Euskal Herriaren eskubideak errespetatze bidean, gatazkaren konponbidean urratsak emateko baldintzak areagotzen ditu.

Arriskuak:

Tarteko urratsak markatu baditugu ere, helburu estrategikoak ikusmiran izan eta gure oinarriak mantentzea beharrezkoa da. Euskal Herrian eman behar den aldaketa politiko eta soziala errokoa izan beharrean erreformismoan eror gaitzke. Etsaiaren instituzioetan parte hartzeak inertziak eragin dezakeen asimilazioa ekidin behar dugu. Horretarako herri mugimendua eta gazte mugimendua funtsezko akuilu aktibo direlarik. Asimilazio arriskuarekin

batera, Ezker Abertzalean jarrera instituzionalista gailentzeko arriskua dago, gainontzeko borroka esparruak (masa borroka eta borroka ideologikoa) instituzionalaren mesedetan jarritz.

Gatazka politikoa lausotzea da beste arrisku garrantzitsu bat, urrats txikiak eman ondoren gatazka amaitutzat emateko arriskua dago. Gatazkaren gordintasuna txikiagotzean egoera erosoago batean geratzea urrats gehiago eman gabe. Gatazka zentzu zabalean ulertuz, gatazka politikoa lausotzeak, gatazka sozialean eragin dezake, berau desitxuraturaz.

Aldebakartasunaren ondorioz blokeo egoeran erortzeko arriskua dago. Estatuaren eta bestelako subjektuen itxikeriak, bidean bakarrik geratzea ekar lezake, gatazkaren alde baten eta bestearen arteko ezberdintasuna areagotu eta aurrerapausorik ez ematea eragin dezakeelarik.

Autonomien Estatua zalantzan jartzeak hamarkadetarako atzerapausoa ekar dezake Nafarroarekin egin dezaketena kontutan hartuta (autonomia berria Aragoi edo Errioxarekin). Beraz, Autonomien Estatua agortzeak aukera haina arrisku dituela kontutan hartu behar dugu.

Ipar Euskal Herriko lurraldeak elkartuko dituen lurralde elkargoa egituratzeko aukerak sortu dira. Ipar Euskal Herriko marko propioa ez lortzeko ordea, Zuberoa, Lapurdi eta Behe Nafarroaren lurralde aitortza ahalbidetzea ekidin dezake luzaroan.

Masak biltzeko gaitasun ezak borrokaren garapena hankamotz geratzea ekarriko du. Jendarteak bat egiten ez badu atomizazioa gertatzeko arriskua dago eta horrek Estatuari zein sistemari soilik egiten die mesede.

2.2. HELBURUAK

Gure helburu estrategikoa independentzia, sozialismoa eta feminismoa da. Bide horretan, gazteon ortzimuga Gazteherria eraikitzea izango da.

Aurrez, egoeraren azterketa orokorra aztertzean ikusi dugu oinarri teorikoa, zein den sistema kapitalista patriarkalaren logika eta zein alternatiba, eta horri erantzuten dio gure proiektu politikoak, independentzia, sozialismoa eta feminismoak.

Bide horretan, gure herriaren egituratzea lortu behar dugu. Independentziaren eskuratzea ekarriko duena. Gatazka gainditze bidean jarraituriko eskeman aurreikusten dugun marko politikoen adostetik, Euskal Nazioa egituratuko duen figura politiko-juridikoa gauzatu beharko dugu. Argi izan behar dugu Euskal Estatua ez dela azken geltokia, Euskal Estatuak ez baitu bere horretan sozialismoa bermatzen, iraultza ez baita inoiz bukatzen. Ez dezagun nazio erreprimituaren ikuspuntutik soilik ulertu. Bizi dugun egoera sozioekonomikoarekin amaitu eta guk geuk gure baliabideak gestionatzeko

burujabetza eskuratzeko bidea bezala baizik.

Iraulketan ekonomikoa gauzatu dadin egundik hasi beharreko bidea dugu hau. Aldaketa txikietatik abiatuz. Lan honen bidean, sozialismorako zubiak eraiki beharrean gaude, gauzagarri aurkeztu eta ahalbidetuko duen egoera egonkortuz. Krisi estrukturalari aurre egiteko alternatiba bakarra izaki, etengabeko borroka materiala eta ideologikoa praktikan jarri beharko dugu.

Finean, aldaketa hitzak nahasmenera eraman gaitzake. Ez gara "aldaketa" hutsal batekin konformatzen. Aldaketak, eredu aldaketa batean erortzea ekar dezake. Argi izan beharrean gaude gure helburu estrategikoak lortze bidean pauso bat izan daitekeela; inondik ere azken geltokia.

Aldaketaz hitz egiterakoan baina egiturazko aldaketa bati buruz ari garenez, egiturazko zapalkuntzak gaintitu behar ditugu. Horretarako, botere harremanik gabeko jendarte eredu parekidearen eraikuntzan feminismoak izan behar du oinarria, hots, eraikiko dugun sozialismoa feminismoan oinarritu behar da.

Beraz, iraultza sozialaz mintzatuko gara. Iraultza baita gure helburuak lortzeko ekinbidea. Sistema politiko eta ekonomikoa errotik desmuntatzen hasi eta berri bat eraiki nahi dugu. Honela, Euskal Herriak bere ekarpena egingo dio zeharkako borroka internazionalista honi.

2.2.1. Zikloaren helburuak

Behin eta berriz entzun ohi dugu ziklo berri baten hasieran dagoela Euskal Herria. Zikloaz mintzo garenean, ezin dugu epealdi konkretu edo ertsi baten gisan ulertu. Hain zuzen, faktore ekonomikoek, bizi baldintzek, balore aldaketek edota gertakari politikoek baldintza dezakete zikloa. Era berean, borrokaren bidezko lorpenak ere ekar lezake ziklo baten aldaketa. Gaur egungo ziklo politikoak, Euskal Herriarentzat Marko Demokratikoa erdiestea du helburu, eta bide horretan, fase ezberdinak izango ditu.

Marko demokratikoaren bidean, prozesu demokratikoa:

Eraldaketa politiko eta soziala gauzatu ahal izateko eta helburu estrategikoen lortzean pausoak emateko, gure herrian bizi dugun problematika politiko zehatzari bide eman behar diogu. Gatazka politikoaren gaintzea ekarriko duen estrategia bat paratu behar dugu martxan.

Estrategia honekin eman beharreko urratsak argi izan behar ditugu buruan eta berauek beharrezkoa duten plangintzak burura eraman beharko ditugu, honako helburuak mahaigaineratzen dira ziklo honetan.

Minimo demokratikoen eskuratzeko: Jasandako defizit demokratikoaren aitzinean, eskubide zibil eta politikoaren eskuratzeko ezinbestekoa da. Bai norbanakoena, kolektiboak zein herri edota komunitate gisa dagozkigunak.

Gatazkaren ondorioen gainditzea: Urteetako gatazka politikoak eragindako ondorio guztien errekonozimendu eta konpontzea ematea. Hala nola, preso eta iheslarien afera, biktimak, desmilitarizazioa...

Lurraldetasuna eta autodeterminazioaren aitortza: Gatazkaren gainditzea emateko, alde guztien arteko elkarrizketa eta negoziazio dinamiko baten bidez, gatazkaren zioak konponduko dituen Akordio Politikoa erdietsiz. Mugarri bezala Espainiako Estatuaren menpe dauden lau lurraldeez osaturiko marko juridiko-instituzionala eta Frantziako Estatuaren menpeko hiru lurraldeentzat, lurraldetasunaren aitortza. Hala, edozein proiektu politiko gauzagarri egin ahal izateko egoeraren eskuratzea lortuko dugu.

2.3. BIDEA

Prozesu demokratikoaz mintzo garenean, Euskal Herrian normalizazio demokratikoa biziko den unera iristeko prozesuaz mintzo gara. Hau da, prozesu demokratikoarekin amaitzean, proiektu politiko guztiak egingarri izango diren testuingurua lortu nahi da, independentzia lortze bidean. Hau da ireki den ziklo berri honi ezarri diogun helburu nagusia.

Egin beharreko bidearen amaiera ez dela badakigu, atek parez pare irekiko dituen urrats garrantzitsua da, atek ireki Euskal Herrian independentzia, sozialismoa eta feminismoa eraikitzeko. Estrategia independentista da helburuak lortzeko bidea, Prozesu Demokratikoa eta independentziaz harago, Euskal Estatu Sozialista eraikitzeko bidea. Bide horretan nazio eraikuntzaren bidez gaurdanik gure sozialismoa eraikiz.

Beraz ziklo hau helburu estrategikoak lortze bidean eman beharreko urrats taktikoen multzo bat bezala ulertu behar da. Hau horrela ulertzen bada, argi ikusiko dugu egunez egun autodeterminazio eskubidearen alde eta Euskal Herriaren aitortza baita independentzia, sozialismoa eta feminismoaren bidean ere ahalik eta indar gehienak batzearen garrantzia, honela prozesu demokratikoa azeleratzen baita. Modu honetan, prozesua burura eramatean posizio egoki batean kokatuko gara eta aukera izango da helburu estrategikoak lortzeko.

Eragileok, prozesuaren gidari egingo duen motorra izango gara nazio eraikuntzaren bidez eta borroka esparruen norabidea zehaztuko du (masa borroka, borroka ideologikoa eta borroka instituzionala). Ematen diren pausu guztiak kontuan hartu eta nazio eraikuntzara bideratuz, prozesua herriratu eta nazio eraikuntzaren inguruko formazioa eskaintzea garrantzitsua da, gehiengo zabala inplikatu eta lanketan konprometitzuz.

Nazio eraikuntza Euskal Herriaren erabakia da, herriaren apustua da inoren zain egon gabe, bere erritmo propioak markatuz, horregatik presio mekanismo garrantzitsua izan behar da estatuekiko konfrontazioan blokeo egoerak gaindituz. Jakina baita botere hegemonikoak ez dituela pribilegioak borondatez ematen.

Haatik, berebiziko garrantzia dauka izaera kolektiboaren baitan jendartearen kontzientzia garatzeak. Honen araberakoa izango baita herritarren indar metaketaren arrakasta eskubide eta gako politikoen inguruan.

Amaitzeko, nazio eraikuntzarekin, funtsezkoak diren eta egunero eraikitzen diren alternatibaren aurrean proiektu inposatuek zilegitasuna galtzen dutela berresten dugu. Ezinbesteko lana nahi dugun etorkizuneko Euskal Herria definitzeko eta egunez egun eraikitzen joateko.

2.3.1. Herri boterea eraiki

Borroka garapenean nazio eraikuntza garatu ahal izateko subjektuak langile eta herri klaseak dira, eta hainbat tresna daude: hala nola eragile, antolakunde edo mugimenduak, eta borroka eremuak ere zehaztuak dira, borroka ideologikoa, masa borroka eta borroka instituzionala.

Hau da, osotasunean herri boterea eraikitzen ari gara, kapitalismo patriarkalari aurre egin eta proiektu politiko berri bat ezarriko duen herri boterea. Proiektu politiko hori zehazten, garatzen eta praktikara eramaten ari gara nazio eraikuntzaren bitartez. Guzti honi egingo diogun ekarpena gazte botere anitz, kritikoa eta indartsua sortzea izango delarik.

Ezarrita dagoen boterea zalantzan jartzen duen eta horren aurrean alternatibak eskaintzen dituen edozein herri antolakunde (gazte antolakunde, gazte asanblada, talde feminista...) izatez kontraboterea da. Edozein herri antolakunde, bere interesak defendatzeko boterea hartu edo berreskuratzeko antolatzen dena, aipaturiko kontraboterearen parte da. Kontraboterearen parte direla esaten da ezarrita dagoen boterea zalantzan jartzen dutelako.

Klase izaera oinarri hartuta antolatzen dira, herri langiletik (langile klasea eta herri sektoreak), klase zapaldutik eta behar propioetatik abiatzen dira. Zapalduak zapaltzaileei aurka egiteko mugitzen direla suposatzen da, beraz, beti egingo dute topo klase zapaltzailearekin.

Gainera antolakuntza modu hauek identitate nazional baten defentsa barnebiltzen badute, kultura batena, botere eta estatuaren interesekiko eta ezartzen dituzten baloreekiko talka are handiagoa izango da.

Ezinbestekoa da herri boterea eta gure kasuan gazte boterea etengabe eraikitzea eta indartzea, herri boterea ez baita nazio eraikuntza garatuko duen subjektua soilik, herri boterea ezarritako boterearen aurrean konfrontatzeko daukagun tresna nagusia da.

Kontraboterea eraikitzen bidean antolakuntza kolektiboak bezain besteko garrantzia dauka norbanakoaren jardunak. Finean, pertsona bakoitza eraldaketarako subjektu aktiboa da; zeinak bere izaera eta jardunetik ekarpena egiten duen bide horretan.

2.3.2. Iraultza soziala

“Eraldaketa bidezko borroka da bidea, iraultza soziala, helburua”

Rosa Luxemburgo (Erreforma ala iraultza)

Helburu estrategikoak gure azken helburuak dira, beraz proiektu politikoa aldatzen ez den bitartean hauek ez dira aldatzen. Aldatzen direnak helburu taktikoak dira. Helburu taktikoak borrokaren fase bakoitzean definitu edo egokitzen direnak dira, urrats taktikoak ematea ezinbestekoa da helburu estrategikoak lortzeko.

Urrats hauek, aldaketa hauek, etengabeak izan behar dira eta beti eman behar dira jendartearen baitan. Demokrazia parte-hartzailea eta asanblearioa bultzatuz zein bermatuz, eztabaida kritikoa hedatuz eta erreformismoan erortzeko arriskua ekidinez.

Sarri botere faktikoa demokratizatzen ari denaren ilusio erreformistan erortzeko joera dago. Soilik gehiengo demokratikoarekin zapaltzaileak bere pribilegioak, jabetzak eta abar galduko dituela uste da askotan, hauek herritarren mesedetan uzteko.

Haatik teoria eta esperientzia iraultzaileak dio Boterea inoiz ez dagoela galtzeko prest. “Opariak” egin ditzake zenbait eremutan, baina beti ere hainbat aldarri isilarazteko helburuarekin, maiz arriskutsuagoak baitira herri erantzun edota aldarriak. Eta beste askotan, bere posizioa bermatu asmoz, botereak herri aldarrikapenak desitxuratu eta propio egiten ditu.

Esan bezala, azken helburuetara iristeko beharrezkoa da urrats taktikoak ematea baina beti ere arazoaren sustraia zein den agerian utziz. Helburu handiak lortzeko beharrezkoa da eguneroko eraldaketa lana, txikiak baina etengabeak eta iraunkorrak.

Honela erreformismoan ez erortzeko, ezinbestekoa da azken helburu estrategikoak begi bistan izatea eta etengabe behin eta berriz planteatu eta birplanteatzea helmugara hurbilduko gaituzten urrats taktikoak. Horrez gain, ezinbestekoa eta iraunkorra izan behar da helburu estrategikoak elikatu eta edukiz hornituko dituzten borroka martxan jartzea.

2.3.3. Bidea: ofentsiba eraikitzailea

Estatua beti saiatuko da edozein herri botere adierazpen deuseztatzen. Hauek, ezin dira mugatu duten botere apurra mantentzera, horrek, ahuldu eta denboran zehar beren desagerpena eramango lituzkeelako. Horregatik, etengabe praktika ofentsiboa garatu behar dute, aurrera jarraitzeko helburuarekin.

Ezinbestekoa da beraz, ofentsiba jarrera bat erreformismoarekin amaitu eta ate berriak zabaltzeko.

Ofentsiba hau eraikuntza klabean egin behar da beti. Herriarekin gaurdanik eraikuntza horretan hasi behar dugu, gehiengoa bihur gaitezen. Honetarako, gazteekin hausnarketak, kontraesanak konpartitu, kontzientziatu eta arrazoi bidezko konbentzimendua landuko dugu. Alegia, gazteak gure proiektu politikoaz konbentzitzera goaz, ez inposatzera, eta elkarrekin bizitza sozialaren eraldaketan urratsak ematera. Gure apustua irabaztea da, horregatik aspaldi igaro ginen erantzun hutsetik eraikuntzara. Nazio eraikuntza da erantzuteko modurik onena, baina batez ere ofentsibara igarotzeko modua da, aldebakarreko jarrerarekin inoren zain egon gabe.

2.3.4. Esparruak

Ziklo berri honen harira, Ezker Abertzaleak borroka garatzeko hiru eremu definitu ditu. Eremu bakoitzaren baitan tresna ezberdinak abiarazi beharko dira, diagnosi batetik abiatuak eta eremu bakoitzari egokituak. Garrantzitsua da tresnekin asmatzea, baina garrantzia berekoa da euren arteko oreka mantentzea. Oreka egoki batek urratsak eman eta fruituak jasotzea ahalbidetzen du eremu bakoitzean eta modu honetan emaitzak biderkatzea euren arteko sinergiak sortuz.

Ziklo honen aurrean, eta borroka armatuaren etetearekin nabaria da hiru borroka esparru hauek hartzen duten garrantzia eta borrokan bete behar duten papera.

a) Masa borroka; herri mugimendua (gazte mugimendua)

Masa borroka, presio egin eta eskubide nazional, sozial zein herritarren mesedetara ezarritakoak aldarrikatu eta borrokatzeko tresna nagusienetakoa da, are indar handiagoz borroka armatuaren etetearen ondotik. Horrela, masa borrokaren bitartez azaleratuko da gatazka politiko eta soziala.

Masa borroka garatuko duen subjektu nagusia herri mugimendua da, eta ezinbestean gazteoi dagokigunez, gazte mugimendua. Ezinbestekoa da gazte mugimendua, indartsu egotea. Ez norabide honetan aurrerapauso gehiago emango direlako soilik, borroka honetara antolatuta ez dauden askozaz gazte gehiago lotuko direlako baizik. Masa borrokan, eraldaketa politiko eta sozialari ekarpena egiten dion gazte guztientzako lekua egon behar da.

Masa borrokaz hitz egiten ari garenean kontutan hartu behar da, helburua eraldaketa politiko eta soziala izanik, ahalik eta gazte gehien aktibatu, mobilizatu eta antolatu behar garela, konpromiso maila

desberdinak barnebilduta. Horretarako, gure eragin esparrua zabaldu behar dugu.

Borroka honek adierazpide ezberdinak barnebiltzen ditu, desobedientzia, salaketa ekintzak, kontzientziario ekintzak, proiektu herritar parte-hartzaileak... hau da, masa borroka ezin da mobilizazio hutsera mugatu, borrokarako esparru oso aberatsa da. Horretarako, esparrua berritzailea, anitza eta irudimenezkoa izateko, beharrezko tresnak sortu behar dira.

Aukera aniztasunaren artean, ziklo berri honen harira, mobilizazio herritarrak eta desobedientziak garrantzia berezia hartu behar dute, eremu honek duen paper aglutinatzaile eta ofentsiboa dela eta.

Masa borroka gazteria osoarentzako esparru bilakatu eta jendartea kontzientziatu nahi dugun heinean, zer, noiz eta nola garatu nahi dugun ongi aztertu behar dugu. Hau da, jarrera desobediente, errebelde eta iraultzaileak sustatu nahi baldin baditugu, planifikazio iraunkorrak eta tresna egokiak sortu beharko ditugu. Kontziente izan behar gara jarrerak bultzatzearen garrantziak duen dimentsioaz, ziklo berri honetako borroka esparruetan parte hartuz. Batez ere desobedientzia bezalako tresnak garai berri hauetan aktibatzeak duen garrantziagatik.

Ziklo berri honetan, aurrerapen instituzional nabariak aurreikus daitezke, botere instituzionalaren berreskuratze garrantzitsua. Honegatik ere ezinbestekoa da masa mobilizazioa. Atzera ez egiteko egindako aurrerapausoetan eta herri boterearen artikulazioa instituzioetan berresteko. Etengabeko mobilizazioa aitzindari izan behar da, gainontzeko borroka esparruak orekatu eta egokitu behar ditu eta gainontzeko esparruetan lortutako garaipen txikiak finkatzen lagundu behar du iraultzaren bidean.

Amaitzeko, gogoratu, esparruren batean garrantzia badu nazio eraikuntzak, esparru honetan dela. Garrantzitsua da masiboa, anitza, parte-hartzailea... izatea. Hori da gure proiektu politikoa martxan jartzeko modurik onena.

b) Borroka instituzionala

Instituzioak edozein jendarteren arau eta ohiturak antolatzeke egiturak izan badaitezke ere (koadrila, familia, eliza, gazte antolakundea...), borroka instituzionalaz ari garenean instituzio juridiko-politikoek ari gara; estatuaren gobernu eta zerbitzu publikoen antolaketa organoetarako buruz, alegia.

Ukaezina da, ireki berri den ziklo politiko honetan borroka instituzionalaren aukerak biderkatu egin direla. Kontziente gara Ezker Abertzaleak, proiektu jakin batekin botere instituzional baten

berreskuratzearen inguruan, biltzeko eta ilusioa sortzeko duen gaitasunaz. Baina horregatik jakitun izan behar gara horrek dakartzan arriskuez. Borroka esparru hori soilik dagoela pentsatzea edota iraultzaren motorra borroka instituzionala dela pentsatzea.

Gaur gaurkoz instituzioak zilegitasun krisi sakonean daude eta gazteon artean are gehiago. Izan ere, instituzioek ez gaituzte ordezkatzeko, ez gaituzte aintzat hartzen eta erabat arrotzak dira guretzako. Hau oztopoa da bide instituzionala aldaketarako borroka eremua dela ulertzeko. Hala ere, egoera politiko berrian, borrokarako esparru gisa hartu behar ditugu.

Instituzioekiko zilegitasun falta horrek, eraldaketa emateko desira sortzea ahalbidetzen du. Instituzioak eraldaketarako eta borrokarako eremuak direla erakutsiko duen proiektu politiko baten beharra hedatzen delarik. Zentzu honetan ordezkatzeko dugun instituzio oro herri mugimenduaren eta herritarren mesedetan, botere herritarren parte dela erakutsi behar da eta ez ezarrita dagoen boterearena.

Gazte Antolakundea, gazte mugimenduaren baitan, kritikoa izan behar da instituzioekin eta etengabe presioa egin instituzioak herritarren mesedera jartzeko.

Kontrabotere egonkorrak izan daitezkeen Udala edota bestelako instituzioek, herri boterearen potentziala biderkatzen dute eraikuntza nazionalen. Herritarrek, instituzioak baliatuz, diseinatu eta garatu ditzaketen planteamendu teorikoak epe ertain-luze baterako perspektiban, etorkizuneko Euskal Herriaren eraikuntzan harri eta mugarriak izango dira.

Gaur egun dauden instituzioak kapitalismo patriarkal eta estatuen mesedetara dauden tresnak dira. Herri boterea egonkortzeko eta atzerapausorik egongo ez dela ziurtatzeko, ezinbestekoa da independentzia, sozialismoa eta feminismoaren bidean urratsak eman eta herritarren zerbitzura egongo diren instituzio berriak sortzea.

Garrantzitsua da instituzioek jokatzen duten papera nazio eraikuntzan. Instituzioetatik herritarren mesedetara egongo diren hainbat proiektu garatzeko aukera dago egonkortasun eta arrakastarako aukera handiagoekin. Ziklo politiko berria horrelako proiektuak garatzeko abagunea izan behar da, Udalbiltza bezalako proiektuak eta herri mugimenduaren proiektuak.

c) Borroka ideologikoa

“Iraultza politikoa aste gutxitan egiten da, iraultza sozial eta ekonomikoak aldiz urteak behar ditu.”

“Sozialismoaren eraikuntza (kapitalismoaren garapena ez bezala) soilik gehiengoaren ekintza kolektibo eta kontzientea izan daiteke.
Salvador Allende

Sistema kapitalista patriarkalak inposizioan du bere oinarria. Injustizia eta berdintasun ezan oinarrituriko sistema batek soilik indarra eta beldurra erabiliz egin dezake aurrera. Hau da, gutxiengo baten mesederako gehiengoa zapalduz.

Sistema kapitalista patriarkalak badaki gatazka ideologikoan nagusitzea funtsezkoa dela. Marxek esaten zuen “alienazioa”, egun inoiz baino presenteago dagoela. Asko dira aisialdi, lan, ikasketa, harreman... ereduak, lehiakortasunean, zapalkuntzan eta kontsumismoan oinarritzen direla esaten duten ikerketak. Kapitalismo patriarkala inposatzen digutenek badakite horren garrantzia. Ondorioz hezkuntza, erlijioa, mass-media eta beste hainbat errepresio mota baliatzen dituzte “alienaziorako”, batzuk besteak baino agerikoagoak direnak.

Gazteok ere kontzientzia hartu behar dugu kapitalismo patriarkalaren jardunaren eraginaz eta tamainako erantzuna emateak duen garrantziaz. Euskal Herriaren biziraupen, iraultzaren garapen eta alternatibak eraikitzeko. Gazte antolakundeko kideon zeregina da gazteria kritikoa sustatzea eta tresnak eskaintzea gure ingurua aztertu eta ikuspuntu kritikoa eraikitzeko. Hau da gazte burujabeak izateko bidea.

Borroka ideologikoa garatzeko tresnak ugariak dira eta hemen ere kontuan hartu behar da hartzailera zein den, bere konpromiso maila, motibazioak eta abar. Diskurtsoa eta tresnak gazteriaren aniztasunaren mailakoak izan behar dute. Modu berean irudimena eta sormena inoiz ez daude soberan sistemari aurre egiteko.

Bi tresna nagusi nabarmenduko ditugu borroka ideologikoan nahiz eta hirugarren atalean izango duten garapen sakonagoa. Lehena komunikazioa da: egindako akatsek komunikazioa eguneroko borroka guztietako zutarri nagusia dela erakutsi digute. Gure ekinbidea eraldaketa sozialari begirakoa denez eta honek jendartea osatzen dutenak aldatzea eragiten duenez, komunikazioak berebiziko garrantzia du. Komunikazioa ulertu, azaldu, kontraesanak sortu eta konbentzitzeko arma dugu. Edozein ekintza da komunikazioa.

Bigarrena, formazioa: gazteria formatua eta kritikoa bada, ekintzen eta diskurtsoaren eragina biderkatuko da.

Gazte Antolakundearen ekinbiderako, etengabeko formazioa ezinbestekoa da. Kide bakoitzak bere kabuz eta baita gainontzeko kideekin batera egiten duen formazioa egoera berrietara egokitzeko, sorkuntzarako... baliagarria izango baita.

Borroka ideologikoaren bitartez, formazioaren bitartez, lortuko dugu jendea nazio eraikuntzaren baitan batzea. Horrela, nazio eraikuntzaren bitartez gure proiektu politikoa azaldu eta ulertaraziko dugu.

Komunikazioa borroka ideologikoaren eremuan soilik aipatu arren (azken finean osagai ideologikoz hornitutako mezua delako transmititzen dena), hiru esparruak garatzeko bitarteko nagusia da, funtsezkoa. Ekintza politikoak ekintza komunikatiboak diren heinean, gure ekinbide oro komunikazioa da.

Askapen borroka garatzeko hiru esparru bereizi baditugu ere, hauek ezin ditugu modu hertsian ulertu. Batzuetan era naturalago batean, beste batzuetan dinamika, erritmo eta molde desberdinen bidez, baina beti ere elkar eraginean daude. Honela, borroka ideologikoa geure kontzientzietatik hasten denez, beste bi esparruetan ere zeharka garatzen da. Era berean, masa borroka da eraldaketa sozial eta politikorako bermea, besteak beste instituzioak herritarren mesedetara jartzeko.

Bigarren atal honetan, gazteok ziklo politiko honi buruzko irakurketa egin dugu. Gazte Antolakundeak gazte estrategiaren bidez egingo dio bere ekarpena ziklo politikoari; hori izango da gazte antolakundearen bide orria.



A thick white diagonal line starts from the top left corner and extends towards the center of the page, ending just before the text.

GAZTE ESTRATEGIA

3. GAZTE ESTRATEGIA

Ponentziaren lehen atalean sistema kapitalista patriarkala aztertu dugu eta argi ikusi ditugu honek eragiten dituen zapalkuntzak. Bestalde Ziklo Politikoaren irakurketarekin egungo panorama politikoaren irakurketaz gain arrisku eta aukerak identifikatuz askapen prozesuan eragiteko konpromisoan berretsi gara.

Zapalkuntzan oinarrituriko sistema honen baitan ikusi dugu gazteok jasaten dugun prekariedade eta esplotazioa zentzu guztietan. Kateez loturik gaude eta sistemaren pieza izateko hezten gaituzte jaiotzen garen unetik, baina gure eskuetan dago sistema iraultzea eta Euskal Herriko askapen borrokan eragitea, horri erantzutera dator gazte estrategia.

3.1. GAZTERIA ETA IRAULTZA

Duela hamarkada batzuk arte gazteria egun ezagutzen dugun gisan, bizi ziklo gisa, ez zen existitzen. Bigarren Mundu Gerraren ostean, mendebaldeko jendarteetan gailendu zen Ongizate Estatuarekin (ikus, 1.2.3. puntua) pixkanaka pixkanaka gazte izatea bizi ziklo gisa luzatzen hasi zen. Kapitalismoaren beharrian berriek nahiz langile borrokek oinarritzko bizi baldintzen hobetzea eragin zuen eta horrekin, unibertsitate ikasketak, esaterako, sektore zapalduetan ere eskuragarriago egin zituen, besteak beste, lanean hasteko adina luzatuz. Bestalde, kontsumoaren jendartea sortzearekin batera, gazteria modako marka eta publizitate kanpainen produktu bilakatu zen (ikus 1.2.1. puntua).

Sistema kapitalista patriarkala kudeatzen duen boterea gazteriaren izaera eraldatzailearen jakitun da ordea, horregatik ondo neutralizatu beharreko jendarte sektoretzat gauzka. Patriarkatuaren oinarrian dauden balore eta rolen araberrako sozializazio prozesu osoa abiatzen du sistemak, gazteria sistemaren erreproduktzioarako makina bilakatuz. Sozializazio prozesu horretan barneratzeko familia nuklearra bezalako oinarritzko estrukturatik hasi, hezkuntza eta lan sistema autoritario osotik pasa eta masa komunikabideek eta industria kulturalak eskaintzen duten aisialdi ereduraino, bizi eredu kapitalista patriarkala gure eguneroko praktikan txertatzen saiatzen dira.

Bestalde, Egoeraren Azterketa Orokorrean (ikus, 1. puntua) argi ikusi denez, sistema kapitalista patriarkalak ezinbestekoa du herrien, Amalurraren zein genero eta klase zapalkuntza bere biziraupenerako eta etengabeko hazkunderako. Hor kokatzen dira gazteriaren esplotazioa eta zapalkuntza. Hazkunde ekonomikoa bermatzeko kapitalaren errentagarritasuna oinarri hartuta, gazteria prekariedade bizitzera behartuz, sistemaren gurgil zoroan erabat barneratzeraino bizi eredu hau behin eta berriz erreproduzitzen.

Azken buruan, gazteok sistema kapitalista patriarkal honen asimilazio prozesu osoaren baitan kokatuz, beronen menpean hartzea lortzen du. Helduen boterearen menpe hain zuzen ere. Botere hau, sistema kapitalista patriarkala

erreproduzitzen duen subjektuaren boterea da. Gizon zuriaren arketipoak irudikatzen duen helduen boterea hain justu. Helduen botere hori sistema kapitalista eta patriarkalaren zapalkuntzen adierazpidea baino ez da. Helduen boterea zaharra da, indarrean dagoen egoera zapaltzailea, eta bere aurrean eraikitzen dugun botere askatzailea da gazte boterea. Zaharra eta berria kontraesanean daudenez, gazte botere berritzaileak zapalkuntzak gainditzeko gaitasun iraultzailea dauka (Ikus 1.1. puntua).

Edonola ere, ez dago historiaren orrialdeetan gehiegi begiratu beharrik konturatzeko gazteria bera izan dela munduan zein Euskal Herrian eman izan diren iraultza askoren lehen lerroan egon den sektorea. Horren adibide dira 68ko Maiatzeko Iraultza, Euskal Herrian frankismoan sortutako mugimendu iraultzailea (ETAren sorrera zein garai berean izandako kultur berpizkundea barne).

Sistema kapitalista patriarkalak gazteoi gure burujabetza ukatzen digu, norbanako zein kolektibo gisa, sistema bera erreproduzitzen jarraitzeko. Kontzientzia eskuratu, gure buruaren jabe bilakatu eta horren aurrean jarrera aktibo bat erakusten dugun heinean, subjektu iraultzaile bilakatzen gara.

3.2. GAZTE ESTRATEGIAREN HELBURUAK

Gazte estrategia, helburu estrategikoak lortzeko diseinatzeko bidea da. Gazteok geure egoeraren kontzientzia hartu, antolatu eta borrokara biltzeko Gazte Antolakundeak diseinaturiko estrategia da.

Estrategia propioa izan arren, gure jarduera Euskal Herriarentzat jendarte eredu sozialista eta feminista eraiki nahi duen mugimendu iraultzailearen, Ezker Abertzalearen, baitan kokatzen dugu. Hala ere, guk dugu geure estrategia antolatzeko era zein jarduera zehatza zein izango den erabakitzeko eskumen osoa.

3.2.1. Helburu estrategikoak

Gazte Antolakundearen proiektu politikoa independentzia, sozialismoa eta feminismoa da. Proiektu politiko horren egikaritze osoa, pertsona askez osatutako jendarte parekidea, etengabeko aldaketan egongo den eszenatokia; Gazteherria deitu dioguna. Independentzia, sozialismoa eta feminismoa lortzeko, Gazte Antolakundearen helburu estrategikoa Euskal Estatu Sozialista eta Feminista izango da. Baina azken hau helburu estrategikoa izanik ere, Gazteherriara heltzeko oraindik zer egin asko izango da eta beraz, prozesu iraultzailea ez da helburu estrategikoa lortzearekin amaituko.

Gazteherria iparrorratz gisa harturik eta helburu estrategikoa lortzeko, gaurdanik ekin behar diogu bideari, eta horretarako gazteok egin behar duguna burujabetza praktikara eramatea da. Guk geuk geure etorkizun indibidual zein kolektiboa erabakitzea da burujabetza eta honako ezaugarriak barnebiltzen ditu:

1. Erabakitzeke ahalmena duen subjektua nor den aitortzen du. Pertsona burujabea izateak, subjektu iraultzaile gisa aitortzen gaitu, alienazioak gaindituz.
2. Pertsona gisa ez ezik, herri eta klase zapaldu gisa ere burujabeak izan behar gara, independentzia oso gisa ulertuta burujabetza. Ahal den neurrian behar ditugun baliabideak guk geuk produzituz eta bestela elkartasunean oinarritutako harremanen bidez gureganatuz.
3. Subjektu burujabeak ez dira "independentek". Beste subjektuekiko (baita Amalurrarekiko) arduraz eta errespetuz erabakiak hartzen dituen subjektua da. Subjektu sozialak edo kolektiboak eta eko-dependienteak dira, beraz.

3.2.2. Ziklo politiko honetako helburu taktikoak

Helburu estrategikoak betetzera bidean, egun bizi dugun abaguneko elementuak kontuan izanda ziklo politiko honetan bete beharreko helburu taktikoak markatu behar dira. Egoeraren Azterketa Orokorra egitean, zibilizazio krisi sakonean murgilduta gaudela ikusi dugu. Horren aurrean, neoliberalismoak ofentsiba berri bati ekin diola ere ikusi dugu, gazteriaren eta jendarteko sektore ahulenen bizi baldintzen okertzea eraginez. Egoera hau borrokatzea eta bizi eredu berriak eraikitzea izan behar da gure helburua, aurreko ereduak suntsituz eta gurea eraikiz. Eta, Euskal Gazteriak dituen bizi baldintzak hobetzeko tresnak abiaraztea.

Bestalde, Ziklo Politikoaren Irakurketan, askapen prozesuaren strategiaren berregokitzea aztertu dugu, Zutik Euskal Herria ebazpenean bilduta dagoena, eta ziklo politiko honetarako helburuak zehaztu ditugu. Hain zuzen, Prozesu Demokratikoaren bidez Euskal Herriak bizi duen ukazio egoera gainditi, eta erabakitzeke eskubidea aitortuko dion Marko Demokratikoa eskuratzea. Minimo Demokratikoa egikaritzeko ezinbestekoa da Gazteriak dituen eskubide politiko eta zibilak errespetatzea.

Nazio zapalkuntza eta klase zapalkuntzaz gain, generoaren eta Amalurraren zapalkuntzak ere piramide tetraedrikoaren lau aldeak dira. Hala, ENAMek abiatutako estrategia independentista modu integralean ulertu eta gauzatuko dugu gazteok burujabetza praktikan jarritz.

3.3. GAZTE ESTRATEGIAREN FILOSOFIA OROKORRA

Gazte strategiaren bidez Gazteherria eraiki nahi badugu, hau, oinarri sendo baten gainean eraiki behar da, balore iraultzaileen gainean hain zuzen ere. Honela ezaugarrituko da gazte borrokaaren izaera. Oinarri feministetatik egingo dugu iraultza sozialista. Herritik herriarentzat eraikiko dugu herria, gazte estrategia izanik horretarako bide-orria.

Gazte estrategia, herria gaurdanik eraikitzeko baliatu behar dugu, sistema kapitalista patriarkalaren atzaparretan itota egonagatik ezin baikara ezereen zain egon. Ditugun baliabideetatik zein baliabide berriak sortuz, gaurdanik eraiki behar dugu etorkizuneko Euskal Herria aske, sozialista eta feminista. Ezin gara estatu independente baten zain egon edota ezin dugu gauzak aldatuko direnaren itxaropen hutsa izan. Iraultza egunez egun egiten den heinean, herria gaurdanik eraiki behar dugu, apurka apurka, urrats txiki baina eraginkorrek emanaz.

Alta, eraiki beharra dago suntsitu ahal izateko, eta apurtu beharra eraiki ahal izateko. Ideia hau presente izan behar dugu, sistema kapitalista patriarkala eraitsi behar baitugu sozialismoa eraikitzen joateko. Baina era berean, proiektu txikiak eraikiz eta horiek artikulatuz, sistema apurtzen ari garela ulertu behar dugu. Beraz suntsitu eta eraikitzea uneoro uztartu beharreko ideiak dira.

Modu honetan, iraultza gako ofentsiboan, suntsitu-eraiki filosofiarekin, garatuz gero, Gazte Antolakundea eta oro har gazte mugimendua, zapalkuntzen erantzule direnen aurrean, parez pare kokatuko da. Talka behin eta berriz eraginez gatazka politiko eta soziala azaleratuz. Era berean, etsaiaren erantzuna aurreikusi behar dugu, eraso bakoitzari behar duen erantzuna emanaz. Hortaz, sistema kapitalista patriarkalak sortzen dituen zapalkuntzei aurre egitea eta eraso estrukturalak azaleratzen direnean erantzutea ezinbestekoa izango da.

Bide honetan, alternatiba errealak eraiki behar ditugu. Proiektu txikiek egiten dute handi proiektu politikoa. Eta gaurdanik eraikitzen hasi behar badugu, alternatiba errealak martxan jarri behar dira. Honetan, euskal gazteriak hamarkadetako esperientzia izan du: gartzetxeak, espazio okupatuak, proiektu komunikatiboak, aisialdi esparru askeak, kutxa komunala, lur komunalen sarea, elikagaien banku komunala, ekoizpen bitarteko propioak, etxebizitza komunala, desmerkantilizazio prozesuak, baserritargintza, fabriken kolektibizazioa, artisautza... Nolanahi ere, bizi dugun krisi sistemiko honen testuinguruan, pauso bat harago joan behar dugu, gure bizitzaren esparru guztietan bizi eredu berriak praktikan jarri eta alternatiba integralak egikaritzuz. Herri baratzeetatik hasi eta kooperatibetaraino, txanpon sistema propioetatik etxe okupatuetaraino, alternatiba errealak mahai gainean dauzkagu, goazen bada mahaitik kalera eramatera.

Aipatu proiektuak eta oro har, garaturiko borrokek, txikitasunetik handitasunerako logikan kokatzean izaera lokalak ezinbesteko garrantzia hartzen du. Izaera lokalak errealtatearekiko amildegia txikitzen du, hau da, herriz herri, auzoz auzo, borrokek eta proiektuak garatzean lekuan lekuko errealtateari eta beharrei erantzutea dakar. Baina izaera lokala izateak ez du esan nahi perspektiba globala galdu behar dugunik. Jakina baita herri bakoitzeko borrokek elikatzen dutela Euskal Herriko askapen prozesua, eta era berean, Euskal Herriko iraultzak kapitalismo patriarkal inperialistaren aurkako iraultza globala hauspotzen du. Beraz, ezin gara burbuila batean bizi. Izaera lokaleko iraultza globala da gurea.

Eraikuntza guzti hau aurrera eramateko auzolana berreskuratu behar dugu. Berreskuratzeak ez du esan nahi galdua dugunik, indartu beharko dugula baizik. Auzolanean oinarritzeak elkartasuna dakar, kolektibitatea eta guztion parte hartzea. Bestalde auzolanarekin batera autogestioa ere ezinbesteko osagaia da. Dependentsia kapitalistari uko eginez autogestioak burujabe egiten gaitu. Kateak hautsi eta modu independentean urratsak emateko tresna da autogestioa. Berau, ezinbestean, auzolanarekin uztartua ulertu behar dugu. Ez baitu zentzurik autogestioa muturrera eramatea maila pertsonalean, inguruarekiko, hots, jendarte eta Amalurrarekiko elkartasunean eta auzolanean egiten ez bada. Iraultza kolektiboa izan behar baita.

Iraultza kolektiboaz mintzatzen hasita, kolektiboa anitza izan behar da, batasuna aniztasunean lortzen saiatu behar gara. Estrategia ere modu horretan indarrak metatzeko estrategia izan behar da, hau da, estrategia inklusiboa: gazte kolektibo ezberdinekin harremanduz (kolektibo migrantearekin, esaterako). Zenbat eta gazte gehiago bildu gazte strategiaren eta oro har proiektu politikoaren inguruan, orduan eta urrats gehiago emateko parada izango dugu iraultzaren bidean, gure jarrerak praktikan horretarako bide eman behar duelarik. Dena den, ez dugu helburu moduan ulertu behar gazteak batzeagatik batzea.

Gazte mugimenduko espresio ezberdinek eta zentzu orokorrean esparru anitzetan garaturiko praktikek gazte strategiari ekarpena egin diezaioketela ulertzea ere gako garrantzitsua da. Berdin da zein den praktikarako esparrua; kontua da nola egiten den praktika hori, izan kultur taldea, kirol taldea zein talde ekologista. Beraz, edozein ekintzak ekarpena egin dezake. Ekarpene ez baita esparruen araberakoa, norabidearen araberakoa baizik.

Praktikari dagokionean sormena baliatzea ere garrantzitsua da, sorkuntzarako gaitasuna askatuz, proiektua garatzerakoan bide berriak aurkitzeko. Kapitalak sormena kateatu du, bere nahierara erabiltzeko. Horren aurrean, berritzaileak izan behar gara, molde, ekimen zein bitartekoei dagokienez, behin eta berriz gauza bera egitean eraginkortasuna galtzen baita.

Bestalde, historikoki eta batez ere ezkerreko mugimenduetan, atomizaziorako joera nabarmena izan da. Ezberdintasun ideologiko txikien zein handiengatik edota bestelako arrazoiengatik, zatiketa ezkerrearen gaitz nagusienetakoa da. Honen aurrean bai gure inguruan daudenekiko zein hain inguruan ez daudenekiko, jarrera aglutinatzailea izateak indartzea ekar lezake. Ziurrenik eragile ezberdinekin elkarlana bilatzean hainbat talka agerian geratuko dira, baina talken aurrean antzekotasunak ezarriz puntu komunak aurkitu eta etsaiaren aurrean indartzea eraginkorragoa dela pentsatu behar dugu. Hori bai, beti ere jarrera honek gure proiektu politikoari egin beharko dio ekarpena.

Haatik, jakin badakigu gazte bakoitzak bere gustu eta motibazioak dituela, eta horren arabera inplikatzeko delako jardueraren batean edo bestean. Beraz, motibazio guzti horiek estrategia aberasteko gakoak espazio berriak sortu, gazte espazioak identifikatu eta bertan eragitea da.

Gazte estrategiaren filosofiaz hitz egitean, bestalde, ezin dugu ahaztu etengabeko hausnarketa eta autokritika. Ezer ez da absolutua, gakoa helburuekiko eraginkortasunean dago, eta horretarako etengabe hausnartu, eztabaidatu eta begirada kritikoa izan behar dugu. Ez dago dudarik aurrera egiteko hanka behin eta berriro sartu behar dela, gauza berritzaileak planteatzean batez ere, baina pixkanaka akatsetatik ikasiz borroka geroz eta eraginkorragoa bilakatzen da.

Azkenik, Gazte Antolakundeak bere estrategia modu independente batean garatzeko bermeak izan behar ditu. Hau da, jakinik Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren eta Ezker Abertzalearen baitan kokatzen garela eta horrek koherentzia eta arduraz jokatzeko esan nahi duela, Gazte Estrategia gazteon beharretara diseinatu eta garatzeko autonomia izan behar dugu.

3.4. TRESNA: GAZTE BOTEREA

“Mugitzen ez denak ez ditu kateak sentitzen”
Rosa Luxemburgo

XXI. mendean boterea kutsu negatibodun kontzeptu gisa ulertzen dugu. Izan ere, mundua bitan banatzen duen ezaugarrietako bat da hau, boterearen jabe direnen eta ez direnen arteko diferentzia menperatzaile eta menderatuen logika gailentzen da, hau da, botere askatzailea eta botere zapaltzailearen arteko talka.

Kutsu negatibo hori izatea ez da, ordea, kasualitatea. Izan ere, boteregune nagusietako bat izan da tradizioz Estatu kapitalista, eta honen kontrolerako elementu zein botere faktikoen (polizia, komunikabideak, armada...) bidez herritarron gainean ezarritako kontrola bete betean pairatu dugu. Kontrol hori modu oso bortitzean aplikatzen zaigu gazteoi.

Boterea burgesia edota jauntxo eta erregeei esleitu izan zaie. Baina jabetza pribatuaren eta diruaren esparrutik aldentzen bagara, zer da boterea? Guk boterea modu subjektibo baten eta era kolektiboan ulertuko dugu.

Gazte boterea, botere hegemonikoaren aurrean eraikitzen dugun kontraboterea da eta kontrabotere hori mugimendu zabal batek osatzen du. Gazte boterea independentzia, sozialismoa eta feminismoa eraikitzeke dugun strategiaren oinarria da. Kontzeptu honetaz hitz egitean, maila, arlo zein esparru ezberdinetan, gai orokorren zein zehatzen inguruan antolatzen diren gazteez hitz egiten ari gara: gazteri artikulatuaz. Azken finean, bizi eredu askatzaileak praktikan eraikitzea posible egiten duen gazte mugimendu antolatuaz. Bide honetan, kontraboterea izateaz harago boterea lortzeko anbizioa izan behar dugu.

Pertsona orok du bakoitzaren ekintzen izateko gaitasuna. Boterea gutako bakoitzaren barnean dago. Guztiok gara boteredun, guk geuk ematen baitiegu boterea elementu ezberdinei. Obedientzia da gure barneko boterearen

desjabetzea, horrek objektu egiten gaituelarik. Ahalduntzea berriz, objektu pasibo izatetik subjektu aktibo bilakatzearen prozesua da, gure barnean dugun boterea berreskuratzeko tresna, prozesua. Zentzu horretan, boterearen ulerkerara aldatzea ere gure eskuetan da. Ezinbestekoa da gazteok boterea ez neurtzea dirutan (sistema kapitalistaren logikari jarraituz) eta boterearen zentzua balore iraultzaileen gainean jartzea (auzolanean, elkartasunean, konpromisoan...).

Eremu pertsonal horretatik kolektibora jauzi eginez, botereak zentzu osoa irabazten du. Arazo berezitu batzuk ditugun heinean, gazteok kolektibo bat osatzen dugu. Problematika komun bat izateak ematen digu gazteoi kolektibo izaera eta arazoak komunak badira aterabidea ere ezinbestean izan behar da gazte guztiok egikaritutakoa. Modu indibidualean ere borrokatu dezakegu helduen boterearen eta oro har sistemaren aurka, baina gazte boterea balore kolektiboetan oinarritzen dugunez, bakarka ez dugu lortuko gazte botere indartsu bat sortzea. Zuhaitz bateko adar bat apurtzea erraza da, hamarnaka adar elkarrekin batuz gero ordea, ez dira aise apurtzen adarrak. Beraz, gutako bakoitzak duen boterea erabili beharko dugu gazte botere indartsu eta osoa eraikitzeko. Gazte botereak, gazteriaren elkartzeko premia asetzeko eta aldi berean helduen botereari eta sistemari erantzun kolektiboa emateko aukera eskaintzen du.

Talde sentimendu hori da hain zuzen, sistema kapitalista patriarkalaren jo puntuan dagoena. Izan ere, menperatzaileak zapalduak bere egoeraren kontzientzia hartzea eragotzi behar du, jakina baita, menperatua bere egoeraz ohartzerakoan hori borrokatu eta eraldatzen saiatuko dela.

Gazte botereak subjektu iraultzaileak izan behar ditu oinarrian, hausnarketa, kritika eta autokritika lanabes izango dituen, kontrabotere iraultzailea osatuz. Zentzu horretan, subjektu dinamikoa, kontzientea, bizia, jantzia eta antolatua izango da gazte botereak eratzen duena, burujabetza esparruak eskuratuz joango baita.

Gazte botera eraikitzeko norabidean, ezinbestekoa izango da gazte kontzientzia zabaltea: kolektibo zapaldua gaila aditzera ematea. Eta kontzientzia zabaldu ahala gazte guzti horiek antolatzea ere ezinbestekoa da, gazte boterea progresiboki handitzen joan dadin.

Gazte boterea jotzen dugu gazte estrategiaren ardatz nagusitzat. Gazteon botere hori izango baita iraultzaren ezinbesteko bermea. Sistemak ukatzen digun guztia eskuratu eta balore justu eta askeetan oinarritutako jendarte eredu eraikitzea posible egiten duena da gazte boterea.

Gazteoi ukatu egiten zaigu burujabetza eta zentzu horretan, garrantzitsua da gu geu izatea gure buruen jabe eta horretarako beharrezko tresna da boterea eskuratzea. Gazteok boterea berreskuratu behar dugu zapaltzen gaituzten botere faktikoen kontra egiteko baina baita guk geuk nahi dugun bizi eredu sortzeko.

3.4.1. Gazte mugimendua

Euskal Herriak azken 50 urteetan izan duen fenomenorik indartsu eta garrantzitsuena izan da herri mugimendua. Hasi Ez Dok Amairu edo ikastolen mugimendutik eta gaurdaino bidean sortu diren beste hamaika mugimendu gure herriko kontzientzien astintzaile eta herritarren aktibaziorako espazio edo eremua izan da herri mugimendua: euskalgintza, mugimendu feminista, kultur mugimenduak, mugimendu ekologista, okupazio mugimendua, ikasle mugimendua, mugimendu internazionalista, langile mugimendua...

Mugimendu guzti horietan sektore garrantzitsua izan da gazteria. Borroka guztien lehen lerroan egon izan dira gazte belaunaldiak. Eta noski, tartean da gazte mugimendua ere. Gutxienez 40 urteko ibilbidea duen mugimendua hain justu. Gazteon arazoak historikoki mahaigaineratu dituen mugimendua izan da: espazio autogestionatuen aldeko borroka, sexualitatea, hezkuntza, drogak, soldaduska, feminismoa, internazionalismoa, kultura, hizkuntza...

70eko hamarkadaren bigarren erditik aurrera gazteon kezka borrokatu eta bideratzeko bizi bizirik egon den mugimendu anitza izan da gazte mugimendua. Bere zikloak eta gora beherak izan dituena, forma ezberdinak hartu dituena, baina orokorrean garai berrietara egokitzen jakin duena. Hor dago arrakastaren gakoa.

Mugimenduak pentsaera ezberdinetako gazteak biltzen jakin izan du, kezka ezberdinak lantzeko espazioak eskainiz eta bakoitzak nahi duenetik edo ahal duenetik itsaso zabalean ur tanta izanez. Helduen boterearen aurreko eta botere zapaltzaileen aurreko benetako kontra boterea. Botere faktikoentzat mehatxu etengabea, bizi eredu alternatiboen sehaska.

Urteetako borrokaren perspektiba izanda, gaur bizi dugun zibilizazio krisiaren lentearekin atzera begiratuta, ozen esan genezake gazte mugimenduaren analisi eta aldarrikapenek askotan asmatu dutela sistema kapitalista patriarkalak zeraman norabide auto-suntsitzailea. Ez hori bakarrik, egoerarik okerrenak aurreikusi eta hauei erantzuten asmatu du.

Gazte eremu anitz eta zabala da, espresio ezberdinen gune eta hori da mugimenduaren indargune nagusia. Egungo jendarte ereduaren aurrean irudimenez jositako alternatiba txiki baina errealak egikaritzeko gaitasuna baitu. Sistema kapitalista eta patriarkala suntsitu eta eredu alternatiboak eraiki, autogestioa eta auzolana oinarri hartuta.

Euskal Herrian gaur egun dagoen gazte mugimendua anitza da. Autogestionatua, autoeratu eta autonomoa den mugimendu bizia da gazte mugimendua. Baina era berean, plazer hutsagatik antolatzenetik harago, egungo panorama sozial, ekonomiko zein politikoek eragindako ezinegon batzuk bultzatuta autoeratzeko diren gazte multzoek osatzen dute gazte mugimendua. Zentzu horretan, gazte mugimendua iraultzailea eta errebeldea da.

Gazte mugimendu indartsua izatea estrategikoa da beraz, Euskal Estatu Sozialista eta Feminista eraikitza bidean, nahiz eta mugimenduaren baitako subjektu batzuek sarri helburu estrategiko hauek guztiz ez konpartitu. Helburu estrategikoekin guztiz bat egin gabe ere, guztion helburua baita bestelako jendarte eredu eraikitzea, eta horrek elkarlanerako ate mordo irekitzen dizkigu.

Hala, gazte strategiaren erdigunean kokatzen dugu gazte mugimendua. Gazte boterea gazte mugimenduan artikulatzen da, gazte boterearen norbanako adierazpide oro bertan antolatzen baita. Zentzu horretan, Gazte Antolakundeko kideok gazte mugimenduko kideak gara eta Gazte Antolakundea bera ere gazte mugimenduko beste eragile bat gehiago da, proiektu politiko propioa duena eta defendatzen duena: independentzia, sozialismoa eta feminismoa.

Zentzu horretan, Gazte Antolakundeko kideon zeregina da gazte mugimenduan lan egitea, elkarlanean eta auzolanean. Bakoitzak, norbanako gisa, eta kolektiboaren beharren arabera, bere usteak mahai gaineratuz eta guztien artean adostasunera iritsiz, buruz buru lan egitea.

3.4.1.1 Gazte Antolakundea

Gazte Estrategiaren helburua Euskal Herri sozialista eta feminista dela esan dugu 3.2. puntuan. Baita horretarako izango dugun tresna gazte boterearen artikulazioa izango dela ere. Euskal Herriko gazteria anitza da 1.2.7.1. puntuan garbi geratu denez. Era berean, gaur egungo ereduaren kontra edota beste eredu baten alde antolatzen den gazte oro gazte mugimenduan antolatzen gara, atal honen lehen zatian ikusi dugunez.

ENAMen baitako lehen Gazte Antolakundea, Jarrai, gazte problematika gainditzeko alternatiba erreal gisa Independentzia eta Sozialismoaren alde lan egiteko jaio zen duela 33 urte. Gaur definitzen ari garen Gazte Antolakunde honek, egungo testuingurura egokituta, helburu horiek lortzea du xede. Zentzu horretan, Ezker Abertzalearen zutabe estrategikoetako bat da Gazte Antolakundea.

1.3.1. puntuan aipatu dugun lez, gure proiektu estrategikoa bidean eraikitzen ari gara, iraultza soziala egunez egun eginez eta norbanako zein ideia berriei atea irekita utziz. Zentzu horretan, Antolakundeak berak ere, egitura zurrun eta hertsia izatetik harago, mugimenduak duen izaera dinamikoa izan behar du, konpromiso maila ezberdinak uztartu, antolatzeko espazioak eskainiz eta proiektura gero eta gazte gehiago biltzeko aukera emanez.

Era berean, Gazte Antolakundeak ikuspegi nazionala du, nahiz eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan ez antolatu.

Gazteherria eraikitza bidean, Gazte Antolakundeak izaera feminista, sozialista, independentista, internazionalista, ekologista eta euskalduna izango du. Era

berean, ondoko ezaugarriak izango ditu Antolakundeak:

1. **Autonomoa:** Gazteon burujabetzaren aldarrikapenaren baitan, Gazte Antolakundeak bere estrategia eta tresna propioak ditu, bere burua ezker abertzalearen baitan kokatuz.
2. **Iraultzailea:** Nazio askapenerako antolakunde sozialista iraultzailea da Gazte Antolakundea, egunez egun errotik eragindako eraldaketa borrokatzen duelako. Norabide horretan, inkonformista eta errebeldea da. Eta errealitatea ulertzeko marxismo eta dialektikaren oinarriak aintzat hartuko ditu.
3. **(Auto)Kritikoa:** Egoera, testuingurua, etengabeko aldaketan dago eta iraultza soziala helburu duen mugimendua egoeraren argazki osoa ateratzeko gai izan behar da bere jardun politikoa norabidetzeko. Zentzu horretan, ezinbestekoa da antolakundeko kideek jarrera (auto) kritikoa izatea, testuinguruaren azterketa propioak egiteko. Aurrera egin ahal izateko, kritikak eraikitzaileak izan behar dira

Izaera eta balore hauetan oinarritutako praktika garatuko du antolakundeak eta baita bertako kidegoak ere (ikus 3.4.1.1.4.1. puntua).

Izaera finkatuta, Gazte Antolakundearen bidea iraultza soziala denez, benetan eragingo badu, beharrezkoa izango da teoria eta praktika uztartzea. Leninek esan bezala “ez dago teoria iraultzailerik praktika iraultzailerik gabe, eta alderantziz”. Izan ere, uneoro hausnarketa teorikoetan korapilatzen den antolakundeak nekez alda dezake errealitatea, eta aldiz praktika hutsak edo aktibismo hutsak ere ez du borrokaren iraunkortasuna bermatzen. Erroko aldaketak emango badira, iraupen luzeko lasterketa izango da hau.

Gazte Antolakundeak bere praktika garatzeko eta bidean norabidea ez galtzeko ikuspegia izan beharko du, egoera zoom-a zabalduz begiratu, aztertu eta erabakiak hartzeko. Horrez gain, bere lan teorikoa zein praktika berritzailea izan beharko da. Azkenik, garatzen duen diskurtso eta batez ere praktika koherente eta eredugarriaren ondorioz gazteriaren erreferente izateko grina izan behar du Gazte Antolakundeak, beti ere, dirigismoan erori gabe.

3.4.1.1.1. Funtzioak

Askapen prozesuaren baitan Gazteherriaren bidean, independentzia, sozialismoa eta feminismoa eraikitzen joango gara. Prozesu honetan Gazte Antolakundeak hainbat funtzio bete behar ditu. Funtzio hauek hamaika badira ere guztiak norabide berean ulertu ahal izateko bi funtzio nagusi izango dira gainontzekoak barnebilduko dituztenak; nazioa eraikitzea eta gazte boterea artikulatzea, iraultza soziala eginez.

Herria eraikiz, nazioa eraikitzea izango da Gazte Antolakundearen zeregin

nagusia. Aurrez aipaturiko filosofiarekin koherentzian, gaurdanik independentzia, sozialismoa eta feminismoa eraikiko dugu.

Hortaz nazio eraikuntzan oinarrituko da gure jarduna. Nazio ikuspegiarekin alternatibak martxan jarritz, gure eredu, eredu independentista, sozialista eta feminista, eredu kapitalista eta patriarkalarekin talkan jarriko dugu. Independentzia, jatorrizko herri baten nazio zapalkuntzaz harago burujabetza osoa lortzeko bidea bezala ulertuz.

Bestalde nazioa eraikiz, egungo bizi baldintzei eta zehazki gazte problematikari erantzun diogu, gazte problematiken aurrean erantzuleak salatuz eta alternatibak proposatu eta egikaritzuz. Baina beti ere modu eraikitzaile batean, alternatibak martxan jarritz. Hauek txikiak izanagatik ere gure ereduaren isla izango baitira. Modu honetan gazte problematikaren bozgorailu izango da Gazte Antolakundea.

Gazte eremu orotan egon behar dugu arazo eta lehentasunak identifikatzen, zapalkuntzak agerian uzten zein alternatibak martxan jartzen, izan lokalak, heziguneak, sare sozialak, aisialdi guneak, lan eremuak... kaleak astindu behar ditugu. Gatazka ezin da makropolitikan edota bulegoetan sukaldatu. Iraultza kalean egiten da eta kalea gurea izan behar da.

Honegatik guztiagatik Gazte Antolakundearen lehentasuna gazte botere indartsua artikulatzea izango da. Gazte botere ahalik eta indartsuena kontraboterea indartsua izan dadin. Gazte boterea artikulatu esatean, gazteria aktibatzeaz eta formatzeaz hitz egiten ari gara, gazte borroka hauspotzeaz, gazte mugimenduko espresio ezberdinekin elkarlanean borrokak garatzeaz, ahalik eta gazte iraultzaile gehien batzeaz.

Hau guztia egiteko hortaz, ezinbestean gazteriarengan eragin behar dugu, hau da, gazte boterea artikulatu behar dugu nazioa eraikitze bidean. Gazterian eragin eta gazte boterea artikulatu ahal izateko antolatze espazio ezberdinak identifikatu eta aktibatu behar ditugu, gazteok hamaika esparru ezberdinetan burutzen dugu gure jarduna eta guztietatik hondar aleak pilatu behar ditugu.

Modu honetan Gazte Antolakundearen ardura da, gazte mugimenduko ezin espresio ez oztopatzea gazte botere indartsua artikulatu nahi badugu, hau da, sistemaren aurrean ahalik eta kontrabotere indartsuena sortu, jakinik gazte botere horretan espresio ezberdinak egongo direla. Kontutan hartuz, betiere, militanteon lan eredu gardentasun, zintzotasun, umiltasun eta errespetuan oinarrituko dela eta subjektuak ez direla helburu inondik inora ere.

Bestalde, Euskal Herriko gazteria hamaika errealitate bizi dituen kolektiboa izanagatik, zatiketa administratibo inposatuek errealitate horien ezagutza eta amildegi kulturala eragin dituzte gure artean. Inoiz herri bat izango bagara, beharrezkoa da gaur egundik ezagutza hori sustatzea.

Zentzu horretan, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako gazte antolatuekin harreman iraunkorra garatzea izango da gure zeregina, estrategia nazionala finkatu eta garatzeko. Gure helburua, elkarlanean gazte estrategia nazionala modu eraginkorrean garatzea izanik ezinbestekoa da zentzu horretan ere mugak hautsiz gazte boterea artikulatzeko urratsak ematea. Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako gazte guztiok osaturiko gazte boterea eraiki behar dugu, guztiona izango den nazioaren eraikuntzan pausuk emanaz.

Nazioa eraikitzeke zein gazteriarengan eragin, aktibatu eta gazte boterea artikulatzeko ezinbesteko tresnetako bat formazioa da. Hau ere gure ardurua izanik, ahalik eta gazteria kritiko, intsumiso, desobediente eta oro har iraultzaileena izateko, formazioa eta kontzientziazioa iraunkorki eta ahalik eta modu zabalenean landu behar dugu. Horretarako eskuartean ditugun bitarteko guztiak baliatu behar ditugu eta baita tresna berriak sortu ere.

Bestalde, ziklo politikoaren atalean ikusi dugun bezala, ziklo politiko honetan beharrezkoa da iraultza sozialaren norabidean independentismoak lidergoa hartzea eta horretarako gatazkaren konponbidean urratsak ematea. Hori da ezker abertzaleko antolakundeok dugun erronka. Hortaz, Euskal Herriak pairatzen duen gatazka politikoari ere aipaturiko funtzio orokor hauen logikan erantzunez egingo dugu ekarpena. Gazteria artikulatuz erantzungo diogu Estatuen itxikeriari, kaleak astinduz.

3.4.1.1.2. Lan Ildoak

Ziklo politiko honetako helburuak lortzeko (ikus 3.2.1. puntua) eginbehar nagusia, proiektu estrategikoaren norabidean burujabetzaren aldeko gazte masa eratu eta aktibatzea da. Zentzu horretan, nazio eraikuntza oinarri, Euskal Herria sozialista eta feminista gaurdanik eraikitzen hasi behar gara: batetik, gazteriaren arazoei aurre eginez eta eraikiz, eta bestetik, nazio gatazka konpondu eta marko demokratikoa eskuratzea xede izanda. 1. eta 2. puntuetan identifikatutako erronka orori heldu beharko die Gazte Antolakundeak.

Erronka horiei herriz herri erantzun beharko die Gazte Antolakundeak. Tokian tokiko strategiak eta plangintzak diseinatu eta garatu beharko ditugu lehen aipatutako helburu orokorrak lortzeko. Beraz, herri bakoitzak hautatu beharko du bere analisi eta errealitatearen arabera zein ildo garatuko duen.

Halaber, gerta daiteke, gertaera zehatz batzuen aurrean, testuinguru zehatzetan, Gazte Antolakundeak eremu guztietan (herrietatik nazionalera) erantzun behar izatea.

Haatik, aipatutako bi helburuen erdiespena ez dugu bide paralelo gisa ulertzen. Marko Demokratikoaren erdiespena proiektu sozialista eta feministaren bidean behar dugun helburu taktikoa da. Beraz, estrategia independentista eta iraultza soziala bide bakarra dira. Zentzu horretan, Nazio eraikuntzaren bidez, burujabetza

praktikan jarritz, Bizi Eredu berriak eraikitzea da Gazte Antolakundearen lan ildo nagusia.

3.4.1.1.2.1. Bizi Eredu berrien eraikuntza.

Egoeraren azterketan egindako analisiaren arabera (1. puntua) sistema kapitalista patriarkala birmoldaketa fase batean murgilduta dago. Neoliberalismo basatiagoa (modu guztietako zapalkuntza eta esplotazioak areagotuz) edo feminismoan eta sozialismoan oinarrituta, bizitzaren mesedera eraikitako bizi modu jasangarria eraikitzea dago jokoan. Batak, pertsonen eta Lur planetaren desegite kaotikoa dakar, besteak, pertsonetikiko eta Amalurrarekiko errespetuan oinarritutako bizimodu ona, 1. puntuaz aztertu bezala.

1.4. puntuaz ikusi dugunez, guri Euskal Herritik dagokigu jendarte justuagoa eraikitzen jarraitzea eta horrek ezinbestean bestelako bizi ereduak eraikitzea izan behar du oinarrian, hots, norbanakoaren iraultzatik hasitako iraultza soziala. Bizi modu hori egungo gazte problematikari aurre eginez eraikitzea dagokigu, bizi baldintzak borrokatuz, zapalkuntzak azaleratuz eta proiektuak eraikiz.

Bizi baldintzak, pertsonak sistemaren baitan bizitzeko dituen baldintzak dira. Sistema kapitalista eta patriarkalak baldintza horien prekarizazioa ekarri duela baieztatu dezakegu; sistemaren logika kontsumista, patriarkal eta indibidualistari erantzuten dioten baldintzak bihurtuz.

Bizi baldintza horiek ez ditugu borrokatu behar Ongizate Estatua berreraikitzeko. Eraiki nahi ditugun bizi ereduak posible egingo dituen bizi baldintzak dira borrokatu behar ditugunak. Bizi eredu alternatiboa irudikatu eta bertan edukiko genituzkeen baldintzak sortzen hasi behar gara.

Bizi Eredu berria eraikitzeko gakoa burujabetza praktikan jartzea da, gazteok kontzientzia iraultzailea gureganatuz eta herri burujabea eraikiz. Beraz, Gazte Antolakundeak diseinaturiko estrategia komunikatiboak burujabetza du oinarri. Hori izango da tokian tokiko borroka guztiei izaera bateratua emango dien diskurtso orokorra.

Gazte Antolakundearen funtzioa izango da bizi eredu berriak eraikitzeko alternatibak diseinatu eta martxan jartzea. Alternatiba hauek tokian tokiko estrategien baitan kokatuta joan beharko dira, herri zein eskualdeen garapena helburu izanda eta gazte ikuspegitik bizi eredu berriak eraikitzena begira. Bide horretan, gune aske eta iraultzaileak sortzea garrantzitsua izango da alternatiba horiek garatzeko tresna gisa.

Sistema kapitalista eta patriarkalak eskaintzen dituen bizi baldintzekin, bereziki krisiak zer nolako ondorioak dakartzkigun ikusita, Gazte Antolakundeak proiektu errealak sortzeko eta martxan jartzeko gaitasuna izan behar du. Gazteok arlo askotan ditugu ikasketak, ezagutza eta esperientzia. Ezagutza guzti hori baliatu behar dugu, esparru ezberdinetarako proiektuen bideragarritasuna aztertu eta

diseinatzeko. Militantzia esparrua gure bizitzako gainontzeko esparruetatik (lan esparrua, era guztietako harremanak, ikasketa esparrua, aisialdia...) modu zurrun batean bereizten dugu sarri. Gainontzeko esparru horietatik jasotzen dugun ezagutza guztia militantzia garatzeko baliatu behar dugu, hau da, bizi eredu berriak eraikitzeko.

Alternatiben eraikuntzak elkarlana izango du oinarri. Ahal den heinean esparru ezberdinetan lanean diharduten eragile zein norbanakoekin batera egikaritutako dira proiektu ezberdinen diseinua zein garapena.

Alta, bizi eredu askatzaileak eraikitzen bidean, badira Gazte Antolakundeak ezinbestean garatu beharreko ildo espezifiko batzuk. Esan bezala, hauetaz gain herri edo auzo bakoitzak, bere errealitateari egokitutako ildoak garatuko ditu.

Formazioa

Behin baino gehiagotan aipatu dugu formazioaren garrantzia. Aldaketa sakonen testuinguru honetan Gazte Antolakundeak formazio mintegi eta eskolak sustatu beharko ditu urte guztian zehar, tokian tokiko eskaintzak eginez zein Euskal Herriko gazte guztiei eskaintza eginez, militanteoi nahiz gazteruari begira. Elkarlana funtsezko elementua izango da formazio mintegi zein eskolak antolatzeke garaian.

Gazte Antolakundeak, ordea, ezin du formazioa modu horretan soilik ulertu eta garatu. Formazioa zehar lerroa da, teoria eta praktika. Etengabe egin beharreko lana da formazioa. Hala ere, ezin dugu sistemaren balore paternalistak erreproduzitzen irakasle/ikasle binomioa finkatu. Denok dugula elkarrengandik ikasteko zerbait, hori da Gazte Antolakundearen abiapuntua. Inoren zain egon gabe, kide orok dugu auto-formaziorako betebeharra.

Feminismoa

Iraultza ulertzeko eta garatzeko ezinbesteko oinarria da feminismoa. Sexuen banaketak sortzen duen genero zapalkuntza gaingintzeko teoria eta praktika multzoa bada, errealitate osoa errotik aztertu eta egungo sistemaren egitura osoa eraldatzeko tresna izan behar da.

Horregatik, gazte estrategiaren helburuak lortzeko, zein bide osoan jarduteko ere, Gazte Antolakundearen funtsezko ardatza da feminismoa. Arlo huts bat baino, ildo estrategikoa da, borroka osoaren oinarria. Hezkidetzan eta parekidetasunean oinarrituriko baloreetan sustraiturik egongo den Gazteherri askea eraikitzeke helburuarekin, barnera zein kanpora begira jorratuko dugun bidea.

Herri eta norbanako aske izatea ukatzen digun egiturazko zapalkuntza honen aurrean ekiteke, Gazte Antolakundearen egiturazko balore feministak dituen tresna izan behar da izaeran eta praktikan. Antolakundearen osatzen dugun kide guztiok subjektu iraultzaile feministak izateke bidean etengabeko lanketa garatzeko

ardura eta konpromisoa hartuz. Botere harreman eta jarrera sexistak ezabatu eta jendarte eraldaketarako urratsak errotik emateko. Gure buruen jabe izan eta askatzeko tresna da feminismoa. Norabide horretan, barne mailako harremanei eta funtzionamenduari dagokienean zein formazio ideologiko eta borroka ildoetara begira prozesu iraunkorra garatuko du Gazte Antolakundeak, amaierarik gabekoa eta fase ezberdinetan garatuko duguna.

Herri/auzo bakoitzean barne zein kanpo egoeraren analisisa egin eta bertan eragiteko moduak jasoko dituen tresna izango da. Bide honetan feminismoaren baitan jarduten duten eragileekin batera elkarlanerako zubiak eraikiko ditugu, bereziki mugimendu feminista eta sexu askapenerako mugimenduarekin.

Internazionalismoa

Egoeraren azterketan egindako analisisan esan bezala, kapitalismoaren aukako borroka borroka globala da nahiz eta zentzu lokala hartu. Hamaika herrik mila kolore dituen borroka bakarra garatzen dugun heinean, ezinbestekoa da Gazte Antolakundeak ikuspegi internazionalista bat garatzea. Beraz, Gazte Antolakundea internazionalista bada, beharrezkoa da militanteok praktika eta ikuspegi internazionalista izatea.

Hortaz, gure aldetik elkartasun internazionalista lantzea bizi ereduaren baitan azpi ildo berezitua da, baina zehar lerro izateko helburuarekin. Elkartasun internazionalista, zapalkuntzaren aurrean elkartuz, baina baita bizi eredu askatzaile baten eraikuntzan batuz ere. Praktika internazionalistak, munduko beste herrietako eragileekin zubiak eraiki eta proiektuak garatzeko aukera ematen du.

Elkartasun internazionalista bi norabidetako elkartasun bezala ulertu behar dugu. Badugu zer ikasi gainontzeko herrietatik, eta badugu zer kontatu eta elkartrukatu.

Aliantzak artikulatu behar ditugu munduan barna. Harremanak landu. Horrek guztiak ikasi eta irakasteaz aparte indartzea ere eragingo duelako. Gure askapen borrokari oihartzuna emateak indartu eta elikatu egiten baitu borroka bera. Zentzu horretan, egin dezakegun ekarpenik handiena gure proiektua bera burura eramatea da.

Hezkuntza formala

Hezkuntza eremu estrategikoa da sistema kapitalista patriarkalarentzat, hezkuntza sistemak egungo bizi ereduaren arabera hezten baikaitu pertsona oro, bere biziraupena bermatuz. Zentzu horretan, bestelako bizi ereduak eraikitzen bidean ere estrategikoa da hezkuntza eremuan ikasleok subjektu iraultzaile bilakatu eta bestelako hezkuntza sistema eraikiko duen estrategia osoa garatzea.

Zentzu horretan gure proiektu politikoa Euskal Eskola Nazionalaren proiektuak

egikaritzen du hezkuntza arloan. Hau horrela izanda, ahalik eta modu eraginkorrean lan egin behar dugu.

Ikasle Abertzaleak Ikasle Antolakundeak eskola eredu iraultzeko Ikasle Estrategia osoa diseinatu du bere VI. Kongresuan. Hezkuntzatik, Euskal Herria eraikitzeko diseinatutako estrategia hau, Gazte Antolakundeak bere egiten du eta beraz ez du ildo propiorik garatuko. Bide horretan, harreman etengabea mantenduko du Ikasle Abertzaleak antolakundearekin.

Bizi ereduaren ildoaren baitan ulertzen ditugu gainontzeko ildoak eta herriz herri errealitatearen araberrako borroka garatuko ditugu, baina halaber, badira zenbait ildo azpimarragarriak direnak, derrigorrezko lanketa iraunkor bat izango ez badute ere kontutan hartu beharko ditugunak:

Euskara: Euskal Herria alor ezberdinetatik zapaltzen dute estatuak. Gure herria desagerrarazteko estrategiaren baitan, euskararen aurkako erasoak etengabeak dira. Era berean, Euskal Herri aske bat nahi badugu ezinbestekoa da beraz euskalduna izatea, euskara baita gure herriaren adierazle nagusienetako bat. Gazte Antolakundearen jarduna euskalduna izan dadin bitartekoak jarri beharko ditu antolakundeak.

Ekologismoa: Egoeraren azterketa orokorrean ikusi dugun bezala, sistema kapitalista patriarkalak pertsonaren zapalketa ez ezik luraren suntsipena ere badakar. Gazte Antolakundeak bere jardunean praktika eta diskurtso ekologista garatu beharko du. Zentzu honetan beharrezkoa da gure eguneroko bizitza naturarekin orekan garatzea.

Sozioekonomia: Egoeraren azterketa egiterakoan ikusi dugunez, sistema kapitalista patriarkalak bere muga jo du eta sistema horren agorpena agerian gelditu da. Bizi dugun zibilizazio krisiaren aurrean geroz eta nabarmenagoa da aldaketa baten beharra jendarteko sektore handi baten artean, batik bat, gazteriarengan. Gazte Antolakundearen zeregina izango da bizi baldintza duinak borrokatu eta bestelako bizi eredu berria eraikitzea. Zentzu horretan, Gazte Antolakundeak burujabetzaren aldeko gazte masa sortu eta aktibatu beharko du baina horrez gain, ezinbestekoa izango da gazteok burujabetza praktikara eramatea; gazte burujabeak izatea. Sistema kapitalista eta patriarkala zalantzan jarri eta bizimodu ona izatea ahalbidetuko diguten alternatibak eraiki behar ditugu, elkarlanean eta balore askeetan oinarrituta.

Hezkuntza ez-formala: Hezkuntza formala eta familiarekin batera, hezkuntza ez formala pieza garrantzitsua da sistemaren erreproduktzioarako, balore kapitalista eta patriarkalen araberrako sozializazioan ezinbesteko esparrua da. Kate hori mozte aldera, Gazte Antolakundeak balore askeetan oinarritutako aisialdi eredu eskaini behar du egungo eta etorkizuneko gazteentzako. Balore feminista eta sozialistetan hezi eta bizitzeko aukera eskaini behar du aisialdi eredu berri horrek.

3.4.1.1.2.2. Gatazkaren konponbidea.

Puntuaren hasieran aipatu dugu estrategia independentista eta iraultza soziala bide bakar gisa ulertzen ditugula. Zentzu horretan, Marko Demokratikoaren erdiespenarekin gatazkak ez dira erabat konponduko, horrek Euskal Herriak nazio gisa duen erabakitzeko eskubidearen aitortzari erantzuten baitio. Baina, hortik aurrera ere izango dira gatazkak Euskal Herria sozialista eta feminista eraikitzeko, gatazkak baitira borroka ororen funtsa, aurrera egiteko ezinbesteko elementuak. Atal honetan, ordea, Marko Demokratikoa erdiesteko garatu beharreko ildoak eta filosofia azaltzen dira.

2. puntuan (Ziklo Politikoaren Irakurketa) ikusi dugunez helburu estrategikoak erdiestera bidean ezinbesteko geltokia izango da nazio gatazka konpontzea; hau da, Euskal Herria aitortu eta erabakitzeko eskubidea aitortzea eta urteetako gatazkak eragindako ondorioak gainditzea.

Hori dela eta, gatazkaren konponbidearen ardatz nagusi bezala ikusten dugu Amnistiaren aldarrikapena. Amnistia bere zentzu zabalean ulertzen dugu. Errepresaliatu politikoak egotea eragin duten arrazoen gainditze bezala hain zuzen.

Zentzu horretan, Gazte Antolakundearen zeregina da konponbidearen arloan urratsak ematea eta eman araztea. Beti ere Gazte Antolakundeko militantzia osoa kontuan hartuz eta aurretik adostuta. Gatazkak bizirik dirauela ikusarazi eta kaleak astintzea da Gazte Antolakundearen egiteko nagusia, gazteria aktibatuz. Horrez gain, beste maila batean eta beti ere modu osagarrian, bestelako tresnak ere baliatu ditzake: eragile politiko eta sozialekin akordioak sustatu zein existitzen direnetan eragin (Gernikako Akordioa, Aiete...)gure marra gorriak errespetatuz.

Gazteok aktibo izatea ezinbestekoa da gatazkaren konponbidean eragiteko eta urratsak ematen jarraitzeko.

Gazte Antolakundeak, Ezker Abertzaleko antolakunde gisa, maila guztietan politikoki eragiteko betebeharra du diskurtso propioak garatuz. Norabide horretan, honako ildoak landuko ditugu besteren artean: preso eta iheslarien ildoak, desmilitarizazioaren ildoak: alde hemendik, memoria, egia eta aitortza, epaiketen aurreko erantzuna, autodeterminazio eskubidea, inposaketak...

Testuinguruak agintzen duenaren arabera, tokian toki herri bakoitzari dagokio zein gai landuko duen zehaztea. Era berean, nazio mailan ere ildo hauek landu beharko dira, gertaera zehatzen aurrean posizio politikoa azalduz. Hala ere, aukera egon liteke gatazkaren konponbiderako markoak herrietan ere sortzea. Gertaera berezien aurrean Gazte Antolakundeak eremu guztietan erantzun beharko die.

3.4.1.1.3 Komunikazioa

Komunikazioa Gazte Antolakundeak bere helburu politikoak lortzeko duen tresna da. Indar metaketan oinarritutako estrategia garatu behar dugu eta borroka ideologikoa bere zentzu zabalenean garatzeko, zein masa borrokan indarrak biltzeko lanabesak ematen dizkigu komunikazioak. Komunikazioa kontzientziak astindu eta sistema bera zirikatzeke eraiki nahi dugun kontraboterearen isla bilakatu behar da.

Estrategia politikoaren azala edo kanpoko itxura izatetik harago, zerbait estetikoak izatetik harago, helburu politikoak betetzeko diseinatzen dugun strategiaren zurtaina da komunikazioa. Orain gauden unea eta tokia gure helburu politikoekin lotzen dituen haria da.

Izan ere, indarrak metatzeko eta helburu politikoak betetzeko funtsa, gazterian konfiantza sortzea da. Gure hartzailea xehatzeko eta arazoak identifikatzeko tresna da komunikazioa. Arazo horiek identifikatuta, gazteriaren konfiantza eta babesa lortzeko diskurtso eta posizio egokia zein diren zehazteko beharrezko elementu analitikoak eskaintzen dizkigute komunikazioak.

Gazteriaren arazoak eta gure helburu politikoak lotuko dituen kontaketa osatu behar du beraz, Gazte Antolakundeak. Ezin dugu ahortzi informazioz saturatutako jendartean bizi garela, egunero egunero milaka mezu eta irudik bonbardatzen gaituztela. Ondorioz, gure mezua ondo xehatu eta ideia simple bat garatzea da Gazte Antolakundearen betebeharra.

Herri eta auzoetan, gure praktika da jendearekin dugun lehen kontaktua. Gure gorputza komunikazio adierazpidea da eta gure jarrerak eta proiektzioak berebiziko garrantzia dute. Baina horrez gain, ezinbesteko elementu komunikatiboa dira Gazte Antolakundearen izena eta logotipoa ere. Antolakundeak jendearekin duen lehen kontaktu bat gehiago da marka. Irudien saturazio horretan, garrantzitsua da markak gazte izaera eta jarrera bat transmititzea eta baita gure proiektu politikoarekin lotzea ere. Era berean, markak ahalbidetzen du esfortzu handirik egin gabe, diskurtsoaren eta subjektuaren (Gazte Antolakundearen) arteko lotura egitea. Alta, marka irudiaren lanketa egitea eta edukiz janztea epe luzeko lana dela ere kontuan izan behar dugu.

Estrategia guzti hori garatzeko komunikazioak bi eremu garrantzitsu barnebiltzen ditu: barne komunikazioa eta kanpo komunikazioa. Eremu bakoitzean diseinatzen ditugun helburuen arabera erabakiko dugu gauza bakoitzerako zein tresna erabili behar dugun, zein tresnak duen eraginkortasun politiko handiena.

Barne komunikazioak kanpora begira garatu nahi dugun praktikaren eredu izan behar du, barne mailan egiten den guztiak bere isla izaten baitu kanpo proiektioan. Zentzu horretan, barne komunikazioak eredugarria izan behar du parte hartzeari dagokionean, harremanei dagokienean eta antolakundearen izaerari dagokionean. Barne komunikazioari ondoko funtzioak egozten dizkiogu:

talde sentimendua indartzea, formazioa, informazio trukaketa, hausnarketa eta eztabaidarako guneak indartzea eta dinamikak bultzatzeko guneak sortzea. Funtzio horiek betetzeko, tresna eta bitarteko ezberdinak sortuko ditugu.

Kanpo komunikazioari dagokionean, komunikazioarekiko ikuspegi zabala izatea beharrezkoa da. Transmititu nahi dugun ideiaren araberako jarrerak, hizkuntza, irudia, itxura eta praktika izan behar ditu. Esan nahi baita, gure diskurtsoak sinesgarritasuna eta engaiamendua izango badu, praktikarekin koherentea izan behar du.

Zentzu horretan, Gazte Antolakundearen zeregina indar metaketaren klabeen iraultza soziala garatu eta bizi eredu berria eraikitzen hastea bada, gure praktikak horren eredu izan beharko du, sistemaren aurkako estrategia ofentsiboa diseinatzeko eta desobedientzia eta intsumisioa masa borroka, borroka ideologikoa zein borroka instituzionala garatzeko oinarrizko praktika, jarrera eta tresnatzat hartuz. Gazteria burujabetzaren klabeen kokatu eta Euskal Estatu Sozialista eta Feminista eraikitzen bidean urrats kualitatiboak emanez.

Nolanahi dela, kontuan izan behar dugu borroka moldeak helburu politikoak lortzeko tresnak direla, ekintza politiko eta komunikatiboak dira. Zentzu horretan, estrategia komunikatiboak aktibismoarentzat jokalekua eskaini behar du baina beti ere strategiaren baitan jokatuz eta testuinguru zehatza baloratuz. Borroka molde bat edo bestea erabiltzerako garaian, strategiaren mesedetan ahalik eta eraginkortasun politiko eta jendartearen babes handiena ateratzea izan beharko dugu kontuan.

3.4.1.1.4 Funtzionamendua

Euskara, independentzia, sozialismoa eta feminismoa bizi eta borrokatzeko tresna dugu funtzionamendua. Guk amestu eta borrokatzen dugun bizi eredu egunerokoa garatzeko tresna.

Iraultza orain eta hemen dago. Botere hegemonikoaren baloreen aurrean, funtzionamendua beste balore eta bizi eredu bat aplikatzeko baliatu behar dugu eta beraz balore horiekiko koherentziaz jardun behar dugu. Amesten duguna gure funtzionamendutik hasten da beraz, gauden tokitik.

Aldi berean, gure funtzionamenduak zehaztutako helburu eta helmugetara era eraginkor batean nola iritsi erantzun behar dio. Eta funtzionamendu eraginkorra bezain parte hartzailea eraiki nahi dugun bizi eredu hori antolatzeko moduan islatzetik hasten da.

Bide horretan, funtzionamendua bere osotasunean uler dezakegu; ekimenak edo deialdiak egiteko era, bilerak zergatik eta zertarako, zertan jartzen dugun arreta, nolako konpromiso mailak uztartzen ditugun...

Funtzionamenduak norbanako zein kolektiboaren burujabetzari bide ematen dio.

Gu geu gure errealtatearen eta jardueraren jabe izanik.

Gaur egun, botere hegemonikoaren aurkako borroka gure barne hegemonia propioa eraikitzea suposatzen digu, kontraboterea irudikatuz gure praktiketatik. Horrela, kontrabotere horren oinarria sistema kapitalista patriarkalaren ezaugarriekin errotik iraultzen duen boterea eraikiz; parte hartzailea, kontzientea, kultur-anitza, eraikitzailea, horizontala, parekidea, elkartasunean... oinarrituz.

Modu horretan, gure botere propioa eraikiz, ideologia dominatzailearen des-eraikitze prozesu bat emanez bai pertsonalki zein kolektiboki gure erabaki zein harremanak garatzeko moduetan. Gazte Antolakundearen jarduna arautzen ez baldin badugu edo eraiki nahi dugun bizi eremuan oinarritutako funtzionamendua bermatzeko mekanismorik ezean, sistema dominatzaileak dituen baloreak erreproduzitu ditugu eta ez da gure askea izango.

Guk geuk jarri behar ditugu arauak, egoera eta beharren arabera izan behar dira eta horrek prozesua dinamikoa izatea dakar. Jarrera dominatzaileak ekidin behar ditugu, denok eroso sentitu. Kolektibo baten parte garen heinean, eskubide eta betebeharrak batzuk izango ditugu. Horrek ez du esan nahi ordea, kolektiboaren baitan desagertu egingo garenik: gutako bakoitzaren errealtateak isla izan beharko du kolektiboan, baina kolektiboaren garapena ez oztotatzeko malgutasuna eta kolektiboarekiko koherentzia pertsonala izan beharko dugu.

Gazte Antolakundea ez instituzionalizatu eta burokratizatzeko, hausnarketa iraunkorra behar dugu, funtzionamendua eta helburuak behar berrietara berregokitzeko. Izan ere, egitura bat izateak bere onurak dituen bezala arriskuak ere baditu. Egitura ezinbestean eraiki nahi dugun bizi ereduaren bermatzailea da. Egiturak beharrezkoak dira, baldin eta instituzionalizatzen ez badira eta hor dago lehen arriskua. Egitura tresna beharrean helburu bilakatzea.

3.4.1.1.4.1 Militantzia

“Denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten”
Argala

1.3. puntuak aipatu dugun bezala, zapaldu oro da iraultzarako subjektu potentziala. Hala, bakoitzak bere posiziotik eraldaketarako eta iraultzarako aukerak gaitasuna nabarmentzen da. Zentzu horretan, subjektu guzti horientzat antolatzeke espazioak eskaini behar ditu Gazte Antolakundeak. Badakigu gazte bakoitza motibazio ezberdinen arabera mugitzen dela eta bakoitzak ekarpena bere mailan egiten duela. Gazte guztiok antolatzeke eta lanerako espazioak izateko, lan banaketa egokia egitea da gakoa.

Gazte Antolakundea militantez osatuta egongo da (betebeharrak eta eskumen zehatzak izango ditugunak) nahiz eta borrokaekin konprometituta dauden bidelagunentzat elkarlanerako zein hausnarketarako espazioak eskainiko dituen.

Gazte Antolakundeko militanteok hartzen ditugun ardurak guztiek balio berbera dute, hondar ale guztiak dira beharrezkoak. Jakina da guztiok ezin dugula ekarpen bera egin, ezin espero dezakegu denok berdina emateko aukera edo nahia izatea, baina zalantza izpirik gabe ekarpen guztiak dira beharrezko. Militante bakoitzaren ekarpena norberaren gaitasun eta beharretara zuzenduta eta lotuta egongo da.

Norberak hartzen duen ardurarekiko eta koherentzia iraultzailearekiko arduraren oinarritu behar da militantzia. Kide guztiok harturiko ardurak ekartzen dituen erantzukizunak gure gain hartu behar ditugu.

Bestalde, Gazte Antolakundearen praktika militanteaz harago militantzia bizitza ulertzeko eta bizitzeko modua da eta konpromisoa gure eguneroko bizitzako esparru guztietan gogoan hartu beharko dugu.

Gazte Antolakundeko militanteok euskaldunak, eredugarriak, arduratsuak (hartutako ardurak bete eta antolakundearen beharrei erantzun), aktiboak, umilak, parte hartzaileak, kritikoak, koherenteak, irekiak eta iraultzaileak izan behar dugu.

Bestalde, gure helburua Euskal Herria euskalduna egikaritzea izanik, gure bizitza euskaraz egitea ezinbestekoa da eta gure jardun politikoa ere euskaraz egin beharko dugu. Dena dela, tokian toki, gune erdaldunetan kanpo proiektzioa eta mezua zabaltzeko ahal izateko euskarakoekin batera erdarazko mezuak ere erabili ahalgo ditugu, beti ere helburua Euskal Herria euskalduntzea izaki.

Militanteok Euskal Herria euskaldun bat lortu bidean, Gazte Antolakundearen ideiekin bat eginez eta berarekin koherente izanez, euskaraz bizitzeko beharra ikusten dugu, horretarako beharrezko pausuak emanez (euskaraz ez dakitenen kasuan ikasiz etab.).

Azkenik, Gazte Antolakundeko militanteok argi izan behar dugu sistemak kontrolpean izan nahi gaituela, sistema kapitalista patriarkala desegin eta bestelako bizi ereduak eraiki nahi dugulako. Zentzu horretan segurtasuna ere gure bizi modua ulertzeko kontuan izan beharreko elementu garrantzitsua da. Beraz segurtasun irizpideak finkatu beharko dira.

Gazte Antolakundeko militanteen egoera pertsonala errespetatu beharko da. Izan ere, norbanako batek arrazoi ezberdinengatik bere bizitzako etapa horretan Gazte Antolakundearekiko konpromisoa bete ezingo duela aurreikusten badu eta denboraldi horretan Gazte Antolakundearen parte aktibo ez izatea erabakitzen badu, komenigarria litzateke gainontzeko militanteek euren oniritzia zein elkartasuna adieraztea. Hala ere, antolakundearen eguneroko informazioa helarazi beharko litzaioke, hala, konfiantzazko giroa sortuz.

Militantzia zikloa

Egungo jendartean gazte problematikaren azterketa egiterakoan, gazte izateaz eta gure problematikaz aritu gara. Hausnarketa horren baitan, egungo jendartean gazte izatearen luzapena eman dela aztertu dugu. Sistema kapitalista patriarkalak gazteon bizi baldintzetan emandako aldaketek gazte kolektiboaren definizioan ere aldaketak ekarri ditu.

Honek beraz, Gazte Antolakundeko militantzia zikloan ere aldaketa batzuk egitera eramaten gaitu. Ez dugu gaztea izatea zer den adin tarte batean ezaugarritzen, gazte izatea ez baita urte zehatz batzuen gorabeheran definitzen. Hala ere, kontutan izan beharko ditugu bai gure lan ildoetan zein antolakuntza eredian gazte ezberdinon bizi baldintzak.

Adinaren arabera, gazte izatea bera era desberdinetan bizitzen da. Ez dira berdina 16 urteko edota 27 urteko baten bizitza ikusi, ulertu nahiz bizitzeko moduak. Hala ere, adin desberdinak izan arren ez da adinaren araberako banaketarik egin behar. 16 urteko batek 27 urteko batek bezainbeste izan dezake irakasteko. Elkar ikasiz eta ikuspegiak trukaturaz, antolakundearentzat nahiz militanteentzat, nahiz estrategiarentzat aberasgarria da gazte-ziklo desberdinetako kideek borroka esparru berberak konpartitzea.

Horretaz gain, militantzia bizitza ulertzeko modua izanda, gure militantzia ez da gazte ziklora mugatzen. Zentzu horretan, militante orok bere gazte militantzia zikloan lau fase bete behar ditu. Aurremilitantzia fasea (formaziorako eta kokapenerako tartea), hasiera fasea (Gazte Antolakundean ematen diren lehen pausoak, lehen esperientziak biziz), fase egonkorra (militantzian ibilbidea egina duguna eta bakoitzak bere tokia topatu duguna) eta transmisio fasea (Gazte Antolakundeko militantzia utzi aurretik, ardurak eta esperientzia guztia belaunaldi gazteagoei transmititzeko fasea).

Haatik, ziklo hauek ezin dira modu zurrunean ulertu. Militantzia ikasketa prozesu etengabea eta iraunkorra da. Uneoro gabilitza elkarrengandik ikasten eta esperientziak trukutzen.

3.4.1.1.4.2 Barne antolaketa

*“Soilik ongi antolaturiko herriak lor
ditzake helburu handiak”
Argala*

a) Marko metodologikoa

Ezarritako funtzionamendua garatu ahal izateko tresnak jarri behar ditugu, bitartekorik ezean, ez ditugulako helburuak beteko. Bide horretan, funtzionamenduaren filosofiaren oinarria bermatzeko tresna dugu marko metodologikoa. Tresna hau, militantziaren artean funtzionamenduaren inguruko adostasunezko izaera eta arau batzuk ezartzean datza.

Marko metodologikoa adosteko ariketa maiztasun jakin batekin eta eremu guztietan egitea ezinbestekoa da. Ariketa honetan, markoen izaerak (informatiboa, erabakigunea,...), bete behar ditugun funtzioen arabeko arduren banaketa, bileretarako jarriko ditugun arauak (puntualitatea, erretzearena, mugikorraren erabilera...), metodologia, maiztasuna eta abar zehaztuko dira.

Marko metodologikoaren berrikuspena egitean balorazioa eta autokritika eginez aurrera begira, izaera, funtzioak, ardurak, arauak eta abar egokituz funtzionamenduaren eraginkortasuna bermatzen saiatuko gara. Marko metodologikoa berrikusten den unea izango da beraz hau guztia zalantzan jarri eta berregokitzeko unea.

Bestalde, marko metodologikoa zehaztean jardun politikoa baloratu eta uneoro berrikusteko bitartekoak sortzeak perspektiba ez galtzea laguntzen du egunerokotasunaren zurrunbiloak ez itotzeko.

b) Egituraketa

Egitura edo eraketa, helburu estrategikoak lortzeko tresna da (ez helburua). Funtzio nagusia, herrien beharrezan mesedera dagoen baliabide bat izatea da, denok bide beretik joatea bermatuko duena. Era berean barne komunikazioa bermatuko duena.

Gure egitura zehazteko abiapuntua eta ezinbesteko esparru gisa "herria" kokatu behar dugu. Herri eta auzoak baitira gure strategiaren zutoinak eta iraultzarako esparru nagusiak. Hala ere herri eta auzoak ez dira esparru isolatuak, hauetan ez ezik, eskualde, herrialde eta maila nazionalen jardunez gazte estrategia bere osotasunean aurrera eramango baitugu

Eremu guzti hauek, bai formaziorako (3.4.1.1.1. atalean azaltzen den bezala ulertuta) baita dagozkion eremuaren arabeko eztabaida eta erabakiak hartzeko espazio bezala ulertzen ditugu. Era berean beharrezkoa izango da eremu bakoitzak bere urteko jardun eta plangintzaren berrikuspena eta balorazioa egitea, aurrera begirako lana eraginkortze aldera. Arestian aipatu bezala, marko metodologikoa ezinbesteko tresna izango dugu eremu hauen jardun egokia bermatu ahal izateko.

Sar gaitezen beraz eremu bakoitzaren funtzio zehatzak aztertzeraz:

Herri eta auzoak

Gazte Antolakundearen oinarria dira. Hortaz hausnarketa, eztabaida, erabaki eta borrokarako gune nagusiak izango dira.

Herri eta auzo bakoitzak errealitate eta beharrezan ezberdinak ditu, eta horren arabera antolatu beharko du. Bete beharreko funtzioak zeintzuk diren kontutan

hartu eta herri edo auzoan guzti hau nola egin pentsatu beharko da.

Hala ere, konpromiso maila ezberdinak uztartzera begira, komeni da espazio ezberdinak zabaltzea gazteok militantzia garatu ahal izateko. Garrantzitsua da gazte orok antolakundearen ekarpena egiteko tokia izatea eta horretarako bideak zabaltzea behar ditugu.

Jakina da herri bakoitzak errealitatearen arabera bere egituraketa izan behar duela eta ezer zurruna ezin dela planteatu. Baina herri bakoitzak bere ereduak diseinatu behar badu ere honako funtzio hauei erantzun beharko dio:

Herri/auzoko Gazte Estrategiaren diseinua bertan burutuko da.

Estrategia horren garapenerako plangintzak zehaztuko dira (ildoak, komunikazioa, formazioa, diruzaintza...). Ildo lokala lantzeaz harago, plangintzak, ildo orokorraren lanketa ere barnebildu beharko du.

Koiuntura politikoari erantzun.

Egiturarekin koordinazioa bermatu.

Herri/auzoko eragileekin harremanak garatu, Gazte Estrategiarekin bat egiten dutenekin lehentasunezko harremana izanik eta koordinazioa garatuz. Ezker Abertzaleko erakundeekin koordinazioa bermatu.

Oinarri sozialarekin etengabeko lanketa. Harreman iraunkorra bermatuz eta behar izanez gero tresnak sortuz.

Gazteriarri antolatzeke eskaintza luzatu behar diogu, horretarako espazioak identifikatu eta behar diren tresnak sortuz.

Eskualdeak (Hiriburuak)

Eskualdeak herri/auzo ezberdinak batzen dituen eremuak dira. Eskualdeen artean errealitate ezberdinak ematen dira eta baita eskualde barruko herri/auzoen artean ere. Hau kontutan izanda, eskualde bakoitzeko egituraketak ez du zertan berdina izan behar, eta beraz tokian tokira egokitutako funtzionamendua zehaztu beharko da.

Hauek izango lirateke eremu honi dagozkion funtzioak:

Eskualdeko ikuspegia bermatu.

Perspektiba horren araberako planteamenduak garatu.

Eskualdeko beste herri/auzoetara hedatzeko planteamenduak garatu.

Auzo/herrietako borroka lokalei eskualdeko dimentsioa eman.

Auzo/herrien errealitatearen ezagutza eta militantziaren arteko harremana ahalbidetzea eta horien koordinaziorako bideak ezarri.

Egiturarekin koordinazioa bermatu. Jarraipena bermatu, bai herriekiko zein herrialdeekiko.

Eskualdeko eragileekin harremana garatu, Gazte Estrategiarekin bat egiten dutenekin lehentasunezko harremana izanik eta koordinazioa garatuz. Ezker Abertzaleko erakundeekin koordinazioa bermatu.

Herrialdeak

Eremu hauei dagozkien beharrezko erantzuteko esparruak dira. Hortaz hauek dira eremu honi egozten dizkiogun funtzioak:

Estrategia horren garapenerako plangintzak zehaztuko dira (ildoak, komunikazioa, formazioa, diruzaintza...). Ildo lokala lantzeaz harago, plangintzak, ildo orokorraren lanketa ere barnebidu beharko du.

Eztabaida estrategiko eta hausnarketak eman eta beharrezkoa denean planteamenduak egin.

Herrialdeko beste eskualdeetara hedatzeko planteamenduak garatu. Eskualde eta herri/auzoen jarraipena.

Herrialdeko eragileekin harremana garatu, gazte estrategiarekin bat egiten dutenekin lehentasunezko harremana izanik eta koordinazioa garatuz. Ezker Abertzaleko erakundeekin koordinazioa bermatu.

Eskualdeen errealitatearen ezagutza eta militantziaren arteko harremana ahalbidetzea eta horien koordinaziorako bideak ezarri.

Egiturarekin koordinazioa bermatu.

Nazionala

Estrategia nazionala den heinean antolakundeak egitura orokor bat izango du, alde batetik herrietan garatuko diren borrokak nazionalki proiektatu ahal izateko, tresnak eskaini ahal izateko eta bestetik nazional mailako ildoak garatzeko. Herrien beharrei erantzuteko.

Bide horretan, honakoak dira eremu honek bete beharreko funtzioak.

Gazte Antolakundearen zuzendaritza.

Gazte Estrategia osoaren ikuspegi orokorra bermatu.

Nazio Estrategia bermatu.

Gazte Estrategiari buruzko erabakiak hartu.

Herrien beharrei erantzutea eta elkar harremanerako bitarteko eta espazioak eskaini.

Bizi eredu berriak garatzeari begirako alternatibak egikaritzeko planteamenduak osatu.

Borroka lokalei dimentsio nazionala eman.

Barne ildoen garapenerako bitartekoak sortu eta eskaini.

Koiuntura politikoari erantzun.

Ildo orokorren garapenaren jarraipena.

Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoarekin etengabeko kontaktua izan.

Harremana garatu: Nazio mailan (Herri Mugimendua, eragile politiko/ sindikal...) gazte estrategiarekin bat egiten dutenekin lehentasunezko harremana izanik eta koordinazioa garatuz. Nazioartean ere Gazte Antolakundeak harremanak garatu beharko ditu. Ezker Abertzaleko erakundeekin koordinazioa bermatu.

- antolakuntzaz:
- independentzia
 - sozialismoa
 - feminismoa

